



EGAN

JOXEMIEL BIDADOR:

**Arte koreografikoaren
semiotika baterako**

JOSEBA GABILONDO:

Atxagaren psikoanalisia

JUAN SAN MARTIN:

Caro Baroja, arrotz?

Kritikak eta erreseinak

1996-1

AURKIBIDEA

AZTERKETA LITERARIOAK

PATXI EZKIAGA. Iratzeder, sinboloen deia	5
KARLOS CID ABASOLO. Euskal literaturaren hiru emakumezko pertsonaia: Elsa Scheelen, Gisèle eta Antxonen ama	31
JOXEMIEL BIDADOR. Arte koreografikoaren semiotika baterako.....	45
JOSEBA GABILONDO. Atxagaren psikoanalisia: literatura, subjektibitatea eta esfera publiko garaikideaz zenbait ohar	61
JUAN SAN MARTIN. Sorginak Hondarribian? J. Caro Barojaren oroitzapenez	81

SORKUNTZA

POESIA	
ANA ISABEL ITURBE. Ez ninduen beldurtzen ..	87
USARRABI. Bi bihotz	95
OTSALAR. Eskuarlean zaitut. Lizardiri	97
HONDARRIBI. Hegan ari nintzela.....	101

ANTZERKIA

YOLANDA ARRIETA. Bihozkadak	105
-----------------------------------	-----

KONTAKIZUNAK

LUIS MARI MUJKA. Altxorra.....	135
--------------------------------	-----


ITZULPENAK

LLUIS RÒDA. Alguns poetas són	143
W. WORDSWORTH. The oak of Guernica.....	146
ARCHIBALD MACLEISH. Ars poetica.....	148

ADABAKIAK

Euskal literatur sorkuntza: 1995ean argitaratutako liburuen zerrenda.....	153
Caro Baroja, arrotz?	161
Euskararen lehen idatziak	165
Ego ibarrera begira? Oharrez eta umorez ..	166

EGAN



Mari, Salvador Carrera fideles

EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO
"BOLETIN"-AREN EUSKARAZKO GEHIGARRIA

Idazkaritza: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. Gipuzkoako Salla
992 Postakutxatila — DONOSTIA



*Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria*

*Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak
ez du derrigorrez bat etorri behar
EGAN aldizkarian agertzen diren edukiekin.*

ERREDAKZIO BATZORDEA

Zuzendaria: Luis Mari Mujika
Zuzendariordea: Iñaki Zumalde
Idazkaria: Guillermo Etxeberria
Administrataria: Jose Antonio Zabala
Bokalak: Jose M^a Urkia
Juan Garmendia Larrañaga
Abel Muniategi

ISSN: 0422 - 7328. EGAN
Legezko Gordailua: SS. 289/1958
Inprimategia: BIZKER - Usurbil



AZTERKETA
LITERARIOAK

Iratzeder, sinboloen deia

PATXI EZKIAGA

Izen honen pean zenbait arlo ezberdin uztartu nahi izan ditugu: alde batetik euskal historian guztiz eraginkor izan diren *gertakizun historikoak*; bestetik euskal *mitogintzarako* erabakiortzat jo ditzakegun *fabulazioak*; hirugarrenoz ahozko literaturarekin loturik dauden Euskal Herri sakonaren *eletzarrak* eta *pertsonaia historikoak* azkenik.

Arreta bereziz aztertu behar den puntua delakoan nago, nolabait hasieran aipatzen genuen binomio *Jaungoikoa* eta *Legezarra* binomio definikorraren lehen terminoaz aritu baldin bagara ere, oraingo arlo honek eman bait diezaguke bigarrenaren ulerkuntza egoki batetarako argia.

Sinbologia historikoa

Gernika jarriko genuke —dudarik gabe— gertakizun historikoen arteko lehen sinbolo bezala. Sarri aipatzen ez badugu ere Espainiako gerratea Iratzederren poesigintzan ia beti present dagoen itzal botereatsua da, batipat bere lehen poema liburutan. Poeta lapurtarrak hondamendi supremoaren lekuko gisa ikusten du hiri masakratua, Iratzederrengandik urruti pareko Coventry, Dresde, Hiroshima eta Milai. Poetak normalean —egoerak guztiz ilunak, itxiak izateagatik ere— beti aurkitzen du esperantzarako ate bat. Oraingoan ez. Gaitz ia absolutuaren ikur gisa ikusten du *Gernika*.

Zure kantu sarkorra
entzun dut gau huntan:
aditu izan nuen
jadanik askotan:
bozkarioz bihotza
gainditzen zitzaitan.

Gaur egin dut gogotik
nigar ilhunbetan.

Gernika!

Ikusten zaitut hilen
herria iduri;
etche aurtikitz baizik
ez zare igeri...

Gernika!

Choratzen, iluntzen daut
hitz horrek bihotza.
Mendek jakinen dute
haren zorigaitza...

Eta Gernikako pareko gertakizun historikoak bilatzerakoan atzerantz joko du poeta, aintzinaldian modernitatean Gernika bezain sinboliko joa izan zen Kartagora. Agian horregatik esan genezake gaitz absolutuaren zentzuarekin batera heroizitate ia absolutuaren esanahia ere ikus diezaiokegula. Gainera, garbi adieraziko digu Uhaineri Nagusi liburuan Gernika toki fisikoa izateaz gain euskaldun orok bihotz barruan daraman borrokaren izena dela. (U.N. orr. 12)

Idea horrekin lotuta, nahiz eta espresoki hain sarri ez ageri, ez dago dudarik bi gertakizun historiko itzel direla Iratzederren poemetako gaia eta sinbologia markatzen dutenak historia arloko beste guztien gainetik: Espainiako gerra eta II. Munduko Gerratea. Kontaezinak lirateke horri buruzko erreferentziak. Horren parean beste maila batean gelditzea dira besteak, garrantzizkoak izan arren. *Orriaga*, esate baterako, euskaldunak eta frankoen arteko borroka izatetik esanahi zabalago batetara pasako da eta arerio panhistoriko bat, *Islam*; etzaitzat jotzen duelarik, kristautasunean sustraitutako Europa batuaren sinbolo bilakatuko da. Oso bitxia da Iratzederrek nola eman ahal izan duen interpretapen historiko hori ikustea, eztabaidagarria, zalantzarik gabe. Zutarri berdinean jarriko ditu Euskaldunok, Errolan eta Karlandi, eskutik zihoazen lagunak bailiran.

“Orriagoko euskal-gudua,
burua gora, gaur aipa:
lurperatetik baitu zaindua
gizon libroen Europa”. (J.H. orr. 495)

Esan dezagun, gainera, poema berean, eta sinbologia beraren alorrean, Orriaga Europa fededun eta proselitista baten amatzat

jotzen duela, Azpilikueta (Franzisko Xabier donea noski) bezalako gizon-emakumeak sortaraziko dituen. Eta hori egitean izango du Nafarroako ARRANOAK bere esanahiaren betea, politikoarekin batera erlijiosoa.

"Indarkeriak ezarri mugak kraskatzen hasi orduko, Euskal-gogoa noiz da jauziren arranoaren pareko? Azpilikueta bezain kartsuko eta jakintza gaitzeko gizon libroak noiz ote dire Orriagatik jaliko?" (J.H. orr. 496)

Aipatu beharrean gaude, agian Iratzederren kredo politikoaren bilakaera zehatzago baten lekuko, bere azken poemarioetan hartzen duela Nafarroak nolabaiteko protagonismoa, lehen somatzen ez zaiona. Ikusi bestela zernolako minez kantatzen duen poeta donibandarrak:

"Nafarroa, Nafarroa, euskal lurren ama lurra, euskal seme guziekin noiz zaitugu bat beharra? Gutartetik zaizkigula beldurra joan eta herra, ager dadin azkenean anaitzeko goiz ederra". (J.H. orr. 500)

Hau 1979-ko poema da. Dena den honek ez du esan nahi bere funtsean behintzat poeta beneditarraki garbi ez zuenik Euskal Herri bat eta batu baten deia, agian beste edonork baino hobeto Zaldubik bere "Zazpi Eskual Herriek bat egin dezagun" proklama hartan oihukatu zuena. Honela idazten du Iratzederrek bere Argiz Argi liburuan argitaratutako *Zer gizonak* 1949-ko poema luzean:

"...ez uka, bainan ixur, hela, erein, haurren ta elgarren baitan, zainetan dabilkizuen eskual-amodioa, bat dagon, muga ororen gainetik ere, eskual jende osoa" (A.A. 28)

Baina, luze begiratzen du donibandarrak eta Euskal Herria ez du gure muga estuetan lotuta ikusten, mundu zabaleko kontzertu barruan baizik, unibertsaltasuna euskal izatearen halabeharrezko osagarria bailitzan:

"Eskual seme bakotxak bi Herri dituela: Eskual Herria eta mundu zabala" (A.A. orr. 28)

Halabeharrezko esan dugu, *migrazioa* ere gure izakeraren *sinbotzat* jotzen duen heinean, sinbolo mikatza eta itxaropentsua ere be-

rean. Horrela adierazten digu batipat Zeru Menditik eta Argiz Argi liburutan, sarri gainera.

“Eskual Herriko gazte maiteak, eskual lurraren lorea,
nundik duzue zuen barnean duzuen urhe-gosea,
nundik amestu, diru egarritz, herritik kanpo joatea?” (Z.M. orr. 176)

Zernolako intentsitatez adierazi duen gainera joandakoen problematika, beraien herrimiña!

Ilunbez, nigarrez eta hil-harriez bertzalde hartako
goiz-argi ezin hil, ezin ilunduan, ortzi ximixtaka
xuti berritz!

Nevada gainera eta Koloradon, Xilen, Argentinan
eta nork daki nun herri minez hilak zure dei karraskaz
guziak pitz... (A.A. orr. 44)

Baina sinbologia historiari dagokion gertakizun historikoen arloa guztiz elbarri geldituko litzateke, gure ustez, bidai historikoaren egiazko jitea zertan datzan aipatuko ez bagenu. Arlo honetan poeta guztiz kezkatu eta larrimindua aurkitzen dugu, Iratzederrek *sekularizaziorako bidaia* gisa ikusten bait du Iraultza Industrietik honuntzako eta, beraz, arbuia garri, txarra, gaitza, fedegabeziarekin topo egin behar izan duen heinean behintzat. Benetan esango nuke hau drama pertsonal serioa gertatu zaiola Iratzederri, poematan adierazten duenaren arauera. Horrela esango digu *burdina* eta *dirua*, industrializazioaren sinbolo diren neurrian bilakatzen direla sekularizazioaren lekuko eta ikur.

“Burdinez balin bada geroan gizona
eta bihotz barnea diruz balin badu,
akabo da errotik jenden zoriona:
fedez gabetu denak dena baitu galdu” (J.H. orr. 520)

Bestalde, Marxismoak Elizari egindako salaketa jaso eta deia-darkatu egiten du poeta donibandarrak irtenbidea ez dela ihesa eta sekularizazioaren tipologia bezain garbi ikusten du egiazko kristau utopia. Entzun bestela lehenik salaketa:

“Zeruz nahi daukute lur guzia hustu,
zeruak gizontasun kentzen omen baitu...” (U.N. orr. 71)

Berehala jasotzen du erronka, zerua hemen eraiki behar dela adieraziz.

“Gizonik gizonena zeruz betea zen...” geroxeago zerau esateko:
“Ez da-eta otoitza ezaxol ametsa...” (U.N. orr. 71).

Dena dela esan behar da kezka beteta agertzen zaigula Marxis-
moak erakarri duen euskaldunarekin topo egiten duenean. Gutxitan
ikusten da Iratzeder hain malenkoniatsua, iraganak pott egin izan
baligu bezala.

“Migel Mari, Migel Mari
argia bila joateko
zertako hil zertako
barneko argi hori?...”

Aitzurra eskuan bazauden
gaineri beha:
biderik hoberena ez den
Martxen bidea...” (U.N. orr. 31)

Sinbologia historikoaren bigarren arloan, hots, *mitogintzarako fa-
bulazioan* sartzetakoan, aurrez aurretik adierazi behar dugu agian,
hemen erakusten duela Iratzederrek osijinaltasun ezarik nabarmenena
eta murriztasunik haundiena ere. Lau erreferentzia besterik ez dugu
aurkitu bere obra osoan eta ezagunak lauak. Lehenengoa Pindar eta
Lainon azaltzen zaigu, bere lehen poemarioan eta *Chahoren* fabula-
zioa jasotzen du, Atharratzeko ikusleak bere “Aztia Begia”-n hain kolo-
retsu eta bortizki eskuratu ziguna.

“Haurretikan dut maitatu Aitorren lur gozo hura...” (P.L. orr. 35)

Ausartago oraindik Zeru Menditik liburuko Intzola poeman.

“Intzolako erreka, erreka ilhuna,
dena haitzpe, chirripa, hats eta pilpira,
ilhunpetik auhenez maiz entzuten dutana
Eskualdun Jainko Semen Goizaren begira...” (Z.M. orr. 145)

Horrekin batera hartzen du Garibai-en garaiko Euskal Herri ga-
raiezinaren irudia, erromatar eta mauruen aurka beti garaile aterata-
koarena, hizkuntzan gorpuzturik erakusten bada ere.

“Berritz ere denerik haiz nausituko Eskuara,
erromano ta moroen garraitzale suhara...” (A.A. orr. 20)

Sinbolo gugandik hurbilagorik ere erabiltzen du arlo honetan, ikur-
rinarena kasu, (A.A. orr. 38) baina esango nuke indar eta zentzu
sakonenaz erabiltzen duena *hilarria*-rena dela, seguraski Mendebeko
Marietxe eta Okabeko gure protohistoriaren katedral izugarria ezagutu
duen gizonaren hatsari dagokion bezala. Beldurrik gabe jokutzen du
Iratzederrek sinbologia honekin. Hain zuzen ere guzti hau izango da:

- Gizonaren balio amaigabearen sinbolo
- berpizkundearen sinbolo
- harriz harri dabilen Jainkoaren presentziaren sinbolo
- euskal pizkundearen sinbolo, etzandako hezurren gainetik
bihotza sutu eta euskal gogoa xutik jarriko duena.

Horrela adierazten digu Jaunaren Hegala liburuko “Hil-harria”
poema inspiratuan.

Esan dezagun beharbada hori baino murrizagoa dela oraindik
Euskal Herri sakoneko *eletzarretatik* sorturiko sinbologia. Bi errefe-
rentzia besterik ez dut aurkitu eta Pindar eta Lainon biak. Gainera ez
nago guztiz ziur nire irakurketa ehunetik ehun segurua den, baietz
esaten ausartzen banaiz ere.

Lehenengoa Barandianengan hain maiz agertzen den *Mari* edo
Maddi-rena litzateke. Iradokikorregia da testua beste zerbait izateko.

“Ilhunbeak haizatuz Artchilorat jin zait
ilheak harro harro, jin zait Urthe Berri:
bi besoak luzatuz, erraiten daut Garrait.
Dena nigar, dena irri.” (P.L. orr. 62)

Bigarrena Aralarren eta beste zenbait tokitan kokaturiko *dragoia-
rena* da. Iratzederrek gerrarekin lotzen badu ere. Baina hor dago,
indar bereziz.

“Zeruko hedoi beltzak sugartuz iragan da itzal latza.
Eskuak luze ta dena hezur sua botatuz ahotik,
hegalak gaua bezenbat zabal, iragan da zorigaitza:
guziak odol, guziak nigar uzten baititu ondotik...”

Sinbologia historikoaren esparrua amaitzeko *pertsonai sinbolikoen* arloa ukituko dugu, aipatu besterik egiten ez badugu ere, hau izanik Iratzederrek gehien azpimarratu duen bitartekoa... eta denen artetik zehatzena seguraski, iradokikorrena, poeta lohitzundarrak arreta haundirik egin bait du sinboloen aldarean kokatzeko lain diren pertsonaien hautaketa, iraganarekin lotuak batzuk, orainarekin besteak.

Iraganarekin lotuen artean, Iratzederrek ematen dien hedaduraren arauera, hauexek lirateke pertsonaia sinboliko nagusienak, sailkatuak:

Axular

Axularrengan, harria arima galtzeko arriskuan dagoen unean *euskal arimaren* haragitzea ikusten du. Axular aurkezterakoan jauzketan historikoa egiten du Iratzederrek, historian ez bada ere poesian zilegi dena, hots, Axularren garaiak kokatzea Iratzederrek garai honetan ikusten duen prozesu historikoari buruzko ikuspegi beltz eta larria. Mesias gisa aurkezten digu Axular, inutaziorako eredu, bera bait da lur honen kantua.

"Haize burrunba, ortzi karraska, Larrungo gaina su pindar...
eta hedoen artetik jautsiz itzultzen zinen, Axular,
bihotz gogoak Jainkoz betherik, dena su, amets eta khar.

Zuk belhauniko, lantuz Eskuara, zabalduz Eskual goga,
burua sutan moldatu duzu, Axular phez beroa,
hil-hurren ziren Eskual Herrien bethiereko Geroa. (Z.M. orr. 130)

Garaiaren eta euskararen arazoa aztertzerakoan, berriz, garbi dago Iratzederrek irtenbide bakarra ikusten duela: *hil ala gaztetu*. Halere zera honetan datza gakoa: zer da gaztetasuna? Beharbada Roger Garaudyk adierazten digun bezala ulertu beharko genuke, denok oso zahar jaiotzen garela esaten digunean, historiaren, tradizioaren kredo eta usadio batzuen zasua izugarria gure bizkarrean, eta erabaki pertsonalak hartzeko gauza garenean bakarrik irabazten dugula pixkanaka, odolez eta nekez gaztetasuna. Aldiz, beldur naiz Iratzederrek aspaldian ezarritako eredu baten inutazioan ez ote duen jartzen, hau da, atzeranzko bidaian. Eztabaidarako konzeptua, dudarik gabe, eta sakonetik aztertzea atsegingo genukeena.

Axularren ondoren *lehenengo Sabino Arana*, geroko *Telesforo Monzon* jarriko nituzke. "Ene Aberri laztana auzi zara erbestepian..."

kantatzen zuen lehenengo Sabino Arana hura, industriazlitzazio prozesuaren etsai amorratua. Honela dio, ildo beretik, Iratzederrek:

“Gazte bihotzik diruak eihartua ez denik?
kaskoinduak zaiztela ba othe ditake?” (Z.M. orr. 113)

Eta geroko Telesforo, “lepoan hartu ta segi aurrera” izugarri harekin liluratu eta bultzatu gintuena. Ikusi nola jartzen duen poeta lohitzundarrak.

“Chuti, begia su-pindar. Chuti, Arraintzaleak,
zainetan berritz pizturik lehengoan odola.
Arrotz tiraineri gogor, chuti, Eskual Semeak,
eskualdun leihorreko harrokak bezala”. (Z.M. orr. 113)

Etchahun litzateke hirugarrenengo pertsonaia, gure euskal errealitate gogorrenen sinbolo gisa.

Hala dio *Nun habil orai?* poema ederrean.

“Bainan hik bertze sukarrik, bertze surik huen:
minez, maitez, errabiaz hintzen hi pertsutzen.

Ai, iragan, inharrosiz eskual- lur hoztua;
haugi nola gau-itzala, nola hil-reinua...” (Z.M. orr. 188)

Elcano ere ekartzen digu gogora gertakizun geografiko baten traszenditze prozesuan munduaren aurkikundea arimaren aurkikundearentzako eredu gisa planteatzen duenean.

“Zuetarik batzu ere munduaren sutzeko
Jainkoak berak hautetsi gizaseme bakarrak.
Itsas-lurreri nausitu lehengoan pareko,
ez othe dauzkatzue barnean su-garrak?” (Z.M. orr. 112)

Kurioski, modernitateko pertsonaiak hautatzen dituenean letra gizonetan jartzen du begia. Den denak, poetak, idazleak, bertsolariak, lurgi Oteiza ezik. Harrigarria da zernolako trebetasuna erakutsi duen Iratzederrek euskal munduarekiko atxekimenduan gailendu diren pertsonaiak hautatzerakoan. Kronologiak markatzen duen sailkatzea besterik ez dut egingo.

Basarri da Pindar eta Laino liburuan agertzen den lehena. *Basarri* batez ere herria jo duen gaitzarentzat SENDAKARI izango da alde batetik eta herri honek gerran galdutakoaren sinbolo. (P.L. orr. 37-38)

Oxobi, gero, euskaltasunaren pertsonifikazio (P.L. orr. 40)

Aitzol, *Eizagirre* eta *Monzon*, hirurak batera, kate baten hiru lotura bailiran, baina ongi bereizturik hirurak, bakoitza bere *Rol* sendakariaren arauera.

"Ikusi dut Aitzol fraiden artean ameska...
eta joan da, bere gazteen azken hil deiak entzunik;
joan da eta hil... heien odolean bere odola emanik
eskual errautsetan bertzen amodioz auhenkatuz: Barka!" (A.A. 26)

"Ikusi dut Eizagirre.
Euskal zorigaitzak, atsegabeak eta herioa
iragan zitzaizkion barne barnean..." (A.A. orr. 26)

"Ikusi dut, Lapurtar besta batean, Monzon,
hauts beltzen artetik doan arimodun sugarra
galerna ihurzurien ondoko ortz adarra..." (A.A. orr. 26))

Arresebeitia, *Lauaxeta* eta *Lizardi* present, oro present izendatzen ez baditu ere, beren poemen kutsu bizia duten ahapaldien bitartez.

"Eskual ama hiltzer ireki eta
bertzeak fereka, bertzeak arta!..." (A.A. orr. 32)

Nork ez ditu entzungo "Asaba Zarren Baratzeko" edo bizkaitarren Amona xaharraren oihartzunak?.

Iurgi Oteiza gero, eta bere Arantzaruko irudiak, zeini interpreta-pen guztiz traszendentea emango dien. (A.A. orr. 77), *Lafitte*, euskal-dunentzat sinbolo bera ere.

"Tiroa bezein bero
jeiki zinen jeiki.
Eletzar, ele zoro
jasanez ausarki,
Zu, ximist ala tiro,
beti xuxen joaki." (U.N. orr. 17)

Eta *Salbatore Mitxelena* azkenik, Iratzederrek zarauztarrara *Confixus* obrarekiko paralelismora erakusten digunean. Eta ez behin, askotan baizik.

“Berritz du Kristok pairatzen
Eskual-Herriko apezeen
bihotzean,
euskaldun gazten oinazen
kurutzean” (U.N. orr. 41)

Euskal sinbologia historikoa *Sendakaria* esan dugu behin eta berriro, mitogile eta utopiagile den heinean. Horregatik pertsonaia historiko guzti hauen oihartzuna ekarri ondoren, laburpen moduan, aurkezten digu Iratzederrek euskal utopia horren formulazio poetikoa. Aipuz luze xamarra izateagatik ere, osotasunean emango dut. Merezki du:

“Ibil eta noizbeit, maitatzearen bortxaz,
eskualdungoaren zabaltzearen zabaltzeaz,
sartuko zaite, sartuko gare, irrintzinaka ta kantuz
mundu bazter guzietarik goiko eskual xokoan.
Sartuko, ilunbe ta herio guziak gaudituz,
hemen maitatu eskual itzaletarik izaik egiazkoan:
zeruetan den Mundu berriko Eskual-Herri betierekoan.
Sartuko eta Iganen, osteka, ibaika, uhainka;
Aitzol, Eizagirre, Monzon eta oro
elgarri besarka, elgarri goreska;
oro dohatsu, oro kantuz ta kantuz,
osteka, ibaika, uhainka, irrintzinako
Iguzkien Iguzki den Jainko Gizonari buruz.” (A.A. orr. 28)

Hor daude Euskal Kristau utopiaren osagarri guztiak, azken produktu gisa San Mateoren 25. atalburuko gizon zoriontsua emango digutenak..., sala Marxek bere utopian deiadarkatzen zuen gizon poeta.

Aphezaren zereginarekin loturiko sinbologia

XX. mendearen amaian halako sailkapen batek bitxi xamarra ematen badu ere, uka ezina da Iratzederren poesia barrutik ongi aztertu nahi duen orok behar hainako garrantzia eman beharko diola arlo honi. Garrantzi haundia, ezpairik gabe, arrazoi batengatik batez ere, hots, bertan azaltzen direlako Iratzederren sinbologiaren berezitasunik nabarmenenak.

Zera esango nuke:

- Arlo honetan Iratzederren sinbologiak *ikuskizun* aurpegia hartzen duela, kontenplariaren prozesu mistiko baten ondorena. Benedi-tarraren poemek sarri *ikuskarien* itxura dute, itxitako begiei jakituri iturri berezi horretatik, emariaren oparoan datorkion ur supranatu-rala. Honek nolabait gizon izakerari ikuskari horren ondorengo apez izakera itsatsiko balio bezala. Orduan, ikuskaria eta gero joko du Iratzederrek apezaren rolaren bihotzera: Euskal apezza, Iratze-der, Jainkoa eta Herriaren arteko *zubi* izango da.

“Nahi nuen bihotz osoz nere Jainkoa maitatu;
nahi nuen indar oroz Herriarentzat bermatu” (Z.M. orr. 97)

Zehatzago adieraziko digu hori Intzola poeman.

“Zure aphez eskua altehatzen baituzu.
Jainkoaren gozoa nitan (herriagan) ichurtzeko”: (Z.M. orr. 144)

- Sinbologia hau, bestalde, *sinbologia onirikoa* bilakatuko da asko-tan eta askotan, poeta amets haundi baten partaide egin den mo-mentutik, aluzinazio utopiko baten hartzaile denetik. Sinbologia oni-riko horren arauera Iratzederrek
- a) Haitz zaharra berbizierazteko ikusiko du bere ametsa.

“Erranen dut nekazailer: “Iraul bozik zure landa”.
Gazter berriz: “Egon garbi: ederra da zure enda”.
Bihar aphez izanen naiz: haitz zaharra biziko da...
“Maite zaitut Sort Herria”. (P.L. orr. 36)

- b) Alegorikoa bilakatuko da bere izakera.

“Bere hegalak zabalik hegaztin baten pare
iduri du joan nahia maldatik airez aire:
bainan lurrari josia egoten da halere
munduari emateko beti zer nahi lore”. (P.L. orr. 53)

Eta askatasun izate horrekin lotuta bere betebeharra.

“Jainkoaren gudua hasiko baita laster...
argiaren ekartzeko ilhunpean daudenen...” (P.L. orr. 53)

Izate horrek baditu beste zenbait bereizgarri. Besteak beste, ari-
metan lorialako sua ereingo duen laboraria izatea, Jainkoa eta arimen

arteko traba izan beharrean, Jainko biziaren iduri bizia izatea, Argiz Argi poemarioan erakusten digun bezala, orr. 13,72 eta 89. Azken batez herriarekin bait da fraidearen konpromezua. Honela dio giltzatuak dauden gazteri eskainitako "Honi bakarrik" poeman.

"Zuen bihotzak, amor emanik,
huts eta ustel ez diton,
otoitz kartsutan zuekila bat
hara fraideak nun gauden". (J.H. orr. 487)

c) Guzti hori, salbamenerako sendakuntzarako dela bere izatea. Horrela adierazi beharko du Isaias igarleak Kristoren figurazio gisa aurkezten zigun *oinazezko gizonaren* tankera. Cupidura, lehenik, eta gure bizitza honetan maiz atsekabea lege denez, norbereganatu beharko du guztien atsekabea, minaren zinezko bozkario egin arte bere bizitza, ibil ez gaitezen, abereen pare, triste, lurrari begira.

"Heldu naiz heldu, Kristok suturik, idor ditela begiak.
Atsekabeak neretzen ditut, neretzen aphez jauntzia.
Nere baitarik ohiltzen ditut lurreko chede guziak
nasaikiago ethor dakitan goiko zorion bizia.
Sort-Herriari hartuko diot bere bazterren lillura
eta bihotzez, bazterrez bazter, auhenen alde banao,
irri bat bezein arin eta boz, zabaldu nahiz lurrera
zorionaren gozoa." (P.L. orr. 72)

d) Horrela gertatuko da *Arkadia* espiritualaren egile eta lekuko, herria versus hiria kontrajarketa ongi markatuko duen Arkadia.

"Jaunari eskaintzeko gure Sor-Herria
baitzoari bihar bozik gain urdin hoitara,
ez egon goresmenek hirian josia
zoazi oihetan barna, zoazi Intzolar." (Z.M. orr. 144)

— Sinbologia *kerigmatikoa* azkenik, exaltazio, gorespen bihurtzen dena, ikuskizun sortzaileen gainetik bizikizun egiten delako. Eta hau batez ere momentu eta egoera guztiz erabakiorretan gertatzen da, poetak bere barneko indarrak boteretsuenak: *Eros* eta *Pathos*, beren hezur eta haragizko lekutze lurtarretatik erauzi eta sublimazio transformatzailearen hegaletan garraiatuak Jainkoagan kokatzen dituenen. Horrela zera esango nuke, Iratzederren poe-

sian erosek toki guztiz murrizta duela sexu bilakatuta, ezerez agian, eta bai ordea *Agape* egina, kristau tradizio aszetiko eta mistikoren arauera. Beraz, Iratzederrentzat *Agape* bihurtu da *Eros* eta maitemintze prozesua bera trszendituta gelditzen da sinbologia kerigmatiko honetan.

Askotan adierazi du Iratzederrek, batez ere *Agur, Jesusen Ama* kantuaeren doinua erabiliz *Zeruko maitea* poeman. Nolabait maitemintze prozesuko elementu guztiak agertzen dira:

- Zato nere choratzera...
- itxarotearen ezinegona...
- zure lilurak nauka josirik...
- ikustearen poza...
- askotako tristeziaren irtenbidea... (P.L. orr. 67)

Zeru Menditik liburuko “Oi ene bihotz barneko...” poeman, berriz, honela dio:

“Noiz izanen dut bihotza
amodioz errea?”... (Z.M. orr. 109)

Eta Argiz Argi liburuan giza maitemintzearen terminologia erabiltzen du Jainkoa eta giza bihotzaren arteko maitemintzearen figura bezala.

“Bihotz bat egin zuen eta bihotz bi
amodioz jos zitezen bat bertzeari...” (A.A. orr. 34),
liburu berean edozein maiteminduen itsasertzeko solesaldiaren eszena eskaintzen digularik. “Itsasoan” izeneko poemak Genesisen hasierako paradisuako arrastirien parafrasia emango luke. Itun Berriari eta Iratzederrek hain maite duen itsasoagatik ez balitz. (A.A. orr. 46).

Hala eta guztiz ere esan behar da, Iratzederrek bizierazten digun amodioa trszenditua, sublineatua izan arren, sarri ez zaiola hurbiltasunik, xamurtasunik falta. Inon baino hobeto ageri da Aritatchi poeman. (Z.M. orr.171)... eta liburu bereko Ene Arreba-n.

“Osoki diot egin Jaunari
zure-zuretzat maiz kantuz ari
bihozño hunen eskaintza...

Bai maite zaitut eta gehiago
ni baitan orai pil pil baitago

ene arreba, ene maitea,
 ene bethiko amets lorea...
 Jaun Goikoaren bihotza". (Z.M. orr. 122)

Berdin Pindar eta Lañoko "Zarrapo" poeman (P.L. orr. 87), azke-
 nean sublimazioaren sinbologia kerigmatikoan poeta Jainko xortaren
 xurgatzaile bilakatzeko eta bere bihotzaren amodioa "Ruskal lore",
 "euskal amets", "euskal xorta", eta "euskal ortzadar". (Z.M. orr. 144).

Nola hala esan dezagun, aintzineko monakismoaren eskematik
 ateratako hirukiaren zerbitzuan jarritako sinbologia dela: Jainkoa,
 Iratzeder Herria: Jainkoz bete, gero betetasun hori herrian hustu ahal
 izateko. Garbi ikus daiteke Zeru Menditik liburuko "Su eta Ke" poe-
 man. (Z.M. orr. 121-122)

Euskararekin loturiko sinbologia

Arlo honetan Iratzederrek dagoeneko ezagunak zaizkigun ele-
 mentu sinbolikoak erabiltzen ditu, nahiz eta batzu ezohizko indarrez
 erabili eta jazkera poetiko pertsonalez. Eta esparru honetan bai jasan
 duela Iratzederrek izugarritzko aldaketa. Aldaketa kualitatiboa esan
 nahi dut, tonuerari eta premiari dagokiena. Puntualizatu egin nahi
 nuke hau. Poeta gutxi egongo da bere euskararekiko eta Euskal He-
 rriarekiko atxekimenduaren konpromezua Iratzederrek bezain urrutira
 eta zintzo eraman duenik. Hontan ez dut inolako zalantzarik. Tonuerari
 buruz ari naizenean zera adierazi nahi dut, Iratzederren euskararen
 esanahia eta egoerarekiko ezagumena sakontzen joan den heinean
 aldatzen joan dela errealitate horrekiko poetaren jarrera eta adieraz-
 penan. Hau garbi ikusteko ez dago bere poemarioak kronologikoki
 aztertzea bezalakorik eta berehala somatuko dugu prozesuan so-
 tilitzen joan dela poetaren ahotsa, sotiltzen, zorrozten eta sakontzen.

* *Pindar eta Lañoko* poetarentzat:

Arbasoek utzitako hats beroa. (P.L. orr. 6). Hatsaren sinboloa oso
 da errekkurrentea Iratzederrengan. Honela dio Detepareren sautrela
 komentatuz.

"Eskualdun gaitzen kharra, amaren gochoa,
 itsas, mendi azantzak dauzkatzu, Eskuara.
 Zu zare arbasoek utzi hats beroa". (P.L. orr. 6)

Poema berean azaltzen digun zein garrantzizkoa den euskararen
 gaurkotzea.

“Ez egon ilhunpean zato jauntziketa,
urhez eta iduzkiz beztiko baitzitut...” (P.L. orr. 6)

Berehala jazkera horren sinbologia adierazteko: argi zirrinta, lo-reak, hitz beroak, zeru pindarrak... (P.L. orr. 6)

* *Zeru menditik* liburuan beste tonuera bat hartzen du diskurtsoak eta horren arabera aldatzen da sinbologia ere. Euskaldun Ametsaren sinbologia aurkezten digunean bost ardatz hauen inguruan eihotzen du.

- a) Hiltzera zoan Euskal Herriaz deneri mintzo kartsuki
- b) Horrela piztuko da “Aintzina”: Eskuara.
- c) Jainkoari otoizka sugar dadien Herria.
- d) Denak bat eginik (Orreagan eta Gernikan), erdarak jan bait gaitu
- e) Eraiki ahal izateko betiereko Euskal Herria: Gora Jaungoikoa eta Gora Eskuara. (Z.M. orr. 105).

Horrekin batera, lehenengo eta azkeneko aldiz bere poemetan, Aberats beltzen sinboloa erabiltzen du —Arauaren eraginez agian— euskara traizionatu duen goi burgesiaz mintzatzeko.

“Bertze Aberats beltzek bezala, ez utz Herria biltzera:
eskualdun kharra harturik zoazi, zoazi gainez gain ta bentzun,
irrintzinaka Eskual mendiek sutan dioten zerura:
“Gora Jainkoa! Gora Eskuara! Gauden guziak Eskualdun!”(Z.M.106)

Zeru Menditik liburuan euskara euskal arimaren zaintzaile bait da (Z.M. orr. 132) eta bera ere gure kantuaeren soinu-rik nagusia.

“Eskual-soinuz doakizu
ene arima urtua;
eta soinu-rik sendizazu
ottoren lehen musua” (Z.M. orr. 186)

* *Argiz argi* lanean, erradikalizatu egiten du zertxobait tonuera eta elementu berriren bat gehitzen dio aurreko planteamenduari.

- euskera da euskal lurren soinu-moinu ozena
- bera da gogoaren lasaigarri
- bera Jainkoaren Mintzoaren oihartzun. Uste dut puntualizapen hau guztiz garrantzizkoa dela, ia konpromezu maila bera eta

bereizezinean jartzen bait ditu bi errealtateak: Euskera eta Jainkoa "Eskual Anaiak" poeman ikusten den bezala (A.A.68)

- Aiten bihotz gogoz barneraino sugartu beharrean gaude. (A. A. orr 19-20)

Geroxeago orru egingo digu erdaratik euskararako bidaia egin beharrean gaudela.

"Ai, ondikotz! eskoletan erdal mintzoz asea,
arrotuxe hitzaizkitan eskual-mintzo nere...
Bainan tanpez ahalgeak nahasirik barnea,
piztu zaitak ahal-oroz eskualtzeko xedea..." (A.A. orr. 19)

* *Uhaineri nagusi*-n barru barrura jotzen du. Euskara, bizi ahal izateko behar dugun arnasa da. Indarrez esaten digu euskararik gabe gure herriko bizitzak galdua duela berea.

"Zertarako, loretan, hain xoragarri den hura?
Zertarako zeruan, izar baktxen dirdira;
eta bihotz barnetan, amodiozko pilpira?

Zertarako jakin ba Jaunak eginak garela?
Zertarako bilaka Hark amestu bezala;
Edo argi hastetik jauzaraz argi zabala?

Zertarako begira
Eskual Herrian Eskuara?" (U.N. orr. 20)

Gure euskal iraun beharraren planteiaketa ere euskararen ildotik egiten du.

"Irautekotan denek bat behar, eta guk ez bat egiten...
eskual gizonak noiz ote gare denak denak bat bilduren?" (U.N. 22)

Azkenik bizitzak ia ez duela merezi euskararik gabe eta Belokeren erdaltze prozesua izan dela bere bizitzako tragorik miketzenetako aitortuko digu Iratzederrek.

"Hori dut beraz, Jauna, nere kurutzea:
Belokeren erdaltzea.

Eskual-Herria nahiz Eskual Herriago
bai eta goiko argiz dirdiratsuago,
gazte gaztetik nuen nik apeztu gogo...

Gau batez behin banaiz hiltzen kurutzean
aurkituko dukete zaurien artean
Jainkoa eskual-kantuz nere bihotzean.

"Eskual Herriarentzat zer irabazia,
zuk eskainirik ere Jaunari bizia,
ordukotz denek bada eskuara utzia?" (U.N. orr. 51)

Uste dut gutxitan kantatu dela bizitza baten auzia halako indarrez, halako larriminez eta halako premiaz. Lehenengo Iratzeder folklorikoago harengandik urruti gaude, zauri irekiaren ikuspegian, ia adjetiborik gabe eta urinaren kolore bakarraz.

Dialektikaren sinbologia

Ted Hughesez behin zera esan zuen, egiazko poemak eta egiazko sinbologiak dialektikoak behar dutela izan, aurka jarritako indarren arteko talka eta azkeneko batasuna. Hontan Iratzeder maisu dela aitortu beharrean gaude. Bizitzaren arlo guztietara hedatzen du dialektika hau, naturatik gertakizun historikoetara eta hauetik pertsonaietara eta egoeretara.

a) *Otoitzera*

"Doi bat aberetu:
soinuz burua gogor,
atzerriko zare histu,
zozotu eta mokor."

"Orai zuri beha nago
lo zurrungan egoki,
zenbatenaz urusago
naizen ni bazinaki"...(P.L.14)

b) *Itsasora*, hiltzaile izango bait da alde batetik eta, mugagabe denez, Jainkoaren sinbolo. (P.L. orr. 56)

c) *Geroa-lañoa*, bizitzaren bikoiztasunaren islada (P.L. orr. 63).

d) Axular bera aurkezterakoan zera esango digu:

—"Saran duzu hil errautsa..." eta bestalde, "bihotz barnean zuk piztu ametsa" (Z.M. orr. 132-133).

e) Hil ala Gaztelu, kontrajarketa, halere ez dakigularik zer den gaztetasunaren kontzeptua. Esperantza bat ala, lehen esan dugun bezala, atzeranzko bidaia? (Z.M. orr. 132-133)

f) Sinbologia onirikoan hain garrantzizkoa den *gaua* bera, Jainkoaren ausentzia gisa har daiteke ala Jainkoarekiko topaketa une bezala.

“Bi gau, oi bi gau luze, nigarrez nagola,
gainez gain harat hunat oihuka nabila:
nere Jaun maite hori suntsitu zaitala...” (Z.M. orr. 138)

edo “Bihotza zoin ilun,
deitzen ninduzun;
eta nik, tuntulun,
ez zaitut entzun” (J.H. orr. 529).

Baina baita topaketa une ere eta halakotan txoratze moduko para-
rada.

“Izarrak, han badago
dirdiran bethiko
pindarka bihotzera ichur zadazue,
gaur zora nezan eta amodioz erre” (Z..M. orr. 139)

h) *Mundua versus komentua* edo behin edo behin *taberna versus korua* aurkezten digun kontrajarketa maiz agertzen den prozesu dialektikoa da Iratzederren poesian. Ongi ulertu beharrekoa, mundua Itun Berriko pentsakera teologikoaren arauera ikusten bait du, Jainkoaren erreinuaren aurkako erralitate guztiz materiale gisa.

“Ez zaizte bertzeekin aiko ostatuetan kantuz
bainan zer kantu beroak, mozkor Jainkoz ta zeruz,
ditugun guk kantatuko, elgar funski maitatuz”.
(Z.M. orr.146) ...edo “Chiriorat Ukurtuak” poeman:

“Kanpoan aize burrunba, marruma eta hil sistu;
elizan daldara-dantzan
zeru itzalak zabiltzan;
kanpoan denek hil sistu, eta guk kantu-ta kantu” (Z.M. orr. 147)

i) Lehen Jainkoarekin erlazonaturik aurkeztu badugu ere, beste eratan oso normala da *presentzia-ausentzia* jokoa, bere arrebaren kasuan, esate baterako.

“Luzaz gaude amets-kantuz ethortzen zarenetan;
eta, Jainkoan galdua ni utzirik gain huntan,
behakoa lanho zoazi urruntzen zarenetan”. (Z.M. orr. 153)

j) *Gurutzearen* inguruan kokatzen du Iratzederrek beste zenbaitetan kontraesanaren dialektika.

“Jamatit, beharko beltz, beharko zabala
Jainko Jaunaren maitez, hara guk bezala
Belikeko lur huni gaur josi zarela.

Amaiekin eginez lan, othoitz ta kantu,
ai! nola behar zaren hil arte saindutu
eta kurutzearen gozoaz gozatu” (Z.M. orr. 173)

- k) *Ipar haizea* versus *hego haizearen* forma ere hartuko da, heriotza eta bizitzaren arteko lehia, hotza eta beroa, monotonia eta kromatismoaren artekoa azpimarratzeko.

Bere poemarik borobilenetakoen jotzen dudan “Jainko Bilari”-n honela adierazten du:

“Hor, eskual mugan geldi-araziz iphar aize hilgarria,
Ez duzu hemen sartzen utziko gezurra eta lohia
zuk, zerurako galernen pean gizalde hunen argia”

“Oi Lazkanoko fraide anaiak, idek ba hobi ziloa
eta sistuka, zirimolaka iduri aize-hegoa
mendiz menditik ethor bekigu, ethor, haren hats beroa”
(Z.M. orr. 182-183).

Lehen ere aipatu dugu industria versus baserria, Sabinoren garaian bezala ulertua eta Iratzederrek ematen dion ertenbidea, hots, lehenengo euskaldungoaz piztea mende berria. (U.N. orr. 68-69). Aipatu dugu ere Gerra Garaia versus oraina (U.N. orr. 38) baina ez genuke arko agian bereizgarrienezat jo ditzakegun azkeneko hiru talka dialektiko aipatu gabe, Iratzederren sinbologiaren iturririk josienetako egingo direnak. Hirurak bizitzaren zentzuarekiko zerikusi haundia dute.

- L) Lurrera doan *gari ebakia*, heriotzaren sinbolo eta, aldiz, gorantz jotzen duen *pindarra*, bizitzaren lekuko. Horrela dio “Xorta-xortaka” poeman:

“Xorta-xortaka naiz ni
 egun oroz hiltzen,
lurperaino deraman
 heriorat urtzen.
Pindar pindarka naiz ni
 egun oroz pizten,
zeruraino daraman
 bizitzerat sortzen”. (J.H. orr. 528)

- m) *Hodeiak*, bestalde, gure bizitzaren norantza ezezagunaren sinbolo izan daitezke baina, era berean, Jainkoaren orojakintzarenak ere.

“Zeru zolan emeki emeki
zenbat hedoi ibilki ibilki...
norat goazin nork daki, nork daki?”

Norat goazin nork daki, nork daki?

Zuk dakizu, Jainkoa,
zuk pizturik baitoa,
gizaldeen gogoa...
zuk dakizu, Jainkoa...

Zeru zolan emeki emeki
zenbat hedoi ibilki ibilki...”(J.H. orr. 534)

- n) Azkeneko utzi dut arlo honetako Iratzederren sinbologia iturburu nagusiena: *geroarekiko kezka* markatu ondoren *esperantza haundiaren kantuan* batetan eta mugaletzen duena. Bultzagarria gertatzen da poeta lapurtarrak islatzen duen ziurtasun itxaropentsua.

“Gerorako urtek zer buru-hauste,
zer galernak dakarkite?...”

Izarrak baino ederragoko
zure dirdir itsasoan,
hartuko nauzu betiereko

azken jauzi hats-hantuan” (U.N. orr. 36)

* * *

Lan hau bukatzeko eta orain arte erabili dudan taxonomia sailkatzailetik kanpo gelditzen ba zait ere, guztiz legezkoa dela uste dut hau hemenka agertzen diren beste zenbait *sinbolo* aipatzea, sarri, sailkapenetik at gelditzeagatik, iradokikorren, indartsuen, koloretsuen gertatzen direlako, kasu honetan behintzat.

Esan dezagun, ziurtasun haundienez, Iratzederrentzat *Jainkoa* dela sinbolo guztien iturri naroa. Bere hemeretzi urterekin idatzitako “Begiak urdin” poema zoragarrian adierazten digu lehenengo aldiz.

Begiak urdin,
zangoak arin
zenbat irri dut egin.

Gogoa airez aire
bihotza ere
guziak eder dire.

Begiak urdin,
zangoak arin,
Jainkoa dut nerekin.

Haurrak ere, xamurkiro, xamurkiro, argitasunaren, garbitasunaren, maitasunaren, edertasun hauskoraren eta era berean, edertasun trszendentearen ikur eta pertsonifikazio. (P.L. orr. 68).

Liburu bereko Pa! poeman freskotasun apartaz eskeintzen digu *Zoriontasunaren* sinboligia,

“Kaputchinetan badire
bi lerro lore
gorri ta ori
iduzkirat irriz ari”; Chapaldiarekin hasten den xarmari horretan.
(P.L. orr. 78).

Iratzeder zeruari irekita bizi den gizona izateaz gain, gizatasunaren indar eta kate guztiz lurrari lotutako poeta bait da, begiak zabalik beti, eta bidean tinko bere oinak, lohitsuia izan ildoala hala —udan bezala— bedartza. Lurrearekiko atxekimendu horretatik datorkio Iratzederrri sinboloen jositasun hori, lurra, lehengoz eta behin, gure betetasunaren iturri bait da.

“Sort-herriko bazterrak ar zaizte mintzatzen.
Zuen gogoeta hok jauzaraz bet betan,
lurpe ichil hortarik nitan sar ditezen.

Eta pertsularien tanpezko su hortan,
arkaitzetarik sortu Eskuara harturik
gaztentzat ematen dut Herria pertsutan” (P.L. orr. 19)

Lurra Iratzederrentzat Euskal lurra da, bere gazte denboran bati-pat, eta gero ere bai, gudan, gerran dagoen lurra.

“Ichilik nago eta gain huntan zerutik hurbil galdua...
nik dautzut eta irabaziko oraiko Eskual Gudua:
ez othe dugu menbeitik gauaz entzuten ene kantua?” (Z.M. 126)

Denok dakigu Euskal Gudua termino oso zabaletan ulertu beharreko sinbolismoa dela, beharbada zeruko Jainkozko Euskal Herrian amaituko dena, baina ezin uka 1936-ko Españako gerrarekin eta Munduko II. gerratearekin guztik lotutako fenomeno dela. Argi horretan irakurri behar dira zenbait eta zenbait poema eta berdin bere inguruko iruditeria. Aberkoia, noski, Zeru Menditik obrako Askatasun Eguzkia bezala, benetan aparta bertso hauetan.

“Eta gaupean berritz elgarri ukurtuz,
kurutzatuko gare, ichil eta arin.
Barnean pil-pil berak, aiko gare kantuz
Jainko Semen goiz hura laster argi dadin” (Z.M. orr. 145)

Edo “Jainko Bilari” poema luze eta iradokikorrean, eskaintzen digun Valhalako eta Europa ifarraldeko irudia, garaipen zeremonian burezurak altxatuta edaten zutenekoa.

“Dantza-mantzari altcha zuen su-besoak,
zirimolan eskain eskual-khe gozoak,
eskual-jende guzien arima beroak
noizbeit hurrupa ditzan zeruko Jainkoak”. (Z.M. orr. 183)

Gerra, hain zuzen ere, *kalte absolutuaren* etxea bait da, Euzkadi amaren bularrak odolez bete eta haurñoak hurrupatzen beharko duena (P.L. orr. 20). Dena ilunduko bait du eta argi guztiak itzaliko (P.L. orr. 44), euskal soro eta mendietako bizitasunaren ikur guztiak berak heriotzaren aingeru bihurtzeraino.

- *Ezkila*, gerraren aingeru.

“Begiak ilhun, begiak gorri,
guziak zaizkit ethorri,
dang, dang, jo baitut egun ezkila
“Gerta ote dugu gerla?” (P.L. orr. 45)

— *Pottoka* bera, gerlan hildako guztien iduri izango zaigu.

“Larre gain zabal hartan orhoit zaren behin
nola zaikun emeki hurbildu pottoka,
muthur punta churi beltz, zaintsu eta arin,
doi bat egin ginezon eskuaz fereka?...” (P.L. orr. 51)

Azken batez bertan ageri bait dira *zorigaitzezko Euskadiren* iku-
rrak:

- Odol berozko iturburua.
- Anaiaren tiroa
- Haurñoa salbatu nahiz ihesean doan amaren izularria.
- Sutan dagoen sortetxea.
- Guztia justifikatzeko erabili den Jainkoaren izen likitsatua. (P.L.22)

Gerrarekin lotuta ikusten du poeta lapurtarrak bere poemetan beharbada gehien azaltzen den gaia: *Aberriaren hobiraketa*. Hiru liburu ezberdinetan aurkitu dut gaia, eta sarri ikututa bakoitzean.

Sos egarriz ta urguiluz...
soinuz goazi eta sistuz
Eskual izaitearen
eta Fedearen
ehortz bestetara...

Entzun eskualdun kantuak
ilhunpetik,
lohipetik... (Z.M. orr. 192)

Sinbologia arras diferentez joko du gai berdina Argiz Argiko "Liru-
ri", Salvatore Mitxelenari oparitutako poeman

"Eskual-lurreko arima beha zoin den eri...
haren hil-hurren oihua liru bai liruri
helaraz zozu otoizka seme Jainkoari..." (A.A. orr. 33) eta liburu bereko
"Ai! Haren burua" izenekoan.

"Munduko herriak, munduko jendeak hilen dire denak;
gu ere: zuzen da, izigarri zuzen, zainetan baitugu
bekatua..." (A.A. orr. 45) edo "Jo soinua jo" poeman (A.A. 99).
Fenomeno bera gertatzen da Uhaineri Nagusi liburuko poema askorekin. Nahiko
litzateke, muestra bezala. Hori dut beraz... (U.N. orr. 52) Saindu berriak (U.N.
orr. 82) eta Aitatxi, urte on! (U.N. orr. 89) aipatzea.

Ondorioz, *itzal beltz* bihurtzen zaigu,

- errabian erretzen dituen edozein jenden bihotzak
- lagunaren begiurdinak goibeltzen dituen
- gizon guztiak atsekabetan ibilarazten
- Oro begi beltz, oro nigarrez... (P.L. orr. 72)

Halere, alderantzizko sinboloak ere gerraren errealtatearekin loturik agertzen dira. *Irrintza*, horien artean, askatasunaren ikur (P.L. orr. 22) edo *fedea* eta *Lege zarra*, motibo berdinarekin (P.L. orr. 48). Sabino Aranaren ildo beretik jarraituz *enda garbia*, jatortasunaren iduri izango da (P.L. orr. 36) eta *atzerria*, etsaigo moralaren lekuko.

“Atz-herriko hats ephela
ez dakioten nausi, Amatto begira”.

Horren arauera gerta lekiguke GEROA esperantza historikoaren sinbolo (P.L. orr. 42 eta A.A. orr. 20)

Gerraren gaia alboratuz, esan dezagun Iratzederri ez zaiola falta *irrealismo naturalistari* dagokion sinbologia bortitza, batez ere Zeru Menditik liburuko Golgothan ikusten den bezala.

“Oi! ni ez nauke, heldu naiz eskuak luze, ahunpez,
zango odoltsu horiez fereka eta musuka...
barnea zauri, heldu naiz min minez urtu beharrez,
zuhamiperat doazkon odol chirrichter nigarka”. (Z.M. orr. 101)

edo...“Ez utz Amaren begiak

Haurraren odol beroan nigar hiparka urtzera”. (Z.M. orr. 102)

Sentsualtasunaren sinboloak, bestalde, fereka, musua, xamurtasuna, izadiarekin lotuta aurkezten dizkigu: itsas haizearekin, hatsarekin, itsaso amarekin. (Z.M. orr. 111)

Pasioa ere itsasoarekin batera, “arraunetan su” mintzatzen zaigunean. (Z.M. orr. 111)

Beretik jarraituz, eta hau lehen aipatu dugun zerbait izan arren, *maitemintzea* Jainkoagan burutu behar du fenomeno izan arren, garbi azaltzen dizkigu bere eginkizunak:

- Arimaz bat izan, euskaraz.
- Elgarren ariman sartu, elgar barnago maite.
- Maitasun osoa egin, bertze bizi hartaraino maita dezagun.
- Gorez, beha eta gurtaratu betiko amodioa sortzen duen Jainkoa (Z.M. 155)

Iratzederri ez zaio falta afektibitatearen arloko *amaren* zeregina-
ren iruditeria ere, Zeru Menditik liburuko “Amatto bihotz zabala” poe-
man ikusten denez. (Z.M. 158-159).

Eta ez zaio falta azken errealtatearen aurreko sinbologia bortitza, boteretsua, *heriotzaren* aurrekoa, fraile baten herio orduko momentu solemnearena.

“Aspaldi dute ahantzi jendek haren izena;
nork daki ere munduan orai haren izana,
zerumeak bi lerrotan gelarat heldu zaizko,
zerumeak bi lerrotan gelarat heldu zaizko,
begiak zeru ameska, gau hegalak soineko,
anaiaren azken hatsa othoitzez aphaintzeko...” (Z.M. orr. 156)

Bukatzeko zera esan nahi dut. Postmodernismo guztien aurka Iratzeder *poeta fundamental* dela, oinarrizko fundamentalismo beti lotua eta horrexegatik ez dituela inola ere arbuiatu fondatzaile diren *errelato haundiak: fedea-aberria-jainkoa*. Baina Iratzeder ez da itsu itsuan iritsi azken jarrera horretara. Larriminaren txarrotik edan du.

“Barnetik zaiku husten hasia
Eskual-Herriko bihotza:
erdal laparrak, erdal loreak
gutan nausituz dabilta.
Loaren loaz ez gaitezen hil
nolaz ote ni ez mintza...” (U.N. orr. 82)

Ezagutzen du izan behar dena eta ez izatearen *drama* pertsonala.

“Jendek Zu zaituzte
bilatzen;
eta, nun emana
ez naizen,
Ni baizik ez dute
aurkitzen”. (J.H. orr. 473)

Posturdentateak ekarritako aldatzek beldurtu egiten dute.

“Gaurko aldatzekin
mozkor gaituk mozkor,
ez gehiago jakin
zer garen edo nor”. (J.H. orr. 522)

Eta badaki *deslilurapena* dela lurreko guztiaren hutsaren ordaina.

Zenbatez gorago doan,
narabilen ametsa!
Zenbatez barnago dutan,
bihotzean hutsa! (J.H. orr. 552)

Ezagutzen du, edonork bezain ongi ezagutu ere, *giza mingaziarren* tragedia.

“Jauna bai Lurra nahi nituen
biak maitatu nik osoki,
bainan, haatik, gutarik zer den:
bihotz bat baizik ez izaki...” (J.H. orr. 553)

Ikasi du polaroiden itxura hartu duen gure mundua esagutzeko zein beharrezkoa den *barneko begia*.

“Nola Jakobe Jakoben
gauaz lurrean etzanik,
zoin gustuz lokar nindaken
ikusiz gauzak barnatik...” (J.H. orr. 554)

Edan du *malenkoniaren* ardo mikatza.

“Ametsetan zukana
nork ez duke galdu?
Ez da nehoiz mundua
nahi dugun mundu” (J.H. orr. 559)

Horregatik, errelatoei eutsi egin die, bizitzari zentzua, dimentsioa eta azpia ematen dioten sustraiei.

“Nola gizonak jasan bihotzeko hutsa
eta lanik gabeko xehartze ez deusa
Jaunarekin ez badu barneko solasa? (J.H. orr. 559)

Iratzederrentzat, dudarik gabe, gezurrezko albistea da Jainkoaren heriotza eta ziurtasun horrek zilegiten dio zabal zabalik edukitzen etxeko azken leihoa.

“Etsimendu gainetik
dator esperantza:
garraituz da baketzen
gizonen bihotza”. (J.H. orr. 559)

Euskal literaturaren hiru emakumezko pertsonaia: Elsa Scheelen, Gisèle eta Antxonen ama

KARLOS CID ABASOLO

Hitzaurrea

Azken urteotako euskal literatura izugarri garatu da, teknika aldetik zein gai aldetik, kanpotik hainbat elementu berri bereganatuz. Ordua mundu bizi nahi horrek atzerriko literatura garaikideetatik hurbilagotu du aurreko euskal literaturatik baino, zeinetik batez ere hizkuntz aparatua mailagatu baitu (ez da ahaztu behar egungo idazle asko euskal filologia ikasitakoak direla) ideologia eta gaien kaltetan. Beraz, baliteke euskal literaturaren historia bi garaitan banatzea: bata, idazleek, euskal tradizioaren hala nola erlijioaren pisupean idazten zutenekoa. Bestea, euskal narraitiba berriarena.

Aspaldiko euskal literatura ohiturista baserritar eta nekazal edota itsas bizimoduan zegoen

oinarriturik, euskara batik-bat arrantzale eta baserritarren hizkuntza baitzen. Gaur egungoa, ordea, eta salbuespenak salbuespen (*Hamaseigarrean aidadez*, kasu), hirian kokatzen da gehienbat, hiriak dakartzen ondorio eta egoera berrien leiho bihurtu delarik. Hori dela eta, literatura hiritar honen egoera berrietan pertsonaia berriak sortzen dira. Akabo baserritarra, egun osoa goldean eta aitzurrean ematen aritutakoa. Akabo nekazaritza eta abelzantzarekiko lotura. Akabo gizakiaren eta naturaren arteko harreman zuzena. Hiria dugu nagusi, azken urteotako libururik gehientsuetan behintzat.

Txomin Agirrerren Joanes eta Txillardegiren Pierrerren artean, beraz, alde itzela dago, garai eta

gizarte ezberdinetakoak baitira. Herrikideak ez izateak, ordea, ez du horretan hainbesteko axolarik. Baina aldaketa hau gizonezkoengan ezezik emakumezko pertsonaiengan ere gertatu da. Iku dezagun, adibide gisa, nola deskribatzen duen Agirrek *Garoaren* Ana Josepa:

"Ta guazen orain Ana Josepagan. Bere bizikoa, nion, ibiltzen zala lan andi egunetan. Goizeko irurak baño len asten zan deadarka, otoizka ta aginduka, gauza bat bestearen gainean esaten ta egiten zuala, aora edo burura zetorkion bezela (...) Ta orrela beti, itz, arren ta zeregiñetan beñere aspertu gabe. Irurogetasei urte bazeuzkan ta etzuten soroetara eramaten, baño bazuan zeri ekin etxe barruan. Berak egiten zituan oiak, berak txukundu etxea, berak beiak jetxi, berak gosaria gertatu. Ana Joseparen ustez, arrek bezelako baratzurizuku gozorik egiteko emakumerik etzan oraindik sortu. Ezta sortuko ere. Ta ore a berak bezela nork egin? Taloak zeñek erre? Esnetarako artoa, me me, zeñek ebaki? (...) Baña biotz ederraren jabea zan gure etxeokandre zarra, garbia, beartsuentzat oso emankorra, etxeokentzat eutsia, batzuetan eutsegia"¹

(1) Tx. Agirre. *Garoa*, A.F.A., Oñati, 1966, 38-39.

Etxekoekin eutsitzat jotzen du, bai, Agirrek Ana Josepa. Baina nola uler liteke emakume bertutetsu hau eutsia izatea? Agirrek berehala konpontzen du balizko kontraesana, hurrengo lerroetan zekenkeria hori eskuzabaltasun bihurtuz eta emakume honen erretratuaren eredugarritasuna, hautsi beharrean, indarragotuz:

"— Erosi beit, amona. Zazpikiñeko mutillak berri berria dauka ta nik zar zarra. Erosiko aldit?"

— Ez, ez, eztiat erosiko: alperrik abil.

Baña erosten zion bai. Ez erosi bear, alajaña, bere iloba bakar-rari!

Ta nork esango zukean, etxeokentzat onelakoa izanda, agertzen ziran beartsu guztiai ematen ziena baño geiago eman naian zebillela beti? Bazekiten ondo inguruetakoa eska-leak. Amaika eskaleri eskupekoa emanda gaiñera bete zien urdalla Ana Josepak Zabaletakoa sukaldetan, ta baita lo ederra eragin ere aldameneko guk ezagutzen degun sapai artan!"²

Kontutan har dezagun mende honetako azken hamarkadak arte euskal literaturarik gehiena klerikala izan zela, eta ia osorik gizonek egin. Bi ezaugarriok bete-betean

(2) Idem, 41. orr.

baldintzatu zuten emakumezko pertsonaien kontzepzioa: alde batetik emakume bertutetsua genuen, eta bestetik emakume bekataria. Manikeismo hau Agirrereren beste eleberri batean nagusitzen da: *Kresalako Mañasi* ontasunaren ispilua da, eta beti marmarrean dabilen Tramana, gaizkiaren ordezkaria.

Garoako Ana Josepak eta *Kresalako Mañasi* ez dute ezertan ere zerikusirik abortatu nahi duen Gisèlerekin edota mundu zentzugabe batean galdutako Elsa zentzugabearekin. Bizimodu berriek literatur pertsonaia berriak ekarri dizkigute, ohiko arketipoak bazterturik. Gaur egungo literaturaren kontakizunetan lehen aldiz ematen dio aurpegi emakumeak mendetako menpekotasunari. Lehen aldiz ere, protagonismo narratiboa lortzen du.

Emakumearen gaia irizpide berriekin ukitzen duten liburuetatik hiru hartuko ditugu oinarritzat (*Egunero hasten delako*, *Zergatik*, *panpox*, eta *Elsa Scheelen*, alegia), hiruren arteko paralelismoak aurkitu nahi dituen lantxo honetan. Jakina da beste hainbeste liburutako emakumeek ere lortzen dutela aipatu protagonismoa (A. Lertxundiren *Hamaseigarrenean aidanez*-eko Matzelinak, B. Atxagaren *Zeru horiek*-eko Inesek eta abarrek), eta hemen esango direnak agian emakumeoi ere egoki lekizkiekeela,

baina artikulu honen helburua nahikoa apala da: azterketa xume eta mugatu bat egitea beste asmorik ez darabilgu. Paralelismo ugari aurkituz gero, hurrengo galderari erantzun beharko dion azterketa sakonago baten premian izango gara: baliteke Elsa, Gisèle eta Antxonon amaren arteko kidetasunak beste liburu batzuetan ere agertzea? Ba ote dago, euskal narratiba berrian, eta zentzu zabal batean bederen, emakumezko pertsonaia arketipiko bati buruz hitz egiterik?

Emakumea, eleberri egituran pertsonaia

Lehen esan bezala, Gisèle, Elsa eta Antxonon amaren kasuetara mugatuko gara, azterketa zehatzagoa egin beharraren egin beharrez. Hirurek, pertsonaia baten papera betetzen duten heinean, elkarren arteko ezaugarri hau erakusten dute: hirurak ditugu ekintza baten jasale, eragile-papera beti ere gizonek betetzen dutelarik. Hortaz, ikuspuntu horretatik begiratuta, ez dago agian alde handirik hiru emakumeon eta Agirrereren artean.

Bestalde, hemen aztertuko diren hiru liburuetan honako konstantea dugu: narrazioaren hasierako oreka hausten duena gizona da. Horixe bera saiaturik gara frogatzen, liburuak banan banan aztertuz:

A/ Antxonen amak bi garaitan du banaturik bizitza: alde batetik, *Txemak alde egin* aurrekoa, eta bestetik *Txemak alde egin* ostekoa. Beraz, istorio horren aktante nagusia Txema dugu, berak egiten baitu alde, bera baita narrazioan deskribatzen zaigun egoera berriaren eragilea.

Antxonen ama, senarrarekin bizi zen denboran, horren menpean zegoen, banantzeaz geroztik bururatzen zaizkion hausnarketak lekuko. Izan ere, gogoeta hauetan behin eta berriz errepikatzen dira esaldi obsesibo berberak: *Txemak alde eginez gero, Txemarik gabeko igande batean, ez naiz bizirik ailegatuko Txemarik gabeko beste negu baten muturrera*. Denboraren lehenengo eta oinarrizko ezaugarria, beraz, Txemarik eza, Txemak alde egin izana da. Baina denborarena ezezik, emakumearena ere, zeren *errebindikatzan baina ez bizitzen ikasi duen Txemarik gabeko ama* bihurtu baita Antxonen ama.

Hortaz, lehen Txemarekin bizi zen emakumea, elkarrengandik banandu ondoren, Txemarik gabeko emakume besterik ez da. Gizona dugu orduan ere haren ardatza. Gizonak alde egin soilak bultzatzen du emakumea ekintzetara: lanean aritzera, etxeko nagusia izatera, bi bizitzen arduradun bakar bila-

katzera (berea eta semearena). *Txemak alde eginez gero*, orduan bai hasten dela honen andrea aktantea izaten, senarrarekiko oroitzapenei lotuta bada-go ere; orduan bai konturatzen dela *ez dela kartoizkoa*. Derri-gortu zaion bizimodu berriak, latza izanik ere, nolabaiteko kontzientzia eta independentzia dakarkio, ez independentzia nahia (gizona gabe bizitzea ez baitu batere gogoko), sufritu beharreko independentzia baidzik. Bere kasa ibili beharrean dago, haurra zaindu, etxea mantendu, etab. Narrazioan zehar, gogoz kontrako aktante bihurtu zaigu ama: Txemari buruzko gogoetek asaldaturik, ez du inola ere independentzia berria maite. Txema noiz itzuliko zain ematen ditu ordurik gehienak. Txema noizbait bueltatuko delako itxaropenari eusten dio.

“Txema bueltatuko balitz...”

“Ez naiz bizirik ailegatuko Txemarik gabeko beste negu baten muturrera, hotzak erreko nau, panpox, ez naiz osorik ailegatuko”

Hala ere, denboraren poderioz edota beharraren beharrez, senarrarengandik semearengana pasa da emakumearen grina: emakumea ohitu egiten ari da bizimodua bere kontura ateratzen. Txemarekiko gogoetak gero eta urrunagoak gertatzen zaizkio,

bere esfortzu guztia haurraren heziketan ezartzen duelarik.

“Txema, gizonik gabe bizitzen ohitzen ari naizen eran, zure usua ahaztu zaidan eran, maitasunaren aurrean besoak nola zabaldu ere ahaztu egiten ari zait. Zu zara, panpox, nere munduko lagunik haundiena”

Bere seme Antxon, *garai-leen kastako kide bat, loa beste norbaiti lapurtu gabe egiten ez dakitenetako bat* izanik ere, *lehenengo gizon korazagabea* izango dela espero du amak. Beraz, nahiz eta A. Urretavizkaik HABE aldizkariko 32. zenbakian agertutako elkarrizketa batean “*gizonezkoen sentipenak nola-koak diren adierazten ez naiz auzartzen*” esan,³ *Zergatik, panpox* liburuan haien ezaugarri nagusietako bat ematen digu: gizonak korazadunak omen dira, hau da, beren barruko sentimenduak bistaratzearen beldur izan ohi dira. Ezin da esan, ezta hurrik eman ere, Antxonen ama feminista denik, baina bai, ordea, semea askatu nahi duela edozein gizon lotzen duten aurriritziez eta nor-tasuna estali beharraz. Hala ere, sufritu behar du gizarte pisua, hau da, inguruko esamesak, zurrumurrak, eta gizonaren

ezinbestekotasuna aldarrikatzen duten aholkuak.

“Antxonon onerako, eta zuri gogor egiten bazaizu ere, pentsatu ezin baduzu ere, beste gizon bat bilatu behar zenuke, hori bai, Antxonon onerako”

Semea, beraz, beste gizon batekiko harremanen justifikatzaile dugu. Gizaki baten onerako (semearen onerako) beste gizon bat bilatu beharko emakumeak, nahiz eta maite ez izan. Baldintza bakartzat Antxonentzako aita egokia izatea izango duen gizona gomendatzen dio gizarteak. Baina Antxonon amak, haurraz ez beste inortaz arduratutik, ez du ametitzen gizarteak eskaintzen-derrigortzen dion irtenbidea. Nahikotzat jotzen du bere burua zoriontasun-emaile bakarra zaion semea aurrera ateratzeko.

“Egia bakarra zure aurpegiaren atsegina eta bakea da, gerritik gora, lepotik burura, ez dut inoren beharrik zure loa zaintzeko”

B/ Elsa ez da, lehengo batean bederen, gertatutakoaren eragilea, jasalea baizik. Zenbait gizonen (bere senar Luc, Vander Broeck eta Antoneren) jokabideaz oharturik erabakitzen du aurrerantzean erakutsiko duen gizonekiko jarrera.

(3) “A. Urretavizcaya: arraren rola jarri behar da auzitan”. Habe, 32zka.

"Aurrerakoan kontutan hartuko zuen gertatutakoa: hau izan zan gau hartako erabaki po-zointsua. Handik aurrera kontuzago jokatu zuen. Senarra-rengandik berezi dan emazte ederra, emagaldutzat, edo kaskarintzat bederen, hartua da eskuarki (...). Gizonetan arra ikusiko zuen aurrenik: (...) hitzetan ez zuen deusik ere sinistukó. (...) «Gizonekin kupidarik ez, eta mespretxua gidari. Eta haiek urrunago eta hobe», idatzi zuen"

Erabaki irmo hau, zeren on-dorio da? Geroxeago azaltzen zaigu argi eta garbi:

"Bi aldiz maitatu dut nik bihotzez; eta bietan izan naiz iraindua, mespretxatua, ahaztua"

Beraz, emakume arbuia-tu baten prozesu narratiboan (lehenengo hamabi kapituluetan zehar, hain zuzen) ondorioz-tatzen direnak emakumeak be-rak, Elsak berak, aitortzen ditu bere hitzez. Hamairugarren kapi-tulua ere oso baliagarri zaigu au-rre-narrazioaren xehetasun inter-resgarri franko ematen digu-eta: Elsa ezkontzera bultzatu zuten arrazoiak, Elsak Lucengandik es-pero zituenak, etab.

"haur asko izan, (...) soiñeko ederrak jantzi"

"Luc nere gorputzaz maitemin-du zan bezelatsu, eta ez nitzaz;

ni neu ere, Luc'en bidez lortuko nuen bizimoduaz maitemindu nintzan, eta ez Luc'ez"

Alabaina Luc Elsaren gor-putzaz asetzen deneantxe has-ten da Elsa Luc berreskuratu nahian. Baina ordurako beran-duegi izan.

"maitekorrago ni agertu, eta bera zakarrago"

Eleberri honetako gizonik gehienen zakarkeria hau egine-tan ezezik, esanetan ere ager-tzen da, Vanhammeren aitorme-na lekuko.

"Horrelakoxeak maite ditut nik emakumeak: eskuragaitzak"

Van der Broecken jokabidea ere argigarri zaigu. Larrutada besterik ez du bilatzen Elsaren-gan. Hamargarren kapitulu-an xalo-xalo dabilen bitartean Elsa-ren atzetik, gero, bere helburua beterik, alde egiten du betiko, El-sari tutik ere esan gabe.

Aititik, ondoko hausnarketa egiten du Elsak emakumeez:

"Bertutea galdu nahiago dugu milla aldiz, desiratuak ez izanik gorde baiño"

Pierre azaltzen denerako, El-sak gizonez duen iritzia osatuegi dago haren maitasun agerpene-tan alde onik ikusteko. Maitasu-

nak ez du hemen konponbiderik. Elsak, gizonak eskaintzen dioten maitasunaren atzean sexu grina besterik ez du ikusten. Eta gizon batek, Pierrek alegia, osorik maiteminduta ematen duenean, Elsa ez dago ordurako gizonen amodioan sinesteko moduan.

Baina maitasunarekin (eta maitasun ezarekin) batera, beste ezaugarri batek osatzen du Elsaren nortasuna, batez ere gizonekiko harremanei uko egiten dietetik bertatik: bakardadea.

“Orain, benetan, ziñez, bakardadearen leize hondoraiño amildu naizela esan dezaket”

Halaxe da, izan ere. Aurretantzean, gurasoengan bakarrik bilatuko du babesa, gizonekoengandik gorde dezakeen babesa. Inor gutxirekin sartuko da harremanetan. Ikusten denez, Elsari kaltea besterik ez dakarkio bakardadearekin batera dator kion independentziak. Ilundu egingo da Elsaren izaera zentzurik gabeko bizitza bakartian. Pierrek, apezgoari utzi nahi dioten problematika dela bide, protagonismoa kenduko dio poliki-poliki Elsari. Pierre azaldu eta berehala, honako funtzio hau beteko du Elsak: Pierreraren ekintzen eragile pasiboarena. Izan ere, Elsarenaganako maitasunak sakondu egingo du Pierreraren sekularizazio nahia. Elsaren ukoak bultzatu egingo du Pierre pute-

txera, zoritxarreko izango zaion irtenbidera.

D/ Gisèle ere ekintza baten jasale dugu nolabait. Ekintza nagusia larrua jotzea dela pentsa liteke, Gisèleren bizitza guztiz aldatzen duelako: ikasle denboran bere asmo bakarra ikastea bazen ere, Mauriceekin oheratu, hezur berritan geratu, eta sabelean daramanaz bere burua nola askatu gertatzen zaio obsesio bultzatzaile bakar. Egia da larrua jotzearen erantzulea bera ere bada, eta Mauricek ez duela horretara behartu. Baina baliteke bata bestea baino “erantzuleagoa” izatea: Maurice, holakoetan ohitua eta neskazale amorratua; Gisèle, berriz, herabeti eta mutilekin gutxitan ibilitakoa, Jean Louisek haren zuhurgabezia gaitzesten dionean ikusten denez.

“Nik ez nekien deusere, beste mundu batetan nengoen, ezin-ingo duzu konprenitu sekulan”

Jean Louisek hitzetan aurki daiteke kontrastea.

“Badakit ez dela oso erromantikoa baina ez zait inoiz ere “Syn-Ager” kaja bat nirekin eramatea ahaztu planen bat izan dudanean. Hori da Maurice-ri barkatzen ez diodana, duen esperientzia jakinik”

Gisèlek pasarte batean emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak nabarmentzen ditu, batez ere maitasun arazoari dagokionez. Bere ustez, gizontasunean eta ematasunean funtsatzen da norberak maitasunaren aurrean mantentzen duen jarrerara.

“Zer ote da maitasuna? Betidanik itxaron izan dut, emakume guztiek bezala. Zuek ez duzue gehienetan konprenitzen (...) Zuek neska baten maitasuna lortzean gerla txiki bat irabazten duzue”

Baina Gisèle ez da gizonezkoei ardura leporatzen dietenetakoa, eta Mauricerekin erantzunbeharra erdibitu beharrean, bere buruari oso-osorik ematea nahiago du, naturak eragindako sexu bidegabea onartuko baiduen.

“Nire iritziz bat ondatzea ere askotxo da, beste inor bultzatu gabe. (...) Natura, zuek farre egiten duzue baina, ez da emakumearen alde jarri. Emakumeek ezin dugu ihes egin, baina gizona salba daiteke. Ni kasu horretan banengo, gizonari salbatzeko eskatuko nioke”

Gisèleren ustetan, beraz, alferrik da naturaren legeei kontra egitea. Eta aise justifikatzen dio gizonari emakumearen haurdunaldian bere erantzunkizuna ez

betetzea. Horregatik, dena dela beti ere bere buruaren jabe den Gisèle honek onartzen du bere egoera, bakarka konpondu nahi duen egoera, eta Miller sendagileak aita nor den galdetzen diotenean, *berdin da, ez du inportantziarik* erantzuten du.

Zeintzuk dira gizarteak uzten dizkion atekak? Gutxi benetan, Fontanaz sendagileak esanak: lan egin edo ezkondu. Gisèlek, egoera lastu nahirik edo, beste irtenbide bat gaineratzen du.

“Haurraren legalismoagatik putza legal bat bihur nintekoen”

Baina hiruretatik bat ere ez du gogoko:

“Nik nahi dudana haurra ez izatea da”

“Klasean egon nahi luke lehenagoko gorputzarekin”

Hona hemen, bada, Antxonen amaren eta Gisèleren paretotasuna: gizarte konbentzioen arabera, haurraren onerako beren buruari uko egin eta bizimodu nonbaitetik atera behar horretan jarri beharko lituzkete ahalagin guztiak. Baina ez bata ez besteak ez dute konbentziok agindutakoa onartzen: Antxonon amak ez du berriro ezkontzeko asmorik. Ezta Gisèlek ama izatekorik ere.

Azken finean, gizarteak ukatzen duen irtenbide legez kanpokoak, abortatzeak alegia, berriz aldatuko du Gisèleren bizitza.

"Dena berria iruditzen zaio, berria eta ederragoa"

"Gisèle aurrera doa, bizitza bat hasteko prest lehengoari jarraituko badio ere, (...) ahaztutako konfiantza batekin. Biharko bizitzari itxoinenez aurrera, bizitzera, bizitza, egunero hasten delako"

Izan ere, bizitza egunero haste horri esker ez da hainbat gorabehera eta larrialdi jasandako Gisèle etsipenean murgildu. Mezu itxaropentsua, liburuari izenburua ematen diona, narrazio hits baten amaieran.

Elementu berriak

a) gizonaren arkeria nabaria:

Euskal literatura zaharrean gizonetako pertsonaiak, lehentasuna gizonari ematen zion gizarte batean kokaturik ere, ez ziren matxistatzat jo daitezkeen aldarrikapen edo aitormenen esale. Baina azken urteotako zenbait idazlek, emakumeen egoeraz jabeturik eta kontzientziaturik, horixe hartu dute literaturgai, horretarako Luc, Maurice, Txema eta beste hainbeste gizonen jarrera matxistak handiagotuz eta muturreratz. Hori dela eta, narrazioe-

tan zehar aurki ditzakegu, baita parra parra aurkitu ere, aipatutako aldarrikapenak.

"Horrelakoxeak maite ditut nik emakumeak: eskuragaitzak"

"—Eta hik sinestaraziko didak lau Gisèle eduki ditzakedala eskusiban eta reserban ezta?"

"andreari igande honetan berekin aterako nintzela agindu nion, gaur gauean andreari zinera joango garela agindu diot, eta ez dut bronkarako gogorik, larunbat goizean txikiarekin, nere, gure, baina batez ere bere Antxonekin, mendira joango naizela agindu diot andreari, eta ez dut haserrerako gogorik"

Hortaz, hiru liburuotan nabarmenagotu egiten dira gizonetako jokabideak emakumearen zapalkuntza askoz nabarierago izan dadin: gauzatua, erabilia, etxean utzi eta batzutan, agindutakoa betetze soilagatik, mendi edo zinera ezinbestez eramane beharrekoa.

b) sexuaren garrantzia:

Aspaldian hain baztertuak izandako sexu kontuek eragin itzela dute literatura berriaren gizon-emakumeen arteko harremanetan. Gogora ditzagun bestela Antxonon amak egindako amets erotikoak, beronen sexu inguruko hausnarketak, Elsa eta Gisèleri larrua jotzeak dakarzkien ondorioak, etab. Izan ere, hona hemen, adibide gisa, Antxonon

amaren pentsamenduetariko bat, edonolako eufemismoei itzurtzen zaiena:

"aitatasuna ez da gau batean zakila astinduz betirako irabazten den zerbait"

Badirudi Txema, emakumeengan edertasuna eta, batez ere, gaztetasuna bilatzen duelarik, gorputz gazte xamurreko nesketara joaten dela, eta horretantxe datzala etxera ez itzultzeko gakoa, emaztearen hitzeta-tik ondorioztatzen denez.

"Txema bueltatuko balitz, baina zeren bila, baina zergatik, aise aurkituko ditu bazterretan ha maika neska, iztarretan zelulitis izpi bat ere ez dutenak, besapeko ileak leun eta goxo eskaintzen dituztenak, alaitasuna kutsatzen ikasiak"

Lerrook aparteko garrantzia dute eleberriaren bukaerarako: bere baitan zimeltzea, eihartzea susmatzen du istorioan zehar mintzo zaigun emakumeak, eta, ondorioz, bukatutzat ematen du sexuaz gozatzeko garaia. Jarrera honek antigoaleko emakume-arketipora hurbilarazten du Antxon-en ama. Ondoko hitzek, esaterako, García Lorcaren *Doña Rosita la soltera* dakarkigute gogora.

"Aurtengo neguan ostoak erortzen zaizkidanean, ez zaizkit berriro aterako. Akabo. Ni be-

zalako landare nekatuei ez zaizkie ostoak ateratzen"

Horiexek ditugu, bai, gizonek emakumeen kanpoko edertasun soila baloratzen dutelakoan dagoen emakume garaitu baten hitzak.

Gisèle eta Elsaren bizitzetan ere badu garrantzirik sexuak: Gisèleren kasua lehenagoxe azaldu dugu: larrua jotzen duenetik guztiz aldatzen zaio bizimodu, ikasketak utzi eta sabelean daraman *monstruo*az arduratu beharra baitauka. Elsaren bizimodu aldaketan ere sexua dugu eragile nagusi. Berarengan zer bilatzen dute Luc, Jean eta Vanhammek, sexu grina asetzea ez bada?

Jeanen jokabidea ikusita, ideia trinko batek asaldatuko du Elsa: maitasun agerpenak larrua jotzeko tresna besterik ez direla gizonetzkoentzat. Horregatik, faltsukeria hutsa ikusiko du Pierreren adeitasunean. Horregatik hartuko du bakardadera eta, azken batean, heriotzara amiltzeko erabakia.

d) independentzia eta bakardadea:

Gizonengandik aldentze honek independentzia ezezik, bakardade jasanezina ere dakarkie gure hiru emakumeoi. Independentzia ez dute gogoko, ez zaie bizimodu desiragarri, baizik eta irtenbide bakar (Elsarentzat)

eta derrigorpen (Gisèlerentzat eta Antxonen amarentzat). Elsak berak, bai, egiten du alde etxetik, baina beste erremediorik ez duelako, hots, senarraren jokabideak bultzaturik, senarrarengandik ezer onik espero ez deza-keela egiaztatuta. Beraz, Elsa zeharkazko aktantea baino ez dugu, Lucek egindakoak baitira etxetik alde egitearen bultzatzaile, ekintza hori Elsak eginik ere.

Lehen esan bezalaxe, derri-
gortu zaio Antxonen amari Txemarik gabe bizi izan beharra, hon-
ek etxea abandonatzen duenetik. Beraz, nola maite izan deza-
ke independentzia *Txema buel-
tatuko balitz* obsesiboki amestu
ohi duen emakumeak? Nola, se-
narra gabeko etorkizunean si-
nesterik ez duen emakumeak?
Nola, independentzia derrigortu
zaion andreak?

Gisèle ere bakardadezko
zuloan erortzen da haurdunaldia
dela eta. Ezkontzatik kanpoko
haurdunaldia arbuizatzen duen gi-
zarteak ez dio ez babesik ez ir-
tenbiderik eskaintzen. Inon ere
ez du bere arazoaren berri
entzun eta ulertu nahi duenik
aurkitzen. Fetoaz askatzen ez
den arte ez du etorkizunari aur-
pegi emateko kalipurik izango.

Independentzia eta bakar-
dadearen eskutik beste ezauga-
rri bat aurki dezakegu hiruren-
gan: ezkortasuna. Izan ere, Elsak
zoritxarra gainditzeko asmatzen

duen era bakarra buruhiltzea da.
Gisèlek, bere aldetik, etsi-etsian
bizi du aterik ate, sendagilerik
sendagile ematen duen haurdu-
naldia. Antxonen amaren kasua
ere ez da danbolinik gabe
dantzatzeko modukoa: senarra-
ren loaren jagole garai batean;
Antxonen loaren jagole eta zain-
dari orain.

Egitura

Lehenago azaldutako da-
tuak erabiliz, erraza litzateke hiru
liburuetarako egitura amankomu-
na antzematea:

1.	2. (etena)	3.
Gisèleren ikasle denbora ⁴	Larrua jo eta haurdun gelditzen da	Haurdunaldia. Bakardadea. Abortatzeko ahaleginak
Txemak alde egin aurretik	Txemak alde egiten du	Emakumearen bakardadea. Haurra, lagun bakar
Elsak Luc, Jean eta Valhamme- rekin dituen ha- rremanak	egunkaria idatzita, bakardaderako bidea aukera- tzen du	bakardadea - buruhiltzea

Beraz, hiruretan gizonezkoa
da eten narratiboaren eragilea.

(4) Jakina da *Egunero...* liburuan bi
kontakizun nahasten direla: bata, berritsu
baten elkarrizketa (edo, Lasagabaster
dioenez, "bakarrizketa, berritsuak ez bai-
tio solaskideeari behin ere tutik esaten
uzten"). Bigarrena, Gisèlerena. Gorago
adierazitako egitura bigarren kontakizu-
narena da soil soilik.

Baina eleberri bakoitzak badu berezitasunik:

a) *Egunero hasten delako* liburuaren amaiera baino lehena-goxe, 227. orrialdean hain zuzen, beste eten bat dagoela esan liteke: abortatzearena. Izan ere, horren berri lerro gutxitan ematen bazaigu ere, irudi badirudi horren ondorioz bizimodu berria hasiko zaiola Gisèleri, *monstruoaz* askaturik berriro "jaiotzeko" aukera izango duela.

Bestalde, goiko eskeman Gisèleren istorioari antzeman diogun hiru ataletako egitura hori denbora errealarari dagokio, baina ez narratiboari, eta bestalde, bazter uzten du liburuaren beste istorioa, hots, aurrena trengeltokiko buffetean eta geroago telefono-bulego nagusian ageri zai-gun berritsuarena. Saizarbitoriak bi istorioak nola txertatzen dituen jakin nahi duenak jo beza J.M. Lasagabasterren hitzaurrera.

Hiru ataloi dagozkien kapituluak ondoko eskeman zehazten dira, kronologikoki ordenaturik.

ATALAK KAPITULUAK 1626 (bukaera), 8, 9, 12313, 14, 15, 2, 3, 5, 16, 18, 20

Gisèle estraineko aldiz bigarren eta hirugarren kapituluetan azaltzen da, Durkehimgo geltokian hain zuzen, *larruzko maleta bat alboan eta liburu bat esku artean dituelarik*. Kapitulu hauek

kronologiki non kokatu ez dugu jakingo hamabosgarrenera arte. Kapitulu horretan ere trengeltokian dago, eta azkenik bidaiaren zioa zehazten da: Gisèle Fontanaz sendagilearengana doa.

Bosgarrenean ere azaltzen da Gisèle, eta oraingo honetan bai ageri dela datu denboral zehatz bat: *bigarren hilabetean dagoen fetua* darama sabelean. Beraz, kapitulu hau, hala nola bigarrena eta hirugarrena, kronologikoki lotu dakieke Gisèle abortatu nahian dabilen kapituluari. Denborazko linealitate eza hau, gaur egungo literaturgintzan zein zinemagintzan hain arrunta izanik ere, liburuaren berritasunetako bat da.

b) *Zergatik, panpox-en* egitura bitxia da zeren lehendabiziko zatia, hots, Txemak alde egin aurrekoa, ez baita azaltzen, istorioa Txemak alde egindakoan hasten delarik. Hori dela eta, Txemak alde egin aurreko garaia ez da kontakizunaren denbora errealean gertatzen. Gertatu ez, gogoratu egiten da. Narratu, besterik ez. Kontakizunaren denbora errealean, andreak egiten dituen pentsamenduetan bertan dugu garai haren berri, zeren haren psikologia (hau da, eleberriaren tonua) ulertzeko ezinbestekoa baita.

d) *Elsa Scheelen*: Txillardegik eta Urretabizkaiak, etengabeta-

sun denborala hausteko, baliabide berbera erabiltzen dute: gogoeta. Hau da, istorioan hala nolako eraginik izan lezaketen gertaerak aipatzen dituzte gogoetaren bidez. Esaterako, *liburuxka izkutu* batean idazten haste soilak burura dakartzkio Elsari Luc ezagutu zuen garaia, ezkontzako gorabeherak, etab. Halaber, hogeita seigarren kapitulu oso aspaldiko adiskide bat aurkitzean, gaztetako zenbait gertakizun korapilatzen zaizkio buruan. Gertakizun soilak ezezik, eginaren damua ere.

“-Munduaren itsua! Romain haurnik mesprexuz hartzen nuen gaztetan. Egiazki maite ninduen, ordea; oraindik maite ote nauen ez dakit. Eta nik ez-ikusia egin ohi nion huni, seriotan ere ez nuen hartzen. (...) Luc'ek, ordea, gogor hartzen ninduen, (...) ausarta eta lotsagabea zan nerekin (...). Askotan ahaztu egiten bide ninduen. Eta, horra: Luc'ez maitemindu nintzan osotara... Egia da nahastu nintzala”

Beraz, askotan “denborazko linealitate” delakoa hautsi egiten da bakarriketaren bidez, honi esker bi jazoera (bata idazlearen ikuspuntutik; bestea, gogoeta dela bide, pertsonaiaren ikuspuntutik) gerta daitezkeelako aldi berean eleberri barnean.

Jokabiderik erradikalena Elsari dagokiona da, zeren bere ingurua beste biena baino askoz bortitzagoa bide baita: gizon mesperagarriak, oso atsegin eta gertagarri ez zaizkion aitaren amets sozialak, aitaren heriotza, etab. Horregatik ulertzen da, kinka larri horretan, bere azkenengo erabaki erabatekoa: bere buruaz beste egitea. Buruhilketa kontakizunaren amaiera sinesgarri eta ulergarria da. Elsaren isolamendua gero eta nabariagoa da. Irtenbiderik gabeko egoeran eroria da. Hala ere, bere erabakiaren zehaztasun bat bera ere ez zaigu ematen. Ez dakigu bere heriotzaren aurreko uneak nolakoak izan diren, nolako pentsamenduetan murgildu den. Baina ez du axolarik: amaiera ez zaigu bitxia egiten, buruhiltzea kontakizunean zehar erakitako irtenbide bakar bihurtu delako.

Ondorioak

Euskal eleberrigintza berriaren hiru liburuotan hiru emakumeen berdintasunak aztertzen saiatu gara. Lehenengo eta behin, azpimarratu behar da Gisèle, Elsa eta Antxonon ama gizarte berberari dagozkion giroetan bizi direla. Eta hirurek mantentzen-pairatzen dituzten harreman latz eta faltsuak antzekoak dira, agi denez. Emakumezkoekiko harremanetan sexualitate hutsa ikusten duten gizonekin ibiliak dira. Maitasun

trukean mezprezu lakarra jasan beharrak menpekotasun bihurtzen du ematasuna. Baina hori ez da okerrena: Gisèle dugu, zer esanik ez, bere buruaren jabe den bakarra. Elsak eta Antxonon amak, halako bidegabeaz ohar-turik ere, ezer gutxi egiten dute egoera horri aurka egiteko. Elsak bakardadean bilatzen du irtenbidea, Antxonon amak senarrarekiko gogoetan hala nola semearen heziketan, baina ez batak ez besteak ez dute aurkitzen. Mundu zoritzarrekoa pertsonaia zoritxarrekoentzat.

Bibliografia

- AGIRRE, Txomin (1912) *Garoa*, Durango, Florentino Elosu. Erabilitako edizioa: (1966) Oñati, A.F.A.
- SAIZARBITORIA, Ramon (1969) *Egunero hasten delako*, Donostia, Lur. Erabilitako edizioa: (1979) Donostia, Hordago.
- TXILLARDEGI (1969) *Elsa Scheelen*, Bilbo, Kriselu. Erabilitako edizioa: (1983) Donostia, Elkar.
- URRETABIZKAIA, Arantxa (1985) *Zergatik, panpox*, Donostia, Erein.
- , "A. Urretavizcaya: arraren rola jarri behar da auzitan", *HABE*, 32.
- BORDA, Itxaro (1989) "Situación de la mujer en la literatura clerical", *Nosotras también escribimos*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- EMAKUNDE (1994) *Emakumeak Euskadiko artegintzan*, Gasteiz.

Arte koreografikoaren semiotika baterako

JOXEMIEL BIDADOR

O. Atarikoa

Dantzan badugu komunikatzeko erabide zehatza. Hau horrela izanik zilegia dateke nonbait beste edozein sisteman bezala ikerketabide linguistikoaren bitartez dantza zertan den analizatzea, eta hain zuzen ere Saussurek berak jada proposaturikoak abiapuntutzat hartuta, hau da, keinuaren teoriak abiapuntutzat harturik. Beraz, dantzaren adierazia eta adierazlea izanen genituzke, eta hortik guziz zilegia dugu dantzaren semiotika batez jardutea.¹

Konkretuki dantzaren balio linguistikoaz aritzeko komenigarria izan daiteke dantza beraren balioa literaturan aurreikustea, izan ere dantza present baitago literatura mota batean, ahozkotasunean garatzen denean alegia. Kontraesan nabaria dagoke ahozko literatura bezalako deitura batean, alta literatura idatzi egiten dena baldin bada, nola uler liteke ahozkotasunean garatzen den zerbait literaturaren barnean. Halere inork ere ez du ukatzen herri kanten edo herri antzerkiaren balio literarioa, beraz gakoa besterik gabe deituren egokitasunean datzake eta herri literatura deitura askoz ere egokiagoa iduri zaigu.

Herri literaturaz jarduterakoan betiere present dauden zenbait elementu soma ditzakegu, eta haien artean dantza. Paul Zumthorrek dantzaren presentzia herri poeten lanetan azpimarratu zuen bereziki. Zeinuaren erabilpena lotuta dagerkigu espresatzeko erabideen ones-

(1) "La danza es un simbolismo no sólo por su valor imitativo o mímico, sino por su expresividad psicofísica, donde el hombre dio a conocer sus pasiones de fondo religioso o sexual, y donde a veces fundó ambas en un complicado simbolismo", Luis Bonilla, *La danza en el mito y en la historia*, Madrid, Biblioteca Nueva, 1964.

penarekin, hau da, historia bera batek hamaika kontatera desberdin izan dezake, izan ere hauxe ahozkotasanaren beste ezaugarri bat izanen litzatekelako, hau da, bat batekotasuna, ipuin kontalari batek istorioa kontatu unean egiten duena, beraz liburuaren iraunkortasuna galduko litzateke espresabideen bizitasunaren truk. Hauxe bera dantzaren ezaugarria badugu, eta dantzaren paralelo iraunkorra nonbait ere eskultura bertan legoke.

1. Semiotika nahiz arte koreografikoa zertan diren

Deituren azalpena:

Ezertan jardun aitzinetik, komenigarria dateke honetan nonbait izenburuaren osagarri diren bi kontzeptuak guretako zertan diren esatea, aldez edo moldez guk ematen diegun esanahia argikiro azaltzea. Izan ere semiotika eleak hainbat eta hainbat definizio atxikitu izan baitu hixtorian zehar. Egun, eta *International association for semiotic studies* izeneko elkarteak badago ere, berak duen zentzu franko ugari horrelako puntualizazioa beharrezko suertarazten baitigu.

Gure ikerketan Christian Metz zenak jada luzatu definizioaren aldeko jarrera sustatuko genuke.² Honek, Saussurek, Hjelmslevek, Buyseusek edota Barthesek esandakoak bere baitan harturik zera zioen, semiotogia zeinuen ikasketan diharduen zientziazat behar dela jo, ikerketa bereziek bereganatzen dutena semiotika deno. Beraz, baldin eta literaturaren semiotika, musikarena, arkitekturarena, edota abarrena izaten bada, arte koreografikoarena ere bada.³

Bestetik, izenburuan ez dugu dantza deitura erabili, ez eta baile ere, arte koreografikoa baizik. Geure uste apalez azken honek zerbait zabalago baten berri ematen digun hitza dugu, dantza edo baile kontzeptuak konkrezio zedarrituak direlarik. Erderaz poliki argi somatzen ahal da bi terminoen arteko aldea. Dantza talde homogeneo baten barnean dauden zenbait partehartzaileen ekintza itxia bada —gazteria, kofradia, kintoak, ...—, normalean eskema koreografiko bati jarraitzen diona, tradizioan kokatuta dagoena, eta hortarako entsaioak nahiz prestakuntza nahiz jantzi bereziak eta abarrak behar dituelarik.

(2) "Les sémiotiques ou sémies", *Communications*, 7, Paris, Sevil, 1996

(3) Jenaro Talens eta alii, *Elementos para una semiótica del texto artístico*, Madrid, Cátedra, 1990, 27 or.

Erderazko baile —euskaraz biak dantza deitzen baitira, nahiz ezberdintasuna garbikiro mantentzen den— zerbait irekia dugu, anarkikoa, horrenbeste araurik gabekoa, higiduren askatasuna ezau-garri, bertan nahi duen orok parte har dezakelarik, dantzarako behar diren osagai guziak soberan daudela. Hauen adibideak Euskal Herri-ko plazetan garatzen diren dantza saioak baditugu. Lehendabizi ez-patadantzariak ateratzen dira aurretik ezarritako hurrenkera zehatz bati behaz, dena arras neurturik dagoela, eta segidan, herriko jen-deak hartzen du plaza.⁴

2. Lengoaia: Komunikazio sistema eta arte-lan komunikatiboa

Arte koreografikoaren semiotika bat egiteak, huraxe komuni-katzeko sistematzat hartzera behartzen gaitu. Honen inguruan Juri M. Lotman aipa dezakegu. Honek lengoaia honela definitu zuen: edozein zeinuen bidez eginiko sistema bi pertsonen artean komunikatzeko baliagarria dena, autokomunikazioa barne, izan ere, azken honetan pertsona bakar batek bi funtzioak betetzen baititu, hau da, ogutzailea-rena eta hartzailearena. Gure kasuan honen adibidea edozein pertso-nak pozkarioz beterik dantzatu izanaren senti dezakeen plazer soila izan liteke, edo pertsona batek osotasunarekin lotuta dantzatzen due-nean, Amerikako zenbait gizataldeek egin eguzkiaren dantza esatera-ko.

Berarendako komunikatzeko balio duen edozein sistema zeinuen bitartez eraikia litzateke, eta zeinu hauek konbinatzeko erregela fin-koak ere badituzte. Hauek estructures berezi batzuetan eratuko dira hierarkizazio modu propio batekin.

Lengoaia hauek zeinu formalizatugabeak edo gutti formalizatuak erabiltzen duten komunikatzeko sistimetatik bereiztuko lirateke, esate-rako, mimika keinuak. Zenbait sistema artistiko ez linguistikoeekin, ko-munikazio maila konnotatiboan bakarrik geratzen da, eta ez oinarrizko

(4) "Baile: a spanish term with a wide variety of connotations, all relating to dance. Some writers distinguished between baile and the nearly synonymous danza, saying that referred to a courtly ceremonious dance using grave and measured steps and little or no arm movement, while baile referred to an energetic dance involving gram gestures" in *Grove's dictionary of musicians*, 20 liburuki, London, 1985. "La saltación que en caste-llano llamamos danza baile o tripudio, fue antiguamente en dos maneras: una honesta y util para el ejercicio del cuerpo, y otra deshonesta y lasciva. La misma diferencia tenemos hoy", in Rodrigo Caro, *Días geniales o lúdricos*, Madrid, Espasa-Calpe, 1978 (1694, urteko eskuizkribuari jarrikiz).

mailan gainera, hau da, erabilitako osagaiak ez dira *per se* komunikatiboak. Bestaldetik, badira erabilerak non oinarrizko mailletako osagaiak ez direla konnotatiboak, baina bai komunikatiboak, esaterako antzerkia, zinema edo dantza bera.⁵

Lengoaia naturalak ingurune objetiboa ikustarazten diguno, testu artistikoak egia horri bere eredu propioa egokitzen dio. Honek ez dirudi oso aplikagarria dantza edo musika bezalako arteetan, non oinarrizko elementuak ez baitira oso esanguratsuak, izan ere bestelako arteek bere erreferenteak ingurune objetiboari egokitzen badizkionten bitartean, azkeneko hauek ingurune subjektiboari. Halere ingurune subjektiboa ingurune objektibo bera barneratuta dela kontutan hartu behar da, ezen, esaterako, norbaitek partitura baten esanahi artistikoa ulertzen ez badu, beharreko kodigoa bereganaturik ez duelako da, besterik ez.⁶

Arruntki artetzet emandako lanek komunikatzeko nahia aurkezten dute argikiro, eta nahi hau *a priori* onartuta dago, delako gizakoi antolamendu batean. Artea, hizkuntza baten antzera, analizagaia da, eta alde hortarik, artea bada sistema eredutzaile bigarrenkoa —*Sistema modelizante secundario*— eta eraikia dago lengoaia naturalaren sistemaren funtzionamendu ereduaren gainean. Testu artistikoa, zentzu baten eraikuntza dugu, eta bertan parte hartzen duten elementuak oro zentzuzkoak ditugu.

Bestaldetik ere, garrantzitsua suertatzen da Estatuaren Baliabide Ideologikok, EBI, —*Aparatos Ideológicos del Estado, AIE*— delakoak kontutan hartzea komunikazioaren eskema ulertu ahal izateko. Ekoizpen sistema kapitalista nagusi den ideologiak ez ditu komunikazio ereduak soilik sobredeterminatzen, ez bada baita hauen kritika eta aztertze bideak ere.

Zenbait semiologi ezberdin ikus daitezke. Komunikazioaren semiologia hizkuntzalaritzaren aldea dugu, eta besteengan eragitzeko baliabideak nola hauek ezagutzeko bideak ikertzen ditu. Signifikazioaren semiologia berriz gizartean bizitzeagatik esanahikorak diren gure jokamolde guzien ikertzen duena da. Artean hirugarren maila batekin kontu daiteke, hau da, komunikazio artistikoaren semiologia, beste bien artean dagoena.

(5) Talens, op. cit., 31 or., Juri M. Lotman, *La structure du texte artistique*, Paris, Gallimard, 1973.

(6) Talens, op. cit., 34 or.

3. Zeinua eta testu dramatikoaren ikerketa

Koreografia keinuen bitartez egina da, eta bestaldetik ere oso lotuta egon da beti antzerkiarekin. Azken finean, eredu koreografikoak ahozko literaturaren antzerki mota batetzat jo litezke. Beraz, antzerkia ikertzeko erabiltzen den teknika baliagarria izan daiteke koreografia analizatzeko.

Zeinuaren kontzeptua eta definizioa anitza bada. Saussurerena lehendabizikoa izanik aisaenetakoa dugu, hau da, zeinuak bi alde erakusten ditu, eta hauek adierazlea eta adierazia ditugu. 1949. urtean Shannon eta Meaber ikerlariek mezuaren kontzeptua azaldu zuten, emisorea-mezua-hartzailea alegia. Geroxeago teoria gehiago agertuko ziren, esaterako Peirceren semiotika, Morrisen semiotika pragmatikoa, eta abar. Azken honek beharreko baldintzak ikertzen ditu edozein gauza zeinu bihurtzeko.

Arte dramatikoaren zenbait ikerlariek argi eta garbi utzi izan dute antzerkiaren inguruko ikasketa eta testu eszenikoaren analisiaren egoera momentu txarrean egon eta badagoela. Talens eta abarren lanean honela azaltzen da: "*El estado actual de la teorización y de los resultados metodológicos adquiridos acerca del teatro es el de un evidente y abrumador retraso*".⁷

Antzerkia zeinuz osaturiko estruktura anitza dugu, maila ezberdinetan garatzen dena. Antzerkiaren zeinuen estabilizazioa bere ahalmen semantikoa haundituz lortzen da. Ekialdeko antzerkiak (*No, Kabuki*) edota mendebaldeko antzerki folklorikoak ia ez dute aldaketarik aurkezten beren baitan urtez urte egiten diren emanaldietan. Horren truke, esanahien kodifikatze garapen semantiko finkoa gertatzen da, egiten diren sarrera, irteera, edota mugimendu guziena.

Tadeus Kowzanek (1969) hamairu sistimetako sailkapen bat proposatu zuen antzerkia ikertzeko. Bertan keinuek eta bere esanahiak kinesikaren arlo berria erditu dute.⁸

(7) Talens et alii, op. cit. Sanchez Escribano, F; Porquera Mayo, A., *Preceptiva dramática española del renacimiento y el Barroco*, Madrid, Gredos. María Arene Garamendi, *El teatro popular vasco: semiótica de la representación*, Donostia, ASJU, 1991.

(8) Kowzanen laukia honako hau dugu (guri bereziki axola zaizkigun zenbakiak 3-4-5 dira):

1 hitza esandako testua

2 tonua

3 mimika gorputz adierazpena

4 keinua

Herri literaturaren ikerlariak ezberdintzen baldin bada agerraldi batean erabili hizkuntza eta agerraldia bera, hau da, testua, baita guk ere antzerkiaren analisia egiterakoan testuari muzin egin diezaiokegu antzerkiaren kodigoak zertan diren ikusi ahal izateko, batik bat kontutan hartzen bada herri antzerkian testua bera dela gutxien herrikoia dena.⁹ Hau horrela izanda dantzari aplikatzea guztiz egokia dateke. Beraz, dantzaren itxuraz aparte, demagun familia bereko dantzak egiteko egon daitezkeen eskola ezberdin, dantzak analizatzeko kodeez ere balia gintezke.

Jan Mukarovsky zenak 1931. urtean aktorearen analisi estrukturala egin zuen, eta Chaplin haundiaren keinuen bildumategia osotu zuen bere ordeko semantikoekin batera.

Bogatyrev eskenan dauden elementuak eskenatik kanpo daudenean ez duten esangura berezia bereganatzen dutela ohartu zen. Halaber dantzak, berezko eskenatokitik at dagoenean, bere esparru koreografikoan duen esanahia ezin du erakutsi. Hauxe da hain zuzen ere euskal dantza talde kaletar guzietarako larriki dagokien afera, darien sinesgarritasun eza nabaria.

4. **Koreografiaren performance: keinuen bidez ahozkaritzan egin komunikazioa**

Fito Rodriguez Bornaetxeak¹⁰ euskal ahozko literaturaren sustarri eta zedarrari gisa dagerkigun On Manuel Lekuonaren lana gogorarazi digu: "*On Manuel Lekuonari esker lehengo ahozko kultura behar zuen duintasuna maila eskuratzen hasi zen*", eta bidenabarrez ahozkaritzak hezkuntzan izan dezakeen garrantzia aldarrikatu du. Ez da oroit beharra ahozkaritza frantsesezko *oraliture* dela. Izendatze hau jada Paul

5 mugimendua

6 makilaia aktorearen azal itxura

7 orrazkera

8 jantzia

9 osagarriak eskenaren antolaketa

10 dekoratua

11 argia

12 musika ahots ez artikulatuen efektuak

13 soinuak

(9) Arene Garamendi, op. cit., 16 or.

(10) "Ahozkaritza eta ahoskaritzaren erabilera hezkuntzan: bertsolaritza, ipuin-gintza, eta beste zenbait adibide", *Ele* 15, 1995, 133-148 or.

Zumthorrek erabili izan zuen, Fito Rodriguezek berak aipatu duenez, bere 1983. urteko *Introduction à la poésie orale* lan ederrean.¹¹

Zumthorrentzat ahozkaritza besteari zuzentzen diogun oro bada, bai begirada bat izan, bai keinu ixila. Kasu honetan ahozko literatura —*poésie orale*— deitura erabili ordez, ikerlari frantsesak gorputz e-strukturapena bezala izendatzea obesten du. Berarentzat gorputzaren mugimendu guztiak poetika baten barnean eratuta daude, eta esaten dena eta egiten diren keinuen artean dagoen loturaz ohartarazi gintuen. *Performancen* norikbederak bere gorputza erakusten du, hitzekin batera gorputzen keinuak agertzen direla. Esangabe doa, zenbait kulturetan gorputz keinukera hobekiro aprobetxatu izan dela espresabide arrunta gisa. Noski gutxien erabili dutenen artean mendebalگو kultura mugatzaile hau erabilera guzti hauen gutxitze eta mespreztatze bidean abiatua da, gurea *cultura litterae* bat zeharo delarik.

1881. urtean G.M. Malleryk Amerikako lautadetako bertakoek keinuen bidez erabiltzen zituzten lengoaietara buruzko gogoetak jada argitaratu zituen, gerora berrargitalpen ugari jaso duena. Egun ezinezkoa litzateke erdi aroko ahozkaritzan erabilitako keinukeriaren bilduma bat egitea.

Hau guztiaren inguruan galdera frango sor daitezke. Adibidez, zein modutan keinua kodifikaturik dagoen, edo noiz gertatzen da keinua espresatzeko bidea bereziki. Datekeena, keinuak esanahia duten banako analisagarriez konbinazioa ditugu.

Performancearen barruan beste osagaiekiko keinuak duen harremanak zentzu arazoak aurkez ditzake. Nabaria da pertsona batek egiten dituen keinuak ez direla arbitrarioak, eta bakoitzak helburu ezberdina du. Baina batzuk esanahi osoa duten bitartean, beste batzuk konnotatiboak dira, errezeptorearen arreta bereganatzeko, edota gorputz eszenifikazioa dira.

Keinuen sailkatzeko saioak ugariak izan dira. Sailkapen bat izan daiteke Calame Griaulek eginikoa. Honek keinu deskriptiboak —mimetikoak— eta gizartekoiak —konbentzionalak— proposatu zituen. L.V. Thomasek berriz formularioak eta espletiboak. Halere Zumthorrek hiru motatako sailkapena luzatu zigun, hau da, hitzaren osagarriak direnak, hitzaren anbiguotasuna akitzekoak, eta azkenik hitza bera ere ordezka dezakeenak, hartzaileari hitzak eman ez dion berri

(11) *Introducción a la poesía oral*, Madrid, Taurus, 1991 (1983), bereziki 11. kap.: "Resencia del cuerpo".

bat eskainiz. Scheubek helburu erritmikoa duen beste keinu mota aipatu zuen, performancearen alde musikarekin lotuz, hala nola keinu kulturalak, gizarte konkretu bakoitzean esanahikorak direnak.

Performance oro eskala baten barruan kodifikagarria suertatzen da. Japongo *rakugo* antzerkian keinuaren garrantzia hitzarena baino haundiagoa da. Dena den, performancean keinuak duen garrantzi mailak diskurtsoarekin gorputzaren lotura markatzen du.

Ahozkaritzan agitu kultur bideetan, ahozko poesian alegia, gorputzak esaten dena eratzen du, modelizatu. Ertaroko ipuikontalariak dantza erabiltzen zuen kontaerak aintzinaratu ahal izateko. Elekatzearekin batera sortzen den keinukeria zehazgarria dugu oso. Halere bat baino gehiagotan gorputz atal batek eginiko keinu batek gorputz osoaren higitura ordezka dezake, kasuan kasuko dantza bat alegia. Esaterako Urdiaingo emakumeek Donibane gauan egiten zuten San Juanen kantaitaren besoez bakarrik lagundutako mugimendu koreografikoa. Besteetan ezaugarria higiduren eza bera izan daiteke. Zumthorrek tuaregtarrek haien aitagarrebaren aurrean keinurik gabeko kontaera egin behar dutela aipatu zuen.

Beste arrazoi bat dantza esanahiez beterik dagoela baieztatzeko honako hauxe dugu: zenbait kulturetan erabide mnemotekniko gisa erabili izan da. Teknika hauek direla eta, zera zioen Vansina ikerlariak: herri ohitura zein jakinduria mantentzeko zenbait elementu material erabili izan du zenbait herrik belaunaldiz belaunaldi. Aipagarria gerta daiteke inkek edo ketxuek zarabilten *kipua*. Hauxe kolore ezberdinetako zenbait kordez osaturikoa genuen, kapelatan paratzen zutena, eta ehundu moduaren arabera mezu ezberdinak jasotzen ziren. Bertakoentzat liburu bat bezala gertatzen zen, eta aipagarria jazo dakiguke misiolariak hara joan zirela, indioek, aitortzerakoan, haien bekatu guziak oroitu ahal izateko kipuan apuntatuta eramaten zituztela. Hauxe ez al da beste idazkera mota bat?

Beste sistemak egon dira ez horren garatuak, esaterako Polinesian erabilitako makiltxo batzuk oskekin, euskaldunok ere erosteko erabili izan duguna. Afrikako Kubek ere bazituzten makiltxo batzuk diru kontuetarako. Beste erabide ezagun bat danborren jotzeak ditugu. Hortaz honela zioen Vansinak berak: "*Las palabras y las frases pueden ser transmitidas en señales de tambor, en las lenguas en las que la altura del tono juega un papel fonológico*", eta honen inguruan, danbor seinaletan erabat kodifikatuta dagoen Dagomba erret sediarren eta Akango herriko historia aipatu zuen.¹²

(12) Jan Vansina, *La tradición oral*, Barcelona, Labor, 1967, 49-or.

Aspaldi Marcel Jousse ikerlari frantziarra giza gorputzaren keinuak duen garrantziaz mintzo zitzaigun. Horren erabakiorra azaltzen zen keinuaz: "*Quelques décimètres de film, qui auraient enregistré les tout premiers gestes humains dans les cointains millénaires, nous en apprendaient davantage sur les origines de l'homme que le plus méticuleuse analyse des crânes et des fumeurs: le geste c'est l'homme*".¹³ Berarentzako keinua, *le geste*, "*c'est l'énergie vivante qui propulse cet ensemble global qu'est l'anthropos: vita ingestu, tout ce qui viest pas enregistrable est imparfait dans notre actuelle méthode microscopique ou macrocopique*".

Beraz dantza ikertzeko orduan keinua bera ikertu beharko da. Keinuak dantzaren silaba edo lexematzat har ditzakegu. Dantzaren osagarriak ditugu keinuak, eta hortik hasi behar dantza bera zertan den aurreikustekoz. Keinua jada San Agustinek aipatzen du bere *De musica* lanean. Honek *gestus* eta *sonus* maila berean ezarri zituen. Armonia musikalaren kontzeptuaren barnean alegia. Denborarekin lotura hau galtzen joan zen, eta azkeneko *gestus* gorputzaren higidurari orori dagokio. Hau horrela izanda, aipagarria egiten da San Agustinek egin batze hori, hau da, hasiera batean, dantza bera zela, hau da, musika ezin zen ulertu dantzarik gabe, eta alderantziz. Bowrak esan zuen dantza musika baino lehen bazela. Geure ustez ez litzateke bata ez bestea. Dantza keinu erritmikoa da, beraz, biak batera sorturikoak lirateke. Dantza gorputz erritmoa, musika adimen erritmoa. Biak emozioen adierazgarri, komunikazio bide pertsonala subjektibo kolektiboa. Hugues de Saint Victor (1096-1141) mistiko frantsesak *De institutione novitiorum* izkiriatu zuen. Bertan apezgaien formakuntzarako gaiak agertzen zituen eta haietariko bat keinuei ere zuzendu zion.

Zumthorren ustez keinua esaldi batekin parekatzea gehixegi dateke: "*sería abusivo asimilar toda secuencia gestual a una frase, toda gestualidad a un sistema de signos y universalizar la neo ciencia llamada kinésika*".¹⁴ Halere esan behar da keinua zeinua dela kulturalki baldintzaturik dagoen heinean, edo, gizarte zehatz batetan esanahi zehatz bat duen neurrian, eta beraz hauxe bazuen onartu: "*Podría evocarse con prudencia una gramática o una retórica del gesto*".

(13) Marcel Jousse, *L'anthropologie du geste*, Paris, Gallimard, 1974, 50 or.

(14) Paul Zumthor, *La Letra y la voz de la literatura medieval*, Madrid, Taurus, 1989 (1987), 12 kap. "La obra plenaria", 293-or.

Erdi aroko juglareen teknikei buruz aritzerakoan, gogorarazi zigun horiek garrantzi handiagoa ematen ziotela mimikari kantu berari baino. Mimikaren teknikak askoz ere garatuagoak bai zituzten. Kontutan hartu beharra dago gehienetan trobadoreek musikaren laguntzaz kantatzen zutela, mimika hori dantza baten moduan ulertuta, hau da, mimika hori *Ars choreographica* zen.

Horren inportantea gertatzen zen garai horretan keinuen teknika ezen goiko estamentuetatik ere gogorkiro aritu ziren haien alde ezartzeko, edo behintzat kontrolatzeko. Poliki ontsa baliatu ziren hartaz, batik bat predikariendako egiten ziren erretorikako eskuliburuetan. Zumthorrek aipatzen du karolingiar arotik keinua erabili izan zela helburu pedagogikoekin, esaterako teknika mnemotekniko bat bezala, bestenez honez gero jada aipatua duguna. Boncompagnoren *Rhetorica novelle* lanean kapitulu bat dugu "De gestivus prolocutorum" izenekoa, hau da, nola baliatu behar da keinuaz diskurtsoan. Analogia sortu zen arima eta gorputzaren keinuen artean, eta handik at gertatzen zena eragotzia gertatzen zen argikiro. Noski juglareei izugarri aunitz kosta zekizkiela hau errespetatzea, izan ere kontutan harturik haien mugimenduak dantzen parekoak zirela, hagitzez gehiago baitziren dantzak, keinu soilak baino.

Bestaldetik ere, esan pertsona bat besteen aurrean dagoenean, bere aktibitatea keinuez hornitzen duela, diskurtsoaren zentzua indartzeko, keinurik gabe, bigarren zentzua adibidez, harrapagabe gertuko bailitzateke. Alta norbederaren aktibitatea esanguratsua izan behar bada besteendako, komunikazioan zehar transmititu nahi den guztia besteei pasatzeko moduan garatu behar da. Komunikazio prozesuan, gizarte konkretu baten balore ofizialak present badaude, eta keinua honen barruan kokatzen badugu, zeremonia bat bezala kontsidera dezakegu, gizartearen balore moralen berbaieztatze bat, keinuen bidez egin espresaera komunikatiboa dela medio. Keinuren liturgia komunikatiboa.¹⁵

5. Arte koreografikoaren zenbait aburu abiapuntugarriak

Gizartearen hasieratik arte koreografikoa bat bateko espresabide gisa dagerkigu, eta giza talde orotan present dagoen zerbait dugu argi eta garbi kultura maila kontutan hartu barik. Hauxe jada Charles

(15) Erving Goffman, *La presentación de la persona en la vida cotidiana*, Madrid, Amorrortu, 1987.

Batteaux zenak esaten zuen 1746. urtean Parisen agertu bere *Les Beaux-arts réduits à un même principe*.¹⁶

Zumthorrek modu poetiko batez definitzen du: "*Placer puro, moción corporal sin otro placer que sí misma, y también por ello mismo conciencia. Desde la danza solitaria a la danza por parejas y a la danza colectiva, crece la cálida precepción de una posible unanimidad. Se renueva un contacto firmado por el cuerpo, sellado con la efigie de su forma liberada por un instante*". Berarentzat ezkutaturik dagoena agertarazten du dantzak, erreprimiturik dagoena.¹⁷

Halere, zerbaitek balio izan badu dantza zertan den esaterako hori erritmoa dugu bereziki. Dantzak erritmoa sortzen du, edo erritmoari jarraitzen dio, eta musikaren alde ikusgarria, ikus daitekeena, dugu. Denboran zehar garatzen da, eta hitzaren zehaztasunari ihes egiten dio. Salvador Barandiaran ikerlariak dioenez, dantzaren osagai psikologikoa aberatsa eta ugaria da. Bere ustez dantza erritmoari egokituriko higidura genuke. Eta higidura ez da bakarrik gorputz jarrenen aldaketa, baizik eta urrats zehatz eta pertsonaren aktituteen aldaketa ere bai.

Dantza, higidura den heinean, eskulturatik aldentzen da. Bergso- nek berak eskultura dantzaren eite abstraktoak, harritia eta gelditua dela zioen. Dantza *élan-vital* berak sorturiko higidura bat batekoa da, dantzariaren psikologiari erabat lotuta dagoena.¹⁸

Dantzaren hasieran higidura garrantzitsuena zatekeen, baina hala ere, erritmoa kantuaren bidez neurtzen zen, musika tresnen bidez ez bazen. Beraz dantza definitzen duena erritmoa dugu argi eta garbi, erritmorik gabe, dantza keinukeria nardagarria litzateke.

(16) Marie-Françoise Christaut, "La danza", in Jacques Chailley, Compendio de musicología, Madrid, alianza, 1991 (1985). Musika kontuetan horren erabilgarria suertatzen den Grove's entziklopediak hauxe dakar dantzari buruz besteak beste: "*Dance, like all the arts, finds expression in an apparently infinite range of styles, forms and techniques: it may satisfy the simples inner needs for emotional release through motor activity, as in children's singing-games, or the most complex demands of the creative artist on the professional stage; it may be profoundly subjective or philosophical, or purely decorative or virtuoso*", in *Grove's dictionary of musicians*, 20 liburuki, London, 1985.

(17) Paul Zumthor, *Introducción...*

(18) Salvador Barandiaran, "Metafísica de la danza", *Príncipe de viana*, LVIII, 1955, 83- or.

Hala ere dantzan bada gauza bat musikan ez dagoena, hau da, higiduraren sortzea espazioan. Dantza gorputzaren hizkuntza dugu, zuzena eta eliptikoa, gai da bereziki sentimenduen berri emateko, naturaren imitazioaren bidez. Adolfo Salazar espainiar musikologo ospetsuarendako dantza gorpu higiduren koordinazio estetikoa litzateke. Dantzak bere altzoan elementu plastikoak jasotzen ditu, baita gorputzaren jarrerak, eta konposaketa koherente eta dinamiko batean nahasten ditu. Gizonak, konposaketa hori sortzen du goren mailako sentimenduez beterik dagoela, eta hortik dantza edertasunean eginko sormen lana dugu, eta berez ontzat eman beharrekoa.

Diderot entziklopediagileak ere dantzaren higidura definigarritzat jo zuen eta gorputz higiduren musika litzateke dantza haren ustez. Marcel Mauss antropologoak argikiro azaldu zuen dantza ikertzeko gorputzaren mugimenduen teknika aurreikusi behar dela baieztatu baitzuen.¹⁹

Gizonak kantatzeko dituen arrazoi berberengatik egiten du dantza, eta kanturako baliagarriak diren hatsarri lehengoak dantzarako ere badira: agogikoa —higidura bakoitzaren lastertasuna denboran neurtzen duena—, keinuaren garapena, eta dinamikotasuna. Hiru hauek erritmoaren azpian ulertuta naski.

Bowraren ustez, dantza kantua baino lehen izan zen, mundua ordenatzeko gizaldiak izan duen errito berezia. Zenbait kulturetan, sua dantzaren laguntzaz egiten zen. Horrela kantua, dantzaren alde bat bezala har liteke. Geure ustez, ez da horrenbesterako. Dantza erritmotik sortzen da, eta horregatik biak batera sortzen dira. Asko hitzegin da dantzen esanahiari buruz, esaterako ezpata dantzaren jatorria; zenbait autorek ikusi du neolitikotik heldu zaizkigun dantza mota bat, beti ere laborakuntzaren sorrerarekin lotuta dagoena. Arriskutsu samar dateke horrelako baieztapen erabatekoak egitea. Momentu bakoitzean dantzatu egin da, eta kulturaren arabera, dantzak bereganatu izan du komunikazio prozesuaren zenbait esparru, hau da, dantzaren bidez adierazi dena bereziki dantzaren bidez adierazi izan da, eta ez beste modu batez. Dantzak gizataldean jazo behar diren zenbait mezu zehatzen komunikaziorako balio izan du, eta alde hortarik dantza uler daiteke sistema semantiko bat bezala. Honen adibide izan daitezke lbizan egiten diren zenbait dantza erritualak —*La curta*,

(19) Marcel Mauss, *Introducción a la antropología*, Madrid, Istmo, 19742, (1967) 199-202 or.

La llarga, Ses nou rodades, Ses dotze rodades— Uraren omenez egiten ziren dantza hauek, euria eskatzeko liturgiaren barruan izanen ziren garai urrun batean.²⁰

Bestenaz Zumthorrek dantza mota bat aipatu zuen, taldeka egiten dena, ahotsa eta keinuen bidez, dantza kantatua alegia. Hauexek lirareteke euskal jauziak: norbaitek urratsak kantatzen dituela, dantzariak dantzatu egiten dute.

Hauxe bera gertatzen omen zen erdi aroan, hortik dator estribilloaren teknika modernoa. Gogoratu behar da hainbat eta hainbat dantzak lagundu izan dutela kontatera, Feroe uhartetan balada herrikoak, Españaiko erromanzeak, edo Frantziako *ballet de cour* bera. Halere Zumthorrek esaten zuen "*la canción para bailar no existe como género, aunque se bailan canciones*".

Aintzinako gizonak ahal duen guztietan dantzatu du, eta hortarako izan dituen arrazoien artean bizitzaren edozein ekintza arrunta izan daiteke: pasaje erritoak, eritasunak, garaipenak, omenaldiak, heriotza, gerrak, udaberria, uzta, pakea, otoruntzak... Halere horren ugaritasun haundiaren aurrean gaia ez da gehixegi aldatzen materia beti berbera delako, hau da, bizi gaia. Horregatik dantza batek beste bat ordezka dezake erraztasun haundiz, adibidez, armekin egiten diren dantza ezteietarako, dantza falikoak eurirako, eguzkiaren dantza gaixotasuna sendatzeko, etabar.²¹

Zumthorrek bi dantza mota ikusten zituen: etorkin pagano, gurtzaintza nekazalekin lotuta eta berak elizak moldaturik, eta kortesauak: "*Se ha supuesto dentro de estas prácticas algún resto mítico antiguo, la necesidad animista de una reproducción de los movimientos del universo*".

Musikaren ikuspuntu aristotelikoak izan duen garrantziak elizaren barruan arte dramatikokoaren gutxitzea erakarri du, bai gizarte mailan bai hezkuntza mailan, bere baitan ekintza koreografikoak nahiz antzerki ingurukoak daudela.²²

(20) Josep Crivillé i Bargalló, *Historia de la música española VII: El folklore musical*, Madrid, Alianza Música, 1983.

(21) Curt Sanchs, *Historia universal de la danza*, 67-68. Juan Antonio Urbeltz, "Coreografía y muerte", *Il kultura herrikoari buruzko nazioarteko topaketak*, Portugalete, 1986, 179-192.

(22) Enrico Fubini, *La estética musical desde la antigüedad hasta el siglo XX*, Madrid, Alianza Música, 1988.

Nekazal dantza erritualen esanahia baztertua izan zen. Azken batean, herri kultura xehe guztiarekin gertatutako zerbait dugu hauxe, Peter Burkek bere tesian argikiro erakutsi izan zuen moduan.²³ Kontzilio ezberdinetan dantzak zein soinu tresnak debekatu ziren hala nola ekintza hauen eskenatokiak, nahiz hasiera bateko esanahia galduta egon.

Halere, Higinio Anglesek zera zioen, erdi aroko dantza elizetan eta elizetatik kanpo esanahi erligiosoekin egiten zela, eta alde hortarik ez zuen zer ikusirik aintzinako dantza erritualekin. Horregatik egungo folklore europarran geratzen diren dantza eta kantak kristau kulturatik zuzenean jasoak direla baieztatu liteke. Adibide gisa *Libre vermell* aipatzen du, XIV. mendeko collectaneum bat Montserratan dagoena. Bertan dantza nahiz kanta ezberdinen anotazio eta deskribapenak agertzen dira kristauak elizkizunen atsedean tartetan entretenigarri.²⁴

Grekoen plastika zaharrea keinu batzuen adibidea aurki daiteke, zernahi mingarri baten samindura, heriotza esaterako, adierazgarri, eta keinu hauetatik estilizazioaren bitartez dantza izatera ailegatzen da: "*Los gestos adoptan una euritmia elegante según que el duelo de los concurrentes tienda a organizarse en una coordinada sucesión de movimientos, cuya construcción armónica total es una forma de danza. En su manifestación más elemental la danza puede aparecer como producto de una descarga emocional en el individuo, pero inmediatamente socializada*".²⁵

Barandiaranek sentimenduen espresatzeko bideen mailakatzeko bat dagoela uste zuen. Komunikazioa arrunta denean gizonak hitzegtzen du. Enfasi bat dagoenean, orduan lirika sortzen da. Espresaera oraindik zehatzagoa denean kanta sortzen da, eta azkenik, dantza. Dantza sortuko litzateke irrazionaltasunak arrazionaltasuna garaitzen duenean.

Beraz, dantza irrazionaltasun horretatik sortuta, adimen desjabetasunerat eraman daiteke. Australiako zenbait dantzek gorputzaren erabateko nekatzearekin bukatzen dira, eta zenbait lekutan dantzak bai dantzari bai publikoaren trantzea badakar. Hauxe, heriotze modu

(23) Peter Burke, *La cultura popular en la Europa moderna*, Madrid, Alianza 1991 (1978).

(24) Higinio Angles, *La música española desde la edad media hasta nuestros días*, Barcelona, 1941, 22 or.

(25) Adolfo Salazar, *La danza y el ballet*, México, FCE, 1949.

bat litzateke. Barandiaranek dantzaren sorrera bat ikusten zuen giza sakrifizioen inguruan, eta Indotxinako dantzak aipagai zituen. Berarentzat dantza, sakrifizioaren liturgia litzateke, erligio guztien ekintza garrantzitsuenaren erakusgarri: "*No hay duda de que la danza constituye uno de los testimonios más palpitantes de la conciencia humana universal en sus creencias hondas e ineludibles de un ser supremo y de una supervivencia de los espíritus*".²⁶

Arte koreografikoa komunikatzeko bide bat bezala gehien ikusi duena Kosme Barañano genuke. Honek abstrakzio fisiko bat bezala definitu du. Dantza ulertzeko bi maila azaldu ditu: estruktuzioaren maila, non dantza garatzen den, eta errepresentazioarena, dantzariak eraten duena alegia. Bakoitzean konnotazio zehatz batzuk badira pertsona guztiak ezagutzen dituztenak. Dantzak, hizkuntzak bezala, ez du iraupenik, espazioan sortu eta desagertzen baita.

Espresabide modernoagoetan, demagun balleta, garrantzitsua da artista niponek egin lana, esaterako Min Tanakarena, zeinek bilutsik dantza egiten zuen, azalaren dantza eginez, gorputzaren superfiaren dantza.

Barañanorentzat, euskal dantza mundu kultural aurreko baten azarna litzateke, geometria eta koreografiaren aurretikoa. Dantzak sema aunitz litzuzke, gainera gramatika bat legoke eta higiduren hiztegi bat. Baina onartzen zuen hamaika erabilera ezberdin badaudela, eta hortik, adierazteko modu ugari.²⁷

6. Ahitzekoa

Ez dakit lantto hontan barna berri egokiren bat azaldu den, ez eta arte koreografikoaren semiotikarako abiapunturik sustatzeko baliagarria suertatu denentz. Alabainan gure asmoak horiexek izan dira, eta gorputzaren keinukeriaren alde semantikoa zertan datzan azalgarriagoa agiaraztearekin batera, guzti honen ikertzebideen nondik norakoak zehaztea badugu izan helburu. Jakina da egungo gizartean hitzaren bidezko hizkuntzak bereganatu eta bereganatzen duela arreta gehien, baina albokariak diren sistema komunikatiboen garrantzia agerian uztea ezinbestekoa delakoan guziz bagaude, eta koreografia, keinuen bitartez eginiko sistimem artean goren mailako adibidea, orai-

(26) Salvador Barandiaran, op. cit., 90 or.

(27) Kosme Barañano, "El espacio de la danza", *RSBAP, Nuevos extractos: Lecciones de ingreso*, Bilbo, 1989, 83-105 or.

no jaso ez duen axola aldarrikatzen dugu hemendik. Oroit bedi bestenaz, zenbait kulturetan dantza onuragarria guziz bazela, ondasun materialez eros zitekeen gauza, Amerikako zenbait indioen *potlach* ize-neko festa adibide. Beste kulturetan, dantza antolatzen zuen pertsona, dantza maisua, mezu sakratuaren eramailea zen. Hontaz, eta bukatzeko, Zumthorrek honela zioen: *"Esta circularidad lingüística, estética mental, común a la mayoría de las culturas de oralidad pura, ¿no es lo que busca patéticamente recomponer, volver a cerrar, en sus festivales o en sus discotecas, en la mediocridad trepidante de muchos de sus discos, más allá de la diversión de los cuerpos y del lenguaje un pueblo joven exiliado de nuestros siglos de escritura?"*.²⁸

(28) Paul Zumthor, Introducción..., op. cit., 213 or.

Atxagaren psikoanalisi: literatura, subjelibitatea eta esfera publiko garaikideaz zenbait ohar

JOSEBA GABILONDO
Bryn Mawr College, AEB

Aintzinasmo

Arazo zail bati buruzko lehen gogoeta bati hasiera eman nahi nioke, hain zuzen, euskal subjelibitatearena¹. Alegia literatura modernoa instituzio giltzarri suertatu bazen Europan zehar subjelibitate modernoa gararazten (Lukács eta Habermas besteren artean dixerunt), zer esan diezaguke euskal literatura garaikidearen garaipenak euskal subjelibitate garaikide baten edota batzuen garapenari buruz. Erabat kontziente naiz galderazko formulazio honek berak dagoeneko arazo

(1) Artikulu hau jatorriz hitzaldia da. Gasteizen 1994ko abenduan Geografia, Historia eta Filologiako Fakultatean eman nuen, Joseba Lakarraren gonbitez. Berari beraz lehen eskerrak eta hitzaldira joan ziren guztiei bigarrenik. Ez dut uste inork hain artikulu ezakademikoa espero zuenik eta beraz fakultatea bezalako erakunde akademikoa edozein erantzunkizunetatik garbitu nahiko nuke.

Gerardo Markuletak, Maria Jose Olaziregik eta Iñaki Aldekoak iradokizun baliagarriak izan zituzten hitzaldia idatzi eta berridazterakoan; berauei ere eskerrak. Horrelako materiale abanguardista, hibridoa (literatura/kritika) eta "ez-serioa" argitaratzeko kema izateagatik ere *EGAN*eko editoreei neure eskerra dihoakie. Uste dut badela garaia literatur kritika ortodoxoaren barruti zurrunetik at beste forma irakurgarriago eta erakar-garriagoekin esperimenta dezagun. Alde honetatik inork artikulu honi buruzko irazkinik balu, gogoz eskertuko nuke irazkina eskutitez edota erantzunezko artikuluz.

anitz konpondu beharrean sortarazi egiten dituela. Edozein modutara ere, arazoa bere osotasunean aurkeztu nahi nuen lehenik eta behin.²

Gainera euskal literaturaren kritikaren tradizioari begiratu, txundigarria da konturatzea, analisi formalak eta ideologikoak ugari badira ere, oso gutxi idatzi izan dela literaturaren gazteluko ziega eta espetetan gatibu bizi diren tentsio psikiko ilunei buruz, nonbait gure izatea erabat gatazkagabea eta argia bailitzan. Eta intuitiboki bada ere, ez da zail baiezte euskal literaturan eratzen diren egitura subjetoak "gatazkagabe eta argi" izatetik urruti daudela, oso urruti. Are gehiago, ausartuko nintzateke esatera hain direla nahasiak eta zingiratsuak ekonomia libidinal honen egiturak non horrexegatik inork ere ez duen nahi izan bertan oina ezartzerik.³ Gainera, euskal literaturaren eta euskal subjetoitatearen edota subjetoitatearen arteko erlazioa oraindik ere argitzea dago. Baieztapen honek ez du ukatzen erlazio hori badenik edota erlazio hori giltzarri denik. Historikoki zehaztugabe dirauela azpimarkatu nahi du huts-hutsik.

Bestalde, subjetoitatearena bezalako kasu zail hauetan, hasteko nolabaiteko narrazio bat sortu behar izaten dut arazoaren inguruan, izan ere narrazioak lagundu egiten baitit arazoa begibistaraten, hain zuzen era simpleago batean zertzen, datu gehiago erabat esplikatuko gabe era esanguratsu batean bateratuz. Irakurlearen kasuan ere narraitibak lagunduko diolakoan nago.

Beraz, "subjetoitatea" bezalako terminologiarekin eraikuntza teoriko konplexuegiak eraiki aurretik, narrazio gidari bati heldu nahi nioke, arazoa era narratiboan berrazaldu asmoz. Azken batean, eta Greimas zaharrak behingoz ondo frogatuko ligukeen bezala, edozein

(2) Euskal esfera publikoaren garapenean telebistak eta literaturak izandako erlazio eta txandaketa historikoari buruz, beste nonbait mintzatuko naiz. Bestela esanda, euskal ikusentzutezko medien garapena kontutan hartu beharko litzateke euskal subjetoitatearen arazoari erantzuterakoan. Hemen soilik literaturaz mintzatuko naiz, jakinaren gainean artikulua honen tesia birpentsatu egin beharko dela beste mediak analisian barneratzekoan.

Bestalde Habermas eta Lucács-ek literatura europar modernoa aipatzerakoan, hemeretzigarren mende ingeles, frantses eta alemaniarra dute gogoan soilik. Dena den, anakronistikoki edo flashforward moduan, eredu hauek erabiltzearen baldintza eta arriskuez beste nonbait mintzatu naiz. Ikus nere "Modernismoaren jarauntsia".

(3) Saizarbitoriaren *Ene Jesus*-i J.J. Lasak idatzi zion epilogoak dukegu salbuespen bakarretakoa. Gure artean kritika feministak derakutsan ausentzia litzateke guzti honen frogarik argiena.

ihardun kritiko beti ere sakonean narratiboa baitukegu, ez dio axola bere teorikotasun eta zailtasunak.

Euskal literatura garaikidearen kasua bere hartan zabalegia denez, eta egun hartu duen eite kanonikoa kontutan hartu behar denez era berean, aurrez zenbait artikulutan egin dudana bezala Atxagaren kasu partikularra soilik aztertzeari atxekiko natzaio. Atxagaren kanonikotasuna bera nire erantzunaren giltzarri denez, espero dut amaieran artikulua berak frogatzea aukeraren zentzu historiko eta teorikoa.

Behin behiala

Baina istorio on oren sekretuetako bat suspentsea denez, has nadin nere narrazioaren sorrerazko testuingurua azalduz lehenik. Atxagaren ipuinak letuz, bada zerbait marginala dena, forma askotan marginalizat itxuraturik azaltzen dena, eta aldi berean Atxagaren psikopoetikan erabat giltzarri dena: hain zuzen, *anaia gazte* guzti horiei buruz ari naiz, hots batzutan idiotak edota basatiak direnak (*Francisco Javier, Bi anai*), bestetan pertsonaia nagusiaren gogoan bizi direnak bigarren kontzientzia gisa (*Obabakoak*-eko *Klaus Hanhn*), are batzutan hildako anaia baten iraupen barneratu edota interiorizatu gisa azaltzen direnak (*Gizona bere bakardadean*), eta abar. Are gehiago, trabestien eta hiltzaileen forma hartzen duten bigarren pertsonaia hauek (*Obabakoak*-eko *Margarete, Heinrich* eta *Klaus Hanhn*), eta esan bezala askotan pertsonaia beraren gogoaren barnean bizi direnak, zerbait dioskute Atxagaren literaturaz. Alegia, euskal literaturan eta kulturatan giltzarri gerta litekeen egitura subjektibo baten aurrean ote gauden galdetu nahi nioke neure buruari.

Atxagaren pertsonaia bikoitz hauek, behin-behinean *anaia gazte* esango diegunak, genealogikoki folkloreak, erromantizismoaren eta elaberri gotikoen pertsonaia bikoitzaren edo *doppelgänger*-aren askazi badira ere, zerbait dioskute Atxagaren lanari buruz —zerbait garrantzitsua. Adibidetzat gogoratu baino ez dugu egin behar Freudek *unheimlich* edo harrigarri⁴ bezala aztertzen duen egitura psikikoa bikoiztasunaren eta errepresioaren bidegurutzetan sortzen dela. Batzutan hain etxekoa (*heimlich*) edo ezaguna dena, errepikatu edota berri-

(4) *Unheimlich* ez dago zuzenean euskaraz itzultzerik. 'Harrigarria' eta 'beldurgarria' esan nahi badu ere, literalki 'ez-etxeko' bezala itzuli beharko litzateke. Era berean, ezaguna, arrunta, alemanieraz *heimlich*/'etxeko' dukegu. Beraz *heimlich/unheimlich* bikotea, etxeko/ez-etxeko bezala itzuliko dut, jakinaren gainean harrigarria/ezaguna esan nahi duela.

ro gertatzean —bikoiztean— erabat atzerritar edo ez-etxeko (*unheimlich*) bihurtzen baita, beldurra eta panikoa sortarazi arte. Kasu haue-
tan gertaera errepikatua (etxeko>ez-etxeko) errepresioaren baten zeinu
bihurtu baita. Alegia Atxagaren *anaia gaztea* bera etxeko (*heimlich*)
den errepresio baten bikoizpen edo errepikapen atzerritar edo ez-
etxeko (*unheimlich*) izan baitaiteke, beldurgarri eta panikozko bihurtu
arte. Galdera jakina zera dugu: *anaia gaztea* errepresio baten zeinu
badugu, zer genuke etxekoa (*heimlich*) Atxagaren kasuan? *Anaia
gaztearen* etxekotasun horrek zer esan nahiko luke, bere errepikape-
nean beldurgarri eta paniko-sortzaile (ez-etxeko/*unheimlich*) bihurtzen
bada?

Eta beste galdera klase bat aurkeztekotan zera galdetuko nuke:
anaia gaztearen presentziak ba ote du zerikusirik nolabaiteko euskal
narzismo oinarritzko batekin? Anaia arteko isladaren oinarrian narzi-
sismoa izan baitaiteke erroturik.

Suspentse narratibo eta kritikorik sortu badut ala ez, garaia da,
gehiegi berantetsi gabe, hel nakion nere narrazioari.

Behin behiala bazen psikoanalista bat zeinak...

Ideialki *anaia gaztea* esan diogunak zein motatako ekonomia libi-
dinal eta subjetoak iradokitzen dituen jakin nahiko bagenu biderik
zuzenena zera litzateke, Atxagak psikoanalista bat duela suposatzea,
imajinatzea. Atxagaren biografiari buruz ezer gutxi dakit, eta ardura
ere ez, kritikiko naizen aldetik behintzat. Beraz momentu honetan ez
zaigu gehiegirik inporta jakiterik Atxagak benetan psikoanalistarik
duen ala ez; psikoanalista baten beharra narratiboa dugu. Eta behar
narratibo honen arrazoia honetan datza: Atxagak psikoanalista bat
balu, beronek entzungo lituzke zuzenean *anaia gaztearen* istorioak,
eta berauek esplikatuko lituzketen Atxagaren bizitzako pasadizoak.
Hain zuzen gure balizkako psikoanalista bakarrik izango litzateke ja-
kitun gure jakintzatik at dautzan pasadizo giltzarri eta misterioitsu
hauena.

Izan ere, uste dut guztiok izan dugula noizbait jakinmin erabat
voyeurista zeinetan gustatuko litzaiqukeen beste norbaiten ariman —edo
inkontzientean— zuzen-zuzenean begiratzeko aukera izatea, beren
tragedia eta garaipen izkutenak banan-banan, isiltasunaren eta ba-
kardadearen konplizitatean, ikustatzeko, pornografia bideotan ikusten
den bezala, edota pertsonaia ezagunen bizitza sekretua egunkari ho-
riak saltzen saiatzen zaizkigun bezala —Ingalaterrako errege familiari

buruzko eskandalu berriak jakinmin voyeur honen eredu paradigmatika ditukegu.

Beraz, Atxagaren psikoanalista nere beste istorio honen pertsonaia nagusi izango dugu, eta hain zuzen berarekin hitzeginez, bere lekua guk-geuk usurpatuz, Atxagaren anaia gazte horiek zer esan nahi duten galdetuko diogu Atxagaren inkontzienteari, edota Atxagaren animari. Izan ere Foucaultek berak argi ikusi zuenez, apaizak eta aitortza kristaua daude psikoanalisiaren erroan.

Beraz pentsa dezagun Atxagaren psikoanalistak bere pazientearen istorioak entzun dituela. Eta ondoren bere pazientearen istorioak irakurri dituela jakinmin hutsez, bertan ere erantzunik topatuko duen asmoz. Hau baita lehen aldia gure psikoanalistak paziente literaturgilea izan duela kontsultan, eta lehenago ez dio inoiz bere buruari galdetu nola neurosi eta sikosi arrunt batzuek gaitzen duten idazlea literatura sortzeko. Are gehiago, gure psikoanalista konturatu da ez dela batere arazo erraza halako galdera bati erantzutea.

Gure psikoanalistak, Sigmundo Gabilondo deituko diogunak —edo ta asma ezazue zeuen psikoanalista propioa zeuen deiturak Sigmundo izenari erantsiz— dagoeneko Freuden *Idazlan Guztien Argitalpen Estandart*-ari heldu dio, batez ere *unheimlich*-az eta narzismoaz mintzatzen diren liburukiei, eta lanari ekin dio. Momentu batez Lacanen *Écrits* ere kontsultatzea bururatu zaio, baina bitan pentsatu ondoren, erabaki du Lacanen lana gazteegia eta heldugabeegia dela euskal inkontzientea bezain gauza arkaiko eta katolikoa aztertzeko, eta beraz Freud zaharrari atxeki zaio soilik.

Hor dabil Sigmundo bere pisuko bulegoan atzera eta aurrera, hurrengo egunean idazle arrakastadunarekin izango duen sesioa prestatuz. Hiri berean bizi dira pazientea eta psikoanalista: Gasteizen. Izan ere Sigmundok Atxagak bezalaxe ez du Donostiako eta Bilboko zarata hutsala maite, eta gainera gobernuarentzat lan egiteari utzi eta psikoanalisiaren praktikari berriz heldu dionetik letratako fakultatearentzat ere lan egiten du, historia eta psikoanalisiari buruzko ikastaro batzuk noizean behin emanez. Hamar urte gobernuan lan egin ondoren, edo zehazkiago, alderdiarentzat kultur saila eratzen eta tajutzen hamar urte eman ondoren, oreka politikoa beste aldera joan da eta orekarekin batera bere postua. Hala, Gasteizen berriro ere psikoanalista kontsulta zabaltzea erabaki du; inoiz ere ez baita jakiten alderdiak noiz berreskuratuko duen kultur saila, berari lanpostu bera eskaintzeko aukera sortuz.

Hala, Franco garaiko bizitzara itzuli da, bere aurreko psikoanalista bizitzara, garai hartan zituen lagunak berreskuratu ezin baditu ere, gehienak alderdiko partaide bihurtzean atzean utzi behar izan baitzitu.

Nonbait Freud letuz, narzismoari buruzko 1914ko artikulua, Sigmundo gogoratu da Atxagaren lanetan errepikatzen den egitura batez, *anaia gaztearena* hain zuzen. Hala, Freud alde batera utzi eta berriro ere Atxagaren lanetara itzuli da. Hala, hasi da aztertzen Atxagaren inkontziente idatzian, bere lanetan, *anaia gaztea*-ren egituraketa, dagoeneko bere emazte Juliak ere badakien eta sukaldaritzazko errezeta merkea bihurtu den sistemaren bidez: desplazamendu eta kondentsazioak. Seme-alabarik balute haiek ere dagoeneko errezeta jakingo lukete baina, aspaldi erabaki zutenez seme-alabak edozein bikoteren ongizate burgesaren hondamena direla, bada gure bikotea seme-alabarik gabe bizi da, berrogeita bost milioko pisu ederrean San Antonio kalean, Gasteizen. Jo ta ke ari da Sigmundo, sesioan hartutako oharra eta paziente ilustrearen liburuak erkatzen, anaia gaztearen presentzia literarioak zer esan nahi duen ulertu ezinez. Eta galduxe da, zeren Atxagak bere ametsak kontatzerakoan, aurreko bizpahiru sesioetan ez du anaiarik aipatu.

Are, bere paziente literarioak sarritan bestelako ametsa aipatu dio; lokamuts bat: hain zuzen liburutegi baten lokamutsa. Eta egia esan liburutegiaren lokamutsak gehiago kezkatzen du *anaia gaztea*-ren literatur presentziak baino. Atxagak kontatu baitio bere lokamutsean liburutegi laberintiko batean ezin irtenik ibiltzen dela gelarik-gela noraezean korrika. Liburutegiko gela bakoitza bere kontsultako liburutegiaren tamainakoa bada ere, gelak amaigabe hedatzen dira lokamutsean, finean gela bera bihurtzen badira ere. Zer ote da liburutegi hori? Beste inor ba ote da liburutegian? Badaki Atxagaren lanetan azaltzen den *anaia gaztearekin* erlazionatu beharko duela. Baina oraingoz ez du ezer garbirik ateratzen.

Azkenean, liburutegiaren ametsa ulertu nahiz, Sigmundok bere liburutegira joatea eraki du, liburu inguraturik sentitu asmoz, nolabait ametsen barneratu nahi bailuan. Azken batean, lokamutsaren guzuean bere burua kokatu nahi du.

Beste ikasgelan dagoen emazteak, Juliak, senarra zertan dabilen entzun duenean, Atxagaren liburuak gustoz letu dituela adierazi dio. Are, momentuan bota dio lehen laguntza garrantzitsua, kondentsazioekin eta desplazamentuekin zerikusi gutirik duena, baina 70ko hamarkadako feminismo goiztiar hartan ibilitako edozein emakumek bu-

ruz ikasitako ikasgai oraindik baliagarria dena. Hala ikasgelatik atera gabe oihu egin dio korridoreaz bestalde ikusten ez den liburutegian dagoen senarrari:

- Hi, Obabako osabaren tertulian emakume guti zegok, beno egon ere ez zeudek, eta emakumerik izaten ez denean bada-kik, misoginia ugari edota homosexualitate maskulinoa. Beno, edota biak. Alegia tripaundi-burusoil-bizardun-ekonduzko so-zietate gastronomikoa edota igande arratsaldetako futbol par-tidutako gizoneria. —Isilune bat suertatzen da, baina bat ba-tean Juliak berriro heltzen dio garraisiari: —Edota bariante modernoagoren bat ere izan liteke, txaketa eta alkandora kolo-redunez, perfumearen eta korbataren mistika menderatu eta bilera garrantzitsutan biltzen den gizon taldea; zure lankideak alegia.

Sigmundok emaztearen ortodoxia-eza inolaz onartu ezin badu ere, arrazoi handia duela erabaki du eta oraintsu ere bide zuzenetik berau ibilia izan dela gogoratuz, kasu egitea erabakitzen du, alderdi-ko karneta ateratzeko erabakia hartu zutenean bezala; bere lehenaldi politiko guztiari uko egitea eta lagun batzuringandik banantzea prezio ordaingarri zela erabaki baitzuten bien artean. Alabaina konturatu da, Juliari kasu egiteagatik oraingoan arazoak hiru bihurtu zaizkiola: *anaia gaztearen* errepikapen literarioa, liburutegiaren errepikapen loka-mutsezkoa eta, orain, emakumeen ausentzia era berean literaturaz-koa.

Hala, emaztearen iradokipenari heldu dio. Baina euskal literaturaz Sigmundok gehitxo ez dakienez, fakultateko irakasle lagun berri bati dei egin dio. Ez dio gauza garbirik esan lagun berriak, baina iradoki dio Sarrionaindia idazlearen kasuan ere emakume-ausentzia nabar-mena dela. Ez du asti luzerik behar izan Sarrionaindiarenean ere emakumeen ausentziak zerbait oso garrantzitsua adierazi nahi duela konturatzeko. Liburutegitik atera gabe deitu du ohiko liburudendara eta Karlosi eskatu dio Sarrionaindiaren idazlanik garrantzitsuenak ekartzeko. Lau ordu beranduago ohar ugari ditu idatziak konputagai-luan haren liburuei buruz ere. *Izuen gordelekuetan barna*-ko amonak, *Narrazioak*-etako Ginebra erreginak eta emagalduek dira, adibidez, Sarrionaindiaren emakume nagusiak, hots emakume idealizatuak ideologian, denboran, eta sexualitatean. Azkenik dagoeneko zerbait interesgarria idoro duela jakinaren gainean, fakultateko lankideari be-rriro deitu dio gaeuz, eta Pott talde bati buruzko berriak ikasi ditu. Pott bandako partaideen kasuan ere sozietate gastronomikoaren egitura

emakumegabea errepikatzen dela baieztu dio fakultateko lagun be-
rriak.

Are gehiago, fakultakideak esan dio, potteroren bat maiteminduz gero, literaturarik idaztea debekatu egiten zitzaiola, eta beraz nolabait amodiozko kuarentenan ezartzen zutela beste partaideek, alegia tal-
detik sinbolikoki egozten zutela. Potten kasuan, elkarte gastronomi-
koen antzera, literatura gizonen artean egosten den jaki delikatua
baitateke. Bapatean Obabako osabarenean literatur tertulia ere baz-
karia dela gogorarazi dio bere buruari Sigmundok eta Potteroak ere
Arriagan biltzen zirela afaltzera.

Bat batean Sigmundo konturatu da egun guztian ezertxo ere ez
duela jan eta erabaki du Juliarekin ondoko tabernara afaltzera ate-
ratzea. Azkenean baina, egunaren ihardunak erabat nekaturik, liburu-
tegian bertan afaltzea erabaki dute, Julia eta biok.

Afalondoan Juliak, liburutegiko sofan etzanik, kontatu dio nola
behin Atxagaren hitzaldi batera joan zen eta Atxagak, Robert Louis
Stevensonen geografiak eta mapak esplikatu nahian, entzuleei propo-
satu omen zien asoziazio librezko ondorengo egoera: ugarte bat tropi-
koetan, bi gizon eta itsasontzirik ez inguruan. Atxagaren sorpresarako,
eta batez ere emakumeen aldetik, ez omen zen abenturazko aipurik
atera baizik eta sexuarenak. Hots entzuleen asoziaziozko hitzak zerok
ziren: sexua, pasioa, erromantzea, jan-edana, ihauteria... Juliak konta-
tutako pasadizu hura ausnartuz, konturatu da Sigmundo bi gizon ba-
karka ugarte tropikal batean, berriro ere emakumerik gabeko leku
asexuala izatera deitua dela, eta Atxagaren hitzaldiko entzulegoak,
emakume uhartiarren faltan, sexua bederen berrezarri zuela egoeran,
guzti honek sexu homosexuala esan nahi bazuen ere. Alegia sexu
homosexuala hobe zela sexugabezia baino. Sigmundo gainera kontu-
ratzen da, Juliak esandakoaren arabera, hitzaldiko entzulegoa Atxaga
bera baino belaunaldi bat edo bi gazteagoa zela eta beraz belaunaldi
arteko imaginazio desberdinen gatazka ikustatzeko aukera duela kasu
honetan.

Azkenean lo hartu du Sigmundok eta berak ere bere ametsetan
guztiak barneratu ditu: Atxaga, *anaia gaztea*, Julia, Pott, soziedade
gastronomikoak, narzisismoa, kondentsazioa, emakumeen presentzi-
eza, desplazamendua... Eta Sigmundok ere gau hartan lokamutsa
pairatzen du. Lokamutsean sozietate gastronomiko bat egin du amets,
ugarte tropikal baten erdian kokatua, euskal gizon bizardun tripaundiz
populatutakoa. Eta berak irakurri ez dituen liburuez mintzatzen direla
konturatutakoan, ihesari ekin dio, igarika ondoko beste ugarte batera

iritsi arte. Beste ugartean, baina, beste sozietate gastronomiko bat topatu du, gizon antzerakoekin, guztiak literaturaz mintzatzen direlarik, berak irakurri ez dituen liburuez hain zuzen. Eta hala Sigmundok gau osoa ematen du sozietate gastronomiko tropikaletatik igerika ihes egin nahiz, artxipelago amaitezin batean gatibu, lokamuts izerditsuan galdurik.

Hurrengo goizean liburutegiko sofan etzanda esnatu da, liburutegian zer egiten duen ezin asmaturik, logelara joan ez dela konturatuz. Dena den badaki Atxagaren kasua ez dela jada beste paziente huts batena, Sigmundo bera ere nolabait kasuaren eta erantzunaren parte bihurtu baita. Are gehiago, euskal gizartearen psikearen zenbait giltzarri bertan dautzala konturatu da. Are, Atxagaren amets pertsonalen eta literaturaren arteko erlazioa euskal gizartearen psikean datzala ulertu du.

Atxagaren kasuak erabat faszinatu du dagoeneko. Gosaldu gabe eta liburutegitik atera gabe, telefonoz deitu dio fakultateko lagun berriri. Hark ikuspegi historiko bat eman dio Atxagaren belaunaldiari eta emakumeen arazoari buruz. Lagunak azaldu dio, aurreko belaunaldian Arantxa Urretabizkaia bazegoen ere, Potteroen belaunaldian emakumerik ez dela azaltzen, eta hurrengo belaunaldian Teresita Irastortza, Itxaro Borda edo Laura Mintegi bezalako emakumezko idazleak badira ere, guztiok Pottek eta Atxagak zabaldutako estetikatik urruti bizi direla Atxagaren itzalpean. Lagunaren arabera, hurrengo belaunaldiari itxaron behar zaio, Arantxa Iturberena, itzal honetatik kanpora berriz ere idazten hasi diren emakumeak aurkitzeko, eta honen kasuan irratiak lagundu omen dio Potten itzaletik ateratzen.

Sigmundo Gabilondok deialdia amaitzean galdu egin du kemena eta indarra pentsatzeko. Zerbait berria ekoitzi nahi du, baina, Atxagaren kasuari buruz, hain zuzen Atxaga bera baino zabalagoa den eta Sigmundo bera ere barneratzen duen euskal psikearen kasu honi buruz. Hala, psikoanalista bezala aritzen zenean eta inspirazioa galtzen zuenetan egin ohi zuen bezala, liburutegian bueltaka hasi da oraingoan ere, noizean behin burua altxa eta azare hutsean liburu baten bizkarrari begiratzuz.

Norbaitekin hitzegitea gustatuko litzaioke, liburutegian bueltaka ibili beharrean, baina ez da posible. Izan ere sasoi bateko ihardun politikoa amaitu eta gobernuko lanpostuan sartu zenetik, eztabaida guti izan du geratu zaizkion lagun apurrekin. Era berean, bulegoan eta kultur etxeek eratutako hitzaldi eta mahainguruetan gobernuko ordezkari bezala parte hartzen zuenean, ordaindu egiten zioten, bai,

baina ideiarik ez zuen eztabaidatzen, inork ez zuen ezer eztabaidatzen, dagoeneko buruz jakiten den hura errepikatu egiten zen soilik, sasoi bateko eslogan politikoen antzera. Are, fakultatean ematen hasi berria den ikastaroetan, ikasleei ere zer gertatu zaien ez du ulertzen, ez daki bere klase prestatugabe eta azkarrak aspergarriak diren ala ikasleek jada interesik batere ez duten notaz beraz harantzago. Ez daki denak harrapatuta dauden antzerki obra batean, antzerki beckettiar batean, zeinetan gidoia aurrez idatzia izan den eta, inoren gustokoa ez bada ere, ez dagoen bertatik desbideratzerik.

Azken aldian bere egiazko gogaide bakarrak liburuak eta telebis-ta suertatu zaizkio eta galdaide bakarra emaztea. Fakultateko lagun berriarekin ez litzateke ausartuko luzaz hitzegitera, orain ez behintzat. Emaztea lanean ari denetan liburuei atxekitzen zaie azkenik, beren bizkarretan dauden tituluei begiratzeko erritualari ekinez.

Liburuaren bizkargaineko tituluak zerbait esaten badio, heldu eta orriak ordenurik gabe irakurriko ditu, aurkitu nahi baitu bere haize gabeko itsaso tropikal baretik aterako duen hitz edota erreferentzia magikoa. Inoiz ondo atera ez bazaio ere, beti ekiten dio erritualari, pentsatzen baitu agian noizbait zerbait benetan magikoa gertatuko zaiola.

Hala, hirugarren aldian, burua altxa duenean liburu berri bat ikusi du, Karlosek aurreko egunean ekarritako literaturazko libururen bat: Jesus Maria Lasagabasterren *Antología de la narrativa vasca actual*. Antologia hitzak norabaitera eramango duen ustetan, liburua zabaldu du hitzaurrean eta ezezko esaldi batek paralizatu egin du:

Hay una marcada preferencia por los universos interiores o en todo caso por someter al filtro de la conciencia de un yo narrante la experiencia de lo real. Se diría que hay una especie de terror a lo exterior, a decirlo en su desnuda objetividad, como si el escritor, mas allá de lo que a él le pasa, apenas tuviera otra cosa que contar.

Behin lehenago norbaiti antzeko zerbait irakurria ziola konturatzen da. Dena den, benetan esaldi iradokikorra dela iruditzen zaio: bere ezezkotasunean suertatzen zaio iradokikorra baina. "Terror a lo exterior"-ek zer esan nahi duen galdetzen dio bere buruari, alegia, errealismo ezintasun horrek zer esan nahi duen. Hala konturatzen da dagoeneko zerbaitetako abiapuntu direla euskal literaturak dituen zailtasunak eta beldurrak literatura errealista bat idazteko. Oraingoa,

korridoreaz bestalde dagoen ikasgelarantz oihu egin du, bertan konputagailuaren aurrean lanean diharduen eta ikusi ezin duen emakumeari galdetuz:

- Zer esan nahiko ote du ez-errealista izateak?— Eta ikasgelatik:
- Beno agian ez dagoela errealitaterik eta beraz ezin daitekeela errealista izan— erantzuten dio emazteak eta, isilune bat eta gero, eransten: —alegia zeu-zara irrealismoaren haragipenik garbiena. Non zauden ere ez dakizu eta. Ez zara liburutegi horretatik atera azken bi egunetan.

Momentu batez Sigmundo pausatu egin da esaldiaren sakontasuna pentsatzera. Bera irrealismoaren haragipen izatearen txantxaz ahaztuta, emaztearen lehen perpausa errepikatu dio bere buruari: "Beno agian ez dagoela errealitaterik eta beraz ezin daitekeela errealista izan." Agian konputagailuan dagoen Julia ikustezinak arrazoi du, agian ez dago euskal errealitate bat, eta hain zuzen horregatik euskal literatura ez da errealista baizik eta lirikoa, geroago pasarte berean Lasagabasterrek defendatzen duen bezala. Horregatik dio literaturak beldurra kanpokaldeari, hain zuzen kanpokalde euskaldun zehatz eta egonkorrik ez delako, kanpokaldea edozein idazlanen izatearen muga disolbatzaile datekeelako. Zeren zer da lirikoa izatea? Lirika dugu idazlea bera idazketaren errealitate bihurtzen denean; bere barna aztertzeraz jalgitzen denean, barneranzko bidaia hau idazketaren helburu eta errealitate bakar bihurtuz. Orain berriro ere Freuden narzisismoa etorri zaio burura Sigmundori. Izan ere narzisismoa, edo hobe narzisismo oinarritzkoa, horixe da, kanpoan dagoen errealitate objetiboarekiko erlazio katektiko zuzena ezin establezitzea. Bere paziente Atxagak kontatutako liburutegiaren ametsa gogoratu du bat batean, liburutegia ezin uztearen lokamutsa hain zuzen, eta konturatu da, pozez, zerbait garrantzitsuren atzetik dabilela.

Are gehiago, Sigmundok ulertu du anaia gazte guzti horiek beti ere errealitatearen muga markatzen dutela. Intzestuaren ondorio direnetan, kulturaren eta naturaren arteko muga markatzen dute; gogo barnean bizi direnetan aldiz, norbere kontzientziaren eta kanporaldearen arteko muga. Eta hain zuzen, pentsatzen du Sigmundok, kultura eta natura arteko muga horixe da, natura ordenugabe eta legegabeak suposatzen duen kanpokalde kaotiko horretan gizartea barne bezala ezartzea. Hala kultura bihurtzen da natura kanpoan uzten duen barrukaldea. Sigmundoren buruan ideiak egosten hasi dira abiada neurotikoa.

Aspaldiko partez, gai guzti hauek duten lotura argitasun eta garbitasun handiz ikusiz, Sigmundok lanari ekin dio. Neurotiko bakartiek bakarrik duten indarrez, lanari lotu zaio Sigmundo liburutegian. Lehen egunean Atxagaren lana berrirakurtzen du Segismundok eta Freuden narzisismoari eta *unheimlich*-ari buruzko artikuluak. Bigarrenean ez du ezer irakurtzen, zirriborroak idazten ditu paper zuri batean eta, egunerdiz, idazteari ekiten dio. Hirugarren egunean idatzitako guztia deuseztatzen du eta berriro hasten da lanean, dagoeneko zenbat egun daramatzen bere buruari galdetzen diolarik.

Zazpi egun eta zazpi gauez liburutegian iharduten da, ia lorik egin gabe, ia jan gabe, emaztea ikusi gabe, baina gelaz bestalde berarekin hitzeginez, sofan lo kuluskaren bat eginez, beti beldurrez sofa hori lokamuts-leku bihurtuko zaio —sozietate gastronomikoz populatutako uharte tropikalen lokamutsa hain zuzen. Hala, zazpi egun bete ematen ditu Sigmundok liburutegitik atera gabe, orrialdeak eten-gabe zirriborratuz, gaua ala eguna den ere ezin asmatuz. Zortzigarrenean aldiz idazteari utzi dio eta Juliaren ahotsa entzuten ez duelarik, sofan etzan da atsedentzera, ordu luzetan lo egitera, berriro ere lokamuts tropikalean amaituko duen beldur bada ere. Nekaturik dago eta lo egin beharra du.

Bederatzigarren egunez liburutegitik ateratzen denean, hirurehun orritan euskal subjektibitatearen arazoari buruzko sarrera bat dakar besazpian. Francoren garaiez gero ez du bere burua hain zoriontsu sentitu. Azkenean zerbait garrantzitsua burutu duen pozaz, gobernuan emandako hamar urte eskergabe haiek ahanztear da. Eta hala, gizon berri baten antzera, liburutegitik ateratzen da korridorean zehar Juliaren ikasgelara ailegatzeko.

Bat batean, baina Sigmundo beldurrak jotzen du. Izan ere, liburutegitik ateratzerakoan ez du atez bestalde egon beharko lukeen korridorean amaitu: liburutegi bertara itzuli da. Korridorea desagertu egin da. Atzean eta aurrean liburutegia bikoizturik dakus. Konturatzen da ez dagoela jada bere San Antonio kaleko pisuan. Bere liburutegian segitzen duela zihurtatzen du; alabaina ez dago bertatik ateratzerik. Ateratako bakoitzean berriro ere liburutegian bertan amaitzen baitu, aldi bakoitzean bertan dauden liburuak diferente bihurtzen badira ere. Nolabait liburutegia infinitoki hazi zaio, errepikatu, gela berdin eta kopuru amaitezinezko liburutegi "ez-etxeko" bihurtu zaion arte. Hau da *unheimlich*-a.

Liburutegi berri honetan baina liburu guztiak euskaldunak dira, ez dago psikoanalisiszko libururik. Intuitiboki badaki euskal literaturaren

liburu guztiak errepikaturik barneratzen dituen liburutegi magikoan dagoela. Halako batean konturatu da bere pisuko beste liburutegi hura, oraintsu zazpi egun eman dituen liburutegi erreal hura bera, atzean desagertu zaiola.

Ez daki liburutegiaren lokamuts honek zer esan nahi duen, baina halaere badaki euskal liburutegi infinitoan preso dagoela, bere euskal subjektibitateari buruzko hirurehun orriko eskuizkribua besazpian duela. Bere patua liburutegian datzala daki. Are gehiago Atxaga bere pazienteak kontaktzen zion lokamuts hartan —liburutegitik ezin atera zitekeen lokamuts hartan— dagoela ulertu du. Nolabait Atxagaren lokamutsean esnatu da.

Azkenean Atxaga ere bertan izango den galdetzen dio bere buruari, edota hurrengo egunean han azalduko den bere asteroko sesiorako. Guzti hau Atxagaren errua dela erabakitzen du. Halaere, bakarrik dago liburutegian.

Gainera Julia faltan botatzen du. Juliari deitzen dio eta beronen ahotsa ateratzen da liburutegiaren beste geletatik, bere galdera guzti erantzun bera emanez:

— Berrirakur ezazu eskuizkribua.

Liburutegitiko irteera bere eskuizkribuan dagoela ulertzen du eta hala, Juliari kasu eginik, zazpi egunez eta zazpi gauez, jan gabe, sofan lo kuluskarik ere egin gabe, Sigmundok eskuizkribua berrirakurtzen du, bere euskal subjektibitatearen teoriak berrausnartuz ezarian-ezarian, liburutegitiko irteeraren bila.

Atxagaz idatzitakoa berrirakurtzen du, hain zuzen *Ziutateaz*-en dagoeneko bikoiztasunezko imagina ugari dagoela, borrhoroa edota Scardennalirenarekin hasita. Egiaztatzen du halaber *Etiopia*-n hasierako narrazio fundazionala Kain eta Abelena dela, bi anaiena, eta amaierako istorioan ere lagun batek bestea hiltzen duela, emakume batengatik; hain zuzen pertsonaia ona, inozoa, da asasinatutakoa. *Bi anai*-n ere anaia inozoa da gaztigatutakoa, baina oraingo honetan beste anaia ere laguntzen dio heriotzara. Aldiz *Obabakoak*-en lehen partean, *Camilo Lizardi* deritzonengan, seme gaztea dugu, ez anaia, eta hura ere aitak erahiltzen du. Bigarren partean aldiz pertsonaia narratzailea bera da tontotzen dena, izan ere oraingo honetan, bikoiztasuna muskerrak markatzen du, ez anaia batek, eta beraz kastigua beti ere naturaren eta basatitasunaren aldetik datorkio pertsonaia nagusiarri, lehenago basurdearekin eta antzarrarekin gertatu bezala, *Camilo Lizardi*-n eta *Bi anai*-n.

Ipuin bakoitzean dauden bikoiztasun bereziak zehazten ematen du astia Sigmundok liburutegian. Azkenik *Gizona bere bakardadean* aztertuz han ere *anaia gaztea* azaltzen dela irakurtzen du Sigmundok; oraingo honetan baina hilik dago *anaia gaztea* eta berriro ere pertsonaia nagusiaren gogo barnean azaltzen da ahots gisa.

Guzti horiek aztertuta, Sigmundok bere pasarte onenetako bat irakurtzen du eskuizkribuan, oraindik ere liburutegitiko irteeraren giltzarik aurkitzen ez badu ere:

Literatura Atxagarenean beti doblearen, bizkiaren, asasinaketa-rekin hasten da, eta asasinaketa hori hasierako lanetan gizabana-koaren gogotik kanpo —gizarte eta natura arteko muga— ger-tatzen bada ere, bere lan berantiarragoetan internalizatu egiten da, pertsonaiaren gogoaren barnean birkokatuz.

Eta orduan bere perpausa faboritua letzen du, bere ikerketa guz-tia laburtzen duena:

Anaia gaztearen asasinaketa gogoan barneratuz edota internaliza-tuz idatzi du Atxagak bere literatura.

Halaere oraindik bere egoerari irtenbiderik emango dion giltzarik ez. Irakurketari jarraitzen zaio beraz:

Anaiak desagertu egin behar du. Are, etxeko eta ez-etxeko (heimlich/unheimlich) zer den anaiaren asasinaketak markatzen du. Anaiaren errepresioak markatzen baitu ez-etxekotasuna. Anaiaren asasinaketak, ekintza fundazional bezala, etxea sortzen du: anaia gaztea da etxeko ez dena, etxekotasuna sortzeko arbuia eta erre-primitu dena. Beraz "ni" narratzaile eta literarioa da asasinaketa hori kontatzen duena: etxeko zer ez den esaten duena. Etxeko zer den eta zer ez den esateak eraikitzen du sujetu narratzailea, etxekoa, Atxagarenean. Anaia gazteak ez du hitzegiten, ez du erantzuten, ez dago bertan erantzuteko, eta hala, bere isiltasunean, narrazioa zilegiztatzen du. Atxagaren literaturaren subjektibitatearen oinarrian, sujetu narratzaileak, eta beraz sujetu irakurleak, asasina-keta honen bidez definitzen du bere burua: sujetua dena eta ez dena.

Dena den, edozein errepresioaren antzera, errepemitutakoak eten-gabe itzuli behar du, bere errepresioaren zentzua azaltzera. Anaia gaztearen asasinaketa errepikatu egin behar da, behin eta berriro,

ekintza sortzaile honek zentzurik har dezan, sujetu narratzaileak aurki dezan bere buruaren zentzua errepresio horretan.

Errepikapen honetan, baina, naturatik urrunduz doa autorea. Errepikapen hau, zentzu bete hartu ahala, sujetu narratzailearen go-goan gertatzen hasten da. Momentu honetan sujetua, bere gogoa, da etxeko: anaiaren asasinaketaren errepikapen internazionalizatuak subjektivitate narratzaile baten sorrera baitakar.

Aurrera egiten du Sigmundok, eskuizkribuaren berrirakurketa etengabea, eta beste pasarte batean pausatzen da. Izan ere *anaia gaztearen asasinaketaren* narrazioa errepikatu ahala libururik liburu —Sigmundok irakurtzen du bere idazkian— Atxaga euskal literaturan giltzarriago eta kanonikoago, barnekoago, gertatu da:

Are gehiago, Atxagari esker euskal literatura lehen aldiz euskal kulturazko zeregin buruaski bihurtu da: literatura instituzio publiko eta erreal, euskal kulturaren alderdirik errealenetakoen, bihurtu da. Izan ere errealista izatekotan euskal literaturak era berean erreal izan behar du, literatura bezala esistitu, ahots bat izan.

Freudek bere narzismoaren artikuluan dioen bezala, kanpoko errealitatearen finkaketa eta sujetuaren errealitatearen finkaketa prozesu beraren bi atalak baino ez dira. Hauxe dukegu narzismo primarioa. Alegia sujetuarentzat ez dago errealitate finko eta bereziturik aurrean. Sujetuaren eta errealitatearen arteko elkar-eragin errepikatutik sortzen dira biak, sujetua eta errealitatea, berezitu eta erreal bezala. Oinarrizko narzismoa ez da besterik: ume jaioberririak kanpoaldearekin dituen erlazioak errepikatu eta barneratu ahala, bere ni-a sortzen du eta beraz ni-a ez dena kanpoko errealitate bezala eraikitzen du.

Dena den, zazpi egunez bere eskuizkribua berrirakurri eta gero ez du ulertzen hiru arazoan lotura, *anaia gaztearen asasinaketaren* barneraketarenarena, Atxaga eta euskal literatura errealitate bihurtzearena, eta emakumeen faltarena. Hasieran bezala dago. Badaki baina erlazioa badela eta giltzarri dela liburutegitiko irteerako giltza topatzeko. Emakumeez pentsatzean berriro ere Juliaz gogoratu da.

Liburutegian berriro oihu egiten die emaztearen ahotsa errepi-katzen duten gelei eta berriro galdetu die:

- Baina zein da guzti honen lotura? —Eta Juliaren ahots errepi-katua duen liburutegiak:

— Hi-heu haiz.

Eta bat batean ondo ulertu du zergatik dagoen preso euskal literaturaren liburutegi infinitoan. Ulertu du Atxagaren lokamutsa. Badaki zergatik amaitu duen berak Atxagaren lokamutsean, zergatik haren lokamutsa berea den halaber, lokamutsa bera den. Hain zuzen bera, Sigmundo, prozesu horretan parte izan delako, liburutegi hau sortzearen prozesuan; bestela esanda euskal kultura sortzearen prozesuan parte hartu duelako gobernuko ordezkari bezala. Eta are, batbatean intui dezake euskal literatura eta kultura eraikitzen ihardundako idazle eta kulturgizon ugari ere han daudela galdurik, preso liburutegiko gelatan.

Hala badaki jakin zer sakrifikatu behar izan duen liburutegi honen barnean amaitzeko: lagunak, politika, eztabaidak, inozentzia, emaztea.... Iritsi den lekura iristeko urtetan sakrifikatu behar izan dituen guztiak hain zuzen *anaia gaztea* adierazten duela ulertu du. *Anaia gaztea* gaztaroko sakrifizio guzti honen haragiketa literarioa baino ez da.

Orain ulertzen du Atxagaren lan haren titulua: Gizona bere bakar-dadean. Izan ere, Atxagaren belaunaldiak, Sigmundo bera barne, euskal kulturaren espazio publiko eta errealak eraikitzearen ardura historikoa izan du, nolabait euskal kultura baten errealtatea finkotuz eta instituzionalizatuz. Ardura historiko honen saria boterea izan da: errealtate horren zentru eta barne bihurtzearena. Baina halaber, arduraren horrek prezio bat izan duela ulertu du azkenik Sigmundok: beren bizitzak osatu dituzten askatasun guztiak sakrifikatu beharra. Prezioa beraz bakardadea da, bakardaderik latzena: bere buruarekiko bakardadea. Orain ulertzen du zergatik emakumeei ez zaien utzi prozesu honetan parte hartzen. Ulertu du emaztea zergatik ez dagoen liburutegian berarekin. Euskal kultura publikoan emakumeek publikotasun horren jabe izan ez direlako hasiera-hasieratik. Emakumeak beti ere "etxeko" izan baitira —domestiko— eta beraz etxekotasuna/ez-etxekotasuna sortzearen prozesuan ez dute parte hartzerik izan, ez zaie baimenik eman. Etxeko izaten segitzera behartu zaie; bertatik liburutegiaren emakumezko ahotsa.

Azkenik, Sigmundok badaki azken sakrifizio bat ere badela: bere buruarena. Azkenean ulertu du *anaia gaztea* bera dela, Sigmundo. Orain badaki bakardadeak itoko duela, asasinatuko, eskuizkribua eskuetatik erori eta liburutegiko lurra jo aurretik. Atxagaren lokamutsa ulertu du finean.

Azken agonia beste azken amets batek betetzen dio baina. Liburutegia hutsik geratuko dela amets egiten du, bera bezala, bere beaunaldiko gizon bakartiek *anaia gaztearen* erahilketan beren buruak hiltzen dituztenean. Amets egiten du liburutegi sortuberriak bestelako biztanleak hartuko dituela, hauek ere idatz dezaten oraindik bertan entzun ez diren ahotsen kronika. Bakardadearen kronika izan ez dadila espero du soilik bere ametsen.

Sigmundo zerraldo datza liburutegiko zoluan.

Epilogo

Artikulu hau Atxagaren *Zeru Horiek* irakurri aurretik idatzia izan zen. Emakumezko pertsonaia baten aukera ez dut uste zirkunstantziakoa denik elaberrri horretan. Proposatuko nuke irakurtzea goian azaldutako krisiari Atxagak emandako lehen erantzun bezala.

Hortik aurrera gustatuko litzaidake azpimarkatzea nere narrazio hau lehen gogoeta intuikorra baino ez dela egungo euskal literatura eratzen duten zenbait faktore nagusiren inguruan. Telebista media berri eta hegemoniko oraintsu bihurtu den arte, eukal literaturak izan du rolik nagusia euskal nortasun abertzale bat sortzearen zereginen. Francoren heriotzaz gero behintzat, eta euskara normalduz joan den ahala, euskal literaturak hizkuntzaren eta herriaren artean eratzen zen erlazio horretan ardatz papera jokatu du, euskal esfera publikoa izan daitekeenaren ardatz bihurtuz beraz. Prozesu hau heraldikoa eta sinbolikoa izan dela, hein handi batean, ez dut ukatuko.

Are gehiago, euskal literaturaren ardatz-bihurtze prozesu hau euskal kultur errealtatea finkatu eta instituzionalizatzearen prozesuarekin batera gertatu da, eta azken batean proposatuko nuke, euskal literatura, euskal errealtate aurreistente baten narrazioa izan ala ez baino (Lasagabaster), errealtate horren sorketaren narratiba bat izan dela. Eta narratiba horretan euskal literaturak bere buruaz hitzegin du, bere literatur bihurtzearen prozesuaz mintzatu da. Eta hain zuzen, prozesu narzisista horrek, era fetixista batean, euskal kultur errealtate baten sorreraren kontu eman baitigu —bertatik prozesu honen natura heraldiko edota sinbolikoa.

Berriro ere Atxagarenera itzuliz, ausartuko nintzateke esatera, Obaban ez dela ezer gertatzen, Obabako errealtateari buruz ezer gutxi dakigula. Alabaina, Obaba herria badela kontatzearen ahalegin narratiboak, abentura narratibo horrek, euskal irakurlegoarentzat, bes-

te edozein abentura narratibok baino indar eta erakarpen gehiago izan du.

Nouveau roman-aren kreduaren (Ricardou) antza duen nere beste egiaztapen honek ez du harekin zerikusi handirik. Izan ere, *Nouveau roman*-ak kontaktzen eta narratzen duen gauza bakarra zera baita, literatura modernistak bere buruaren kontaktetaz harantzago joateko duen ezintasuna; *Nouveau roman*-a munduari egindako uko modernistaren kontaketa da. Aitzitik Pott bandaz gurean gertatzen dena guztiz alderantzizkoa da: euskal literatur eta kultur mundu baten sorpenaren kontaketa. Kontaketa hau, sasoiari Latinoamerikan García-Márquez-ek ekoizitakoaren antzera, erabat historikoa, politikoa eta sortzailea da, itxuraz modernismo berantiarrarekin, *Nouveau roman*-arekin, nahas badaiteke ere.

Dena den, zentralizazio eta kanonizazio honek bere ondorioak izan ditu literaturan. Alegia, alde batetik, euskal literatur eta kultur baten errealtatea eratu eta onartu denez gero, *Obabakoak* bezalako liburuek beren hasierako balio hura galdu dute. Maria Jose Olaziregik frogatzen duen bezala, belaunaldi berriak ez du *Obabakoak* gehiegi irrik letzen. Izan ere, *Obabakoak*-ek kontaktzen duen abenturak bere abentura-kutsua galdu du, eta bertan erabilitako forma modernistak zaharkituz doaz, modernismo hutsarekin nahasiko diren arte.

Are gehiago, euskal esfera publiko honetan parte hartu duten idazte eta kulturgizonek beren telosa, beren ihardun politikoaren —zentzu zabalean— mugarrria, helburua, bertan, sortutako instituzioetan, topatu dute. Ez dut uste, belaunaldi horretako gizonak —zentzu zabalean— besterik sortzeko gauza izango direnik, kultur hori eratzen duten eta berauek sortu dituzten instituzio hauen buru izaten segitzen duten bitartean. Momentu honetatik aurrera, belaunaldi horren helburua bakarra izango dela derizkiot, salbuespenak salbuespen: instituzioei eustea, beren buruak boterean zilegiztatzen dituztelarik bide-nabar. Bertatik, literatura honetan bat batean azaltzen hasi diren gizabanako indibidual horien bakartasun kexak. Sasoi batean minotauroa laberintoan bakarrik bizi zen bezalaxe, belaunaldi honen literatura, beren lekune instituzional eta hegemonikoa aldatzen ez den bitartean, bakardadearen literatura izatera deitua da.

Bakardade hau, boterearen masokismoa narratzeko eta erakar-garri bihurtzeko tropo bat baino ez da. Tropo negartia. Oraindik ere, ahots gehiegi, euskal kulturaren instituzioetatik kanpo dautza; bete-betean emakumeak azaltzen dira lehen talde diskriminatu nagusi bezala, ez bakarra, baina bai nagusienetakoa.

Apostu egin nahiko nuke, euskal literaturan gerora ikusiko ditugun narrazio interesgarrienek, alegoriko bada ere, istorio bera kontatuko digutela: minotauroaren erahilketarena. Aitzitik narraziorik salduenak, ikastoletan irakurrienak, baina era berean aspergarrienak, zerok izango dira: minotauroaren negarrena.

Bibliografia:

- ATXAGA, Bernardo. *Ziutateaz*. Donostia: Kriseilu, 1975.
- , *Etiopia*. Bilbo: Pott liburutegia, 1978.
- , *Bi anai*. Donostia: Erein, 1985.
- , *Obabakoak*. Donostia: Erein, 1988.
- , *Gizona bere bakardadean*. Donostia: Erein, 1993.
- , *Zeru horiek*. Donostia: Erein, 1995.
- FREUD, Sigmund. "The Uncanny" in *Standard Edition of the Complete Psychological Works of Sigmund Freud*. XVII. Lib. Londres: Hogarth Press, 1953-74. 219-259.
- , "On Narcissism: An Introduction" in *Standard Edition of the Complete Psychological Works of Sigmund Freud*. XIV. Lib. Londres: Hogarth Press, 1953-74. 69-98.
- GABILONDO, Joseba. "Modernismoaren jarauntsia euskal literaturan. *Obabakoak*" in *EGAN 2* (1994): 17-62.
- HABERMAS, Juergen. *The Structural Transformation of the Public Space*. Cambridge, Massachusetts: The MIT Press, 1991.
- LASA, Juan Jose. "Epilogo" in Ramon Saizarbitoria. *Ene Jesus*. Donostia: Kriseilu, 1982. 139-176.
- LASAGABASTER, Jesus Maria. "Introducción a la narrativa vasca actual" in Id. (arg). *Antología de la narrativa vasca actual*. Bartzelona, Edicions de Mall. 1986. 11-43
- LUKÁCS, George. *The Historical Novel*. Lincoln eta Londres: U of Nebraska P, 1983.

Sorginak Hondarribian? J. Caro Barojaren oroitzapenez

JUAN SAN MARTIN

Hemeretzi urte baizik ez zituen Julio Caro Barojak *Anuario de Eusko-folklore*-ko XIII. liburukian "Hechicería vasca" zeritzan lan hura agiriz eta oharrez argitaratu zuenean. Gai haren jarraipenez sorginkeriari buruzko lanak eta hauen artean bereziki "Las brujas de Fuenterrabía (1611)", 1947. urtean *Revista de dialectología y de tradiciones populares* aldizkarian argitara eman zuen (III. liburukiaren, 184-204. orrialdeetan); gero 1975ean *Brujería vasca* zeritzan liburuan bildurik emango zuena.

Juliok, bere ikerkuntzak, beti jarri zituen lekuko agiri zehatzez oinarriturik. Bere aurretiko iker-tzaileek zer zioten begiratzuz eta agirien arabera bere jakiturizko aburu zorrotza eskainiz. Hori izan zuen zentzuz jokatzeko modua.

Hondarribiko historian maiz entzunak ditugun Inesa Gaxen, Maria Garro, Maria Etxagaray,

Maria Migel Oyanguren, Maria Illarra eta Katalin Etxeberriaren epaiketak aztertu zituen, Inkisizioko Ofizio Santuko agiritegian. Han aurkitu zituen Txomin Aranburu notarioaren paperak eta agiri haietaz baliatu zen 1611ko maiatzean Santxo Ubilla eta Gabriel Abadia herriko alkateek lekuko zirela eman zituzten arrazoibideak, salatuak izan ziren pertsonak esandakoari jarraituz, zehatz-mehatz ikertu eta zentzu onez ulertuz heldu zion gaiaren mamira zuzen joanaz.

Epaiketa haren lekukorik gehienak haurrak ziren, pubertaroko neskatok maizenik eta zahartzaroak burua moteldutako guti batzuk. Gaztetxoek kontaktzen zutenez, sorgin horiek gau-erdian ohetik hartu eta teilatuen eta murruren gainetik hegaz Jaizkibel mendiko Santa Barbara ermitondora errotan omen zituzten, han egiten zen

akelarrera. Baina, Juliok erudizioz eta zentzunez ondo jantziriko jakitunaren argitasunez, E. Dupré ikertzaileak 1925. urtean Parisen argitaratu zuen *Pathologie de l'imagination et de l'émotion* liburuko argudioei jaramon eginaz joko zuen gertakartzat kontatzen zituen irudikerietara argi bila, amets haiei beren lekua emateko. Akelarre haietan sexu kontuak nahasten zirenez, nik esango nuke, errepresiozko gertakari haiek Freud-en araberrazko psikoanalisiaz soilik epaitzekoak zirela. Baina, J. Caro Barojak nahiago izan zuen epaitzaileek zer zioten ikusi eta kasu bakoitza punduz-pundu zehatz begiratzaz aztertu eta bere irizpide zuzen eta uka ezinak burutu.

Ohartzen zen, gaiaren funtsean, Pierre d'Lancrek 1609.-ean Lapurdi eta Behe-Nafarroan sorgin-ihiza ireki zuenetik herri guzia izutu ondokoa zela. Salakuntzaren beldurrez, mugaz hemendikaldera ihesik zetozten emakumeengandik hasi zelako hemen bertan sorgin-ihiza. Arestian aipaturiko gehienak frantses-euskaldunak bai ziren: I. Gaxen Bastidako baxe-nafardarra, Maria Etxagaray Hazparneko eta Maria Garri Lekoneko lapurtarrak, adibidez; gainerakoak horien lagunak. Auzoek gorrotoz, aiherkunderaz edo beren buruak besteen aurrean eder egin nahirik salatzaile bihurtuak. Giro har-

tan, fantasiari hegoak emanaz, horretaraino heldu bai zen herriaren psikosis kolektiboa. Batzutan oso ankerra bai da gizartearen jokaera.

Urte haietako sorgin-ihiza, batik bat, Baztandik Bidasoa zehar Hondarribirainokoa izan zen. Mendebalderago ordea, Errenterian Maria Zozaya nafarra eta Pasaia San Pedron Maritxuloko izan ziren sorgintzat atxilotuak. Argi dago muga inguruan kokatzen zirela sorginkeriaaren susmoak eta frantses-euskaldunak susmagarri. Horiek ziren P. d'LANCRE-ren epaiketaz Bordelen sorgintzat hainbeste emakume euskaldun erretzearen ondorioak.

Baina, egiaren izenean behin eta berriz esan beharrezkoa da sorgintzat epaiketara eroan zituzten emakume horiek, Alonso Salazar y Frias inkisidoreak bere txostenean argi zionez, tormentuzko zigorpean 'Bai' esan arte eduki zituztela. Oroi, Salazar y Frias inkisidorea elizgizonaz gainera jurista zela eta sorginkeria-aren ikerkuntzarako bereziki etorria. Herriz herri ibili zen lekuko ziurren bila, han eta hemen galdez eta ikerketaren ondorioz, inkisidore honentzat, sorginik ez zen, burubero eta zentzu elbarritu batzuren baitan ezik, eta haurren salakuntzak amets hutsa baizik ez ziren. Horri esker, "sorginok" ez zituzten sutan erre.

Batzuk, Inesa Gaxen bezala, ontzian sartu eta Hendaian utzi zituzten.

Garai hura ere holakoa zen, Frantziako erlijio gerrak eta Euskal Herriko ifar-ekialdean kalbinisten itzal iraupenak, nere us-tez, zer ikusirik izan zuten arazo haietan.

Horregatik edo, askorentzat ez zen komeni Salazar y Frias inkisidorearen txostenak argitzen zuenaren hedakunderik. Orduko eliza katolikoari hobeto zetorkion neurri bateko sorginkeria kalbindarrekin nahasirik bezala agertzea; horrek ematen bai zion aukera eta bide errege Felipe II.ari, Vatikanoaren aurrean, inguru hauetako parrokiak Baionako Apezpikutegetik ken eta Iruñeko-
ra ekartzeko arrazoiak. Horregatik jarraitu zuten, eskualde haue-
tan, ondoko urteetan ere sor-
ginkerien salakuntzazko predi-
kuekin. Besteak beste, 1618. ur-
tea zehar Hondarribiko deitura
zeraman Fray Joan de Zigarroa
frantziskotarra ibili zen Baztango

herrietan barna, exortzista gisa,
sorginkeriak uxarzen.

Baina sorginkeriaz zerbait zehatz jakin duenak Caro Baroja-
ren lanetara jo beharra dauka.

Zalantzarik gabe esan neza-
ke, Julio Caro Baroja, gure iraga-
naren historia eta kultura ongien
ezagutzen zuen gizona genuela.

1995.urteko abuztuan joan
zaigu jakitun argia. Era hortako
gizon banaka horiek iker lanera-
ko berez izaten duten sena na-
barmen erakutsi zuen Juliok. Jite
onekoa bai zen bere izakera
zintzoa, gaur egun hain urri ema-
ten diren duintasunez bizi zen gi-
zon prestua, ustelkeriarik gabea
eta, hargatik une guzietan boron-
daterik hoberenakin bidezko eta
legezko zitzaionaren alde jartzen
zekiena. Egungo jakitunek hala
baliatzen dute bere izakera eta
lana.

Beraz, Hondarriabiatik agur
eta ohore bere irakaskintzogatik.
Hainbeste zor diogunok nekez
ahaztuko dugu. (G.B.)



SORKUNTZA

Poesia

ANA ISABEL ITURBE

Ez ninduen beldurtzen
ekaitzak
argi zorrotzez ikutzen
ninduenean,
ez ninduen itotzen
euriak
azalean hotzez
akabatzen ninduenean,
ez ninduen lotsatzen haizeak
bere beso ihartsuetan
biltzen ninduenean.

Begi sutuen aurrean
irmo jarraitzen nuen,
imaginazioaren bide gozoa
ukatzen nuen,
behin eta berriro, behin eta berriro.

Argiaren aurrean
ihesian jarraitzen nuen,
egiaren arrasto hura
hondoratzen nuen,
behin eta berriro, behin eta berriro.

Bihotz taupaden aurrean
harri gogor jarraitzen nuen,
orroe esplikagaitz haiek
bartzertzen nituen,
behin eta berriro, behin eta berriro.

Orain,
lurrak eta zeruak
elkarturik
barre egin didate.

Orain,
eguzki izpiaren laztanak
nire arima
kolorez margotu du.

Orain,
zu ikusi zaitut.

Zainetara igo zait odola,
aurpegiaren gorritasun nabaria
gorputz kiliken
gozameneraino.

Begietara joan zait suharra,
humelaren sakontasun
barruntatua,
poesia itzalen
urdintasuneraino.

Ahoraino hurbildu zait irria,
hitz bakarraren
dardara
behatz punten
bide nabarreraino.

Zaila dut aitortzea,
zaila dut ahaztea,
zaila dut idaztea,
zaila dut bi hitzez
esatea.

Erraxa zait aldegitia,
erraxa zait ixiltzea,
erraxa zait gordetzea,
erraxa zait bi begiez
adieraztea.

Gorroto dut sufritzea,
gorroto dut itotzea,
gorroto dut itxarotea,
gorroto dut bi malkoetan
espresatzea.

Nor naiz ni esateko
guzti hau egia den,
amets barrenetan murgiltzeko
eskubiderik badut,
nor zara zu erantzuteko
arrazoirik dudan,
arantzetik arantzera joateko
asmotan bazabiltza.

Nor da amodioa inposatzeko
bihotz bera garen,
ur murmurio berdina jarraitzeko
erabakia hartu ez badugu.

Agian,
pentsamendu ororen garbitasunak
islada berdinarean
aurpegi dira.

Beharbada,
hutsaren ostarte arteko urratua
gau malenkoniatsuaren
fruitu beroa izanen da.

Badaiteke,
egunen itzal argiak

landutako gogo hazien
izarrak izatea.

Begiak,
izotzean gorde ditut,
taupadak,
itsasmamu bihurtuz.

Masailaren gorriak,
hesietan lotu ditut,
ikarak,
zuritasunean galduz.

Hitz labainduak,
hotzean baretu ditut,
ezkutatutako zerua
euri laino bihurtuz.

Aitortzen dut,
ez dudala malkorik,
ez dudala bustirik,
inon isurtzeko.

Une batzutan ezezik...
gaurkoan bezala,
lau haizetara,
egia ukatzen didazunez.

Lau haizetara, bai!
usoak,
hegoak astintzen dituen
moduan,
itsasoaren zoruan.

Soinuak,
doinuak hartzen dituen
moduan,
haizearen kantuan.

Ixilak,
ahotsa bilatzen duen
moduan,
egiaren onduan.

Ez dut errekastoa
xikatzen ikusi nahi,
gorrotoak
amilduko ninduen eta.

Ez dut iguzkia
akitzen ikusi nahi,
goibelak
blaituko ninduen eta.

Ez dut udaberria
ahitzen ikusi nahi,
urdinak
hitsez hobituko ninduen eta.

Errekastoa,
ur durdurio batean
biltzea nahi dut,
udaberriaren altzoan
iguzkia besarkatuz.

Urdina,
laino huts batean
gordetzea nahi dut,
hobiaren hotzean
ezereza zanpatuz.

Bada inork
ulertu ez arren,
gogoak airatzen duen
zerbait,
gorriaren kabian
gosea esnatzeko
gai,
zure eta nire
bor-bor indarra,
nire eta zure
bihotz danbarra,
urdinak estaltzerik
ez du,
ixilaren ardarez.

Aide lehorrak idortzerik
ez du,
hutsaren bitartez.

Goibelak blaitzerik
ez du,
lainoaren desairez.

Zeruaren eztanda gorriaren
zain banaukazu;

Arima biren besarkada
jaiotzera badoa,
lurraren ernetzea.

Ezpain biren muxukatzea
badator,
ahapaldiz, ahapaldi(z).

Gorputz biren estaltzea
haragitzera badoa,
biziaren pindar.

Bizia zu zarelako,
nire bizia.
Haragia ni naizelako,
zure haragia.
Ernetzea gu garelako
bi hazi.

Ezin duelako inork,
bi argi itzali
eta iluna sortu.
Ezin duelako inork,
nire barrua aldatu
eta beste bat sortu.

Ezin duelako inork,
zure egia ahastu,
eta bidea aldatu.

Zure begietan bizi
nahi bait dut,
eta zure ederra
haize beroetan kiskali.

Zure begietan bizi
nahi bait dut,
eta egunaren garratza
aise bidali.

Bizia delako eta
amodioa amodio,
poesian gozatuz,
hitza askatuz.

Bi bihotz

USARRABI

1

Loretan daude sasiak
haranak txuriz jantziak,
erleak urrez josiak.
Eliz dorreko gailurrerian
zikoinak lasai jauziak.
Enararen garraisiak
txorrotxio horma-txoriak,
eltxoen ehiztariak.

2

Errekarako bideska,
eguzki galgaren kezka,
oinez mutil eta neska
Ertzetan zuhaitz eta sastraka,
sargoriaren galdezka,
osto soinua oleska,
haize finari ezezka,
eta alboan erreka.

3

Belazetan dena musker,
kanta aspertuan kilker,
doinu bera, mila bider,
Txoko txokoan itzal gozoan
isil-konturako eder,
abaro onenaren bazter,
egonean ezin asper
eta urrutian galeper.

4

Osto adarren dardara,
txori jolasen algara
hego aizearen patxara.
Behatz tartean urduri eta
biotzean zer ikara.
Esku txurien balada
hitz aspertuen ilada,
amodioaren aldaba.

5

Hitz ederrena ixila
amodioen ezkila,
bi bihotzetan dabila.
Inguruetan zelai berdetan
kanta aspertuan kirkila,
esanahiak dira mila,
bata bestearen bila,
Ixila mintza dadila.

6

Ondorengo ilunabarra,
maitearen deiadarra,
nahi eta ezinaren marmara,
Begiak piztu, eguzkia itzal
ase ezinezko indarra,
bat bestearen beharra,
barneko su eta garra
Ama-lurraren aparra.

7

Begira hor goiko hodeia
izarren arteko leia,
Joseba eta Mireia.
Begi galduak, elkar bilduak
lilura hutsezko deia.
Ametsak eta ideiak;
asma ezinezko adeiak,
kimu berrien ezteiak.

Eskuartean zaitut, “Biotz Begietan”

OTSALAR

Eskuartean zaitut,
“Biotz begietan”,
etsi ezinikan.
Bizitza laburrerazia duen
mitxeletaren gisa,
eskuartean zaitut,
oso maiteki.
Zure orri leunen barna
ezti beharrez
maiz abiatzen naizelarik.

Ekaitzak etendako egunsentia
irudiz,
eskuartean zaitut.
Zure leihotik ikusten dudan soroak,
hasi orduko suntsitu zen harrobia
edo emaitzak galdutako meategia
irudi.

Kantu eraileak, harro;
zu hondatzeagatik.
Maltzur, maltzur, beti maltzur!
beren izakiz.
Orain, zorionez,
eskuartean zaitut,
minezko kanta hotsa ixuriz
urteen zurrumurrutik.

Marmari gozoz ari zera
asaba zaharren baratzean
eguna gau bihurtzeko beldur,
oroitzapena iraun nahirik.
Eskuartean zaitut,
kantu atal gogoangarrien kabi zeran
"Biotz begietan".

Lizardiri

OTSALAR

*Zigor ontaz, Uda, ba'al-duk aterpe?
Ara zuzen nazak, luzatu-gabe!*

Olerkarien maisutzat dugu
euskaldun denok Lizardi,
gogo-minaren barrutietan
zelako nagusi aspaldi.
Parnaso bila dabilen bat naiz,
opatus zure goraldi,
eskainiz nator hil ez dadian
sekula ama Euskadi.

Herio maltzuraren erpetan
zentzua zuen gorputza,
kantuz edertzen ari zelarik
asaba zaharren baratza,
estaldu zuen udaberriak
gainera jaurtiz lur hotza,
atsekabe handiz utzirik hemen
euskaldunaren bihotza.

Barne-muinetik hain maitagarri
zuen mintzaira jatorra;
lanpide hori gerokoontzat
ez ahal ote dugu zorra?
Negar zotina adiaraziz

*Sarritan diot:
Noiz arte?
Zentarako?*

Ederra zara baina geldiegia
Azkarra zara baina ez dotorea
Barregarria zara baina potolaegia
Itxura ona duzu baina...
orain, ez zaitugu behar!

Ez dut nahi, ama,

*irririk ez duen barbarik
dantzatu ezin den urratsik
usaindu ezin den larrosarik*

Ez dut nahi, ama,

*belar horitutako zelairik
lurruna galdu duen hats hotzik
bustitzen ez duen euririk*

Ez dut nahi, ama,

*egun gris ilunik
izarrik bako gaberik
ametsik bako arratsik*

*Hazi egin nahi dut, ama,
baina ez zahartzerik.*

Zuk ere zure bihotza aldatu nahi duzu?

Hegan ari nintzela

HONDARRIBI

Hegan ari nintzela zirudien
goizean goiz zure magalera
ene burutxo ezartzean.
Orduak igarotzea atsegin
nuen,

eta orain damu NAIZ.

Bizitzak ongiegi tratatu
ninduen garai haietan,
gozoegi zirikatzen ninduen
ohartarazteko gauza guztiek
bere bukaera badutela,

eta orain DAMU naiz.

Gehienezko momentuetan
bizitzak ongi prestatutako
oparia baizik ez zela pentsatu
izan nuen,

eta ORAIN damu naiz.

Pentsamendu honen erruz
nere bizia beste erara moldatu
izana gorrotatzen dut, gizakia
bizia birmoldatzearen etsaia
baita,

ETA orain damu naiz.

Gogoetak dira zauri hau
gehiegitzen duten arauak
bizitza zu gabe beste erara
moldatzearen pentsamenduak
gogorregiak dira,
eta ORAIN damu naiz.

Bizitza, ongi bukatzen
deneko filme horren antzera
dela erakusten digute.

Gu geu geroago

konturatuz bizitza ordu erdiko
telesail bat besterik ez dela,
bihar jarraipena duen telesailaren
antzera, edota bihar bukatzen
den telesailaren antzera,
eta orain DAMU naiz.

Kaiolan dagoen txoriaren antzera
zeundela esaten zenuen, aske
nahi zenuela, jakin gabe, ni neu
zurekin kaiolan nengoela,
eta orain damu NAIZ

ORAIN puzzle baten antzera sentitzen
naiz, non zu, galdutako pieza horren
sinbolo bat besterik ez zera,
ETA ORAIN GALDU ZAITUDALA
OrAiN Bal DaMu Naiz.

Ez itzuli

Zure aurpegi ilunaren
antzera, islada sortarazten
duen arrainaren antzera
zaudenean,

gogoko zaitut.

Itsasoak arraina behar duen
modura behar zaitut,
arrainak itsasoa behar duen
antzera,

BAT...

Maite duzun pertsonagatik
egunero itxarroteak
dakarren nekea,
askok nabari izan dugu,

itxarroteak,

BI...

Pertsona horretan zerbait
berri aurkitzeak garrantzi
haundia dauka, baina bilatzeak
daukan garrantzia haundiagoa da,

HIRU...

Noizbait, NOn nahi, Norekin,
Nondik, Noraino,

Norentzat,

LAU...

Urteak, hilabeteak, asteak,
egunak, orduak, segunduak.
Ez galdu. Harrapatzean ongi
gorde ezazu,

Zure barne,

BOST...

eta harrapatzen ez badut, zer?
Saia zaitetz berriro ere,
aske jaio den txoriaren antzera,

SEI...

Bihotza triste daukazula
nabari dut, harrapatzeko esan
nizun, harrapatzeko?
ZAZPI...

Kontseilu eskatzera zatoz
berriro ere,
EZIN Dut.
ZORTZI....

Existitzen ez zen amodio
baten esklabu bihurtu
ninduzun,
BEDERATZI...

Zu lagun nauzu. Nik maitale
nahi zaitut,
HAMAR...

HAMAR, bederatzi,ZORTZI,
zazpi, SEI, bost, LAU,
hiru, BI, bat...

Ez itzuli.

Bihozkadak

DZANGA! TALDEA

YOLANDA ARRIETA

Jeneroen nahasketa edo mestizaia omen da mende honen bukaerako berezitasun bat.

Bihozkada berbera izan zuten, duela hiru urte, sei emakumek, elkarrekin lan egitea erabaki zutenean: Ainhoa Almandoz, Amaia Cuende, Izaskun Lopetegi, Nagore Orbelzu eta Elene Sustatxa ziren aktoresak. Jasone Alba, dantza irakaslea. Yolanda Arrieta, idazlea.

Ez zekiten, orduan, abentura hartatik zer aterako zen. Ametsa zuten gogoko. Antzerkia, dantza eta poesia uztartzeko desioa. Eta pauso hori euskaraz emateko nahia. Besterik ez. Hortixek taldearen izena: DZANGA! Murgilketa, alegia.

Bidean garbiketa, mozketa, aldaketa eta moldaketa ugari: Unean uneko beharrei egokitu behar! Azkenean, zati homogeen bat: *Gaztetasuna*, lau lagun neraberen freskotasun, injenuitate eta ametsak biltzen dituena. Bigarrenari heltzeko ordua da: *Berraurkitzeak*: Lagun nerabeak emakume gazte bihurtu dira. Garraztasun ikuturen bat edo beste, umorea eta, errealitateari buruzko ironia-zertzeladak. Hirugarrena: *Ausnarketak*: Emakume gazteak heldutasun bidean. Ametsa, umorea eta ironia erreflexio bihurtu dira.

Hiru atalok bilduta dator *BIHOZKADAK* dantza-antzerki-poesia emanaldia; estetika sinple, adierazkor batez amestera, ausnartzera eta, batez ere, bihotzak bero eustera gonbidatzen gaituen lana.

***Bizitza itsasoa bailitzen
murgildu gara ur txikietan***

-oraindik gazteak baikara-

***bihotza lema
burua bela
oinak untzi
besoak arraun
hartuta***

***bidaia propioa egin eta
eskaini guran.***

-I- GAZTETASUNA

Denboraren joanak eraginda, agian,
 pauso desberdina bilatu nahirik, behar bada,
 esanahi berria asmatu guran, akaso...

DZANGA!

murgildu ginen lanean

Eta irria iritsi zen hasieran
 eta beroa, jarraian...
 soineko berri bat azkenean:

Hamar: Berriz mar-mar?

Auskalo noren

zeinen

zeren

izenean.

Acaso movidas por el paso del tiempo
 quizás con ganas de buscar un paso desconocido
 tal vez con deseos de inventar un sentido nuevo

DZANGA!

nos zambullimos en el trabajo

Y llegó la risa al principio
 y el calor la siguió después...
 un vestido nuevo apareció al final:

Hamar: Berriz mar-mar ?

Vete a saber en nombre de quién

cual

qué

realidad.

Mundu ertzeko bazter batean jαιο nintzen
duela pare bat hamarkada,
gutxigorabehera.

Amak titia,
aitak agindua,
amonak hitza eta,
aitonak aholkua.
Lagunek irakatsi zidaten
lehen gezurra
lehen musua
lehen egia
lehen aurpegikoa.

Kalea izan nuen eskola eta
eskolan aurkitu nuen zalantza:

lehen protesta: Ama, ez dut nahi!

lehen galdera. Hamar: berriz mar-mar?

Karrera
lana
bideak...

Ikasi egin behar nuen zerbait!
Nik ez jakin zer:

Non dago ametsa?

Pelikula batean aurkitu nuen izpi bat:

Ez egun gris ilunik
ez izarrik bako gaberik
ez ametsik bako arratsik...

Lagunen txokolatada hartan, beste dir-dir bat:

Bat	Praketan krak!
Bi	Nor ote ni?
Hiru	Aitonak diru?
Lau	Katuak miau!

*Hazten jarraitu nuen gero,
ez gehiegi,
zalantza eta ezjakintasun artean.*

*Negua uda,
udak negua,
eguzki berriaz egin nuen aukera:*

Komediante izango naiz.
Edo artista?

*Eskola, ametsak eta lana...
Non lana:*

Emakume asko zarete
onak bai, baino asko.
Lan egin behar duzue,
asko-asko eta gehiago!

Sarritan diot:
Noiz arte?
Zertarako?

Ederra zara baina geldiegia
Azkarra zara baina ez dotorea
Barregarria zara baina potolaegia
Itxura ona duzu baina...
orain, ez zaitugu behar!

Ez dut nahi, ama,

*irrik ez duen berbarik
dantzatu ezin den urratsik
usaindu ezin den larrosarik*

Ez dut nahi, ama,

*belar horitutako zelairik
lurruna galdu duen hats hotzik
bustitzen ez duen euririk*

Ez dut nahi, ama,

*egun gris ilunik
izarrik bako gabarik
ametsik bako arratsik*

*Hazi egin nahi dut, ama,
baina ez zahartzerik.*

Zuk ere zure bihotza aldatu nahi duzu?

*Txiribindon, txiribindan,
txiribindon, din-dan!*

*Gaztelupeko tontor gainean
ttirritta bekaiztia kantaketetan
Txiribindon, txiribindan,
txiribindon din-dan!*

*Mondarraineko erreka ertzean,
din-dan, boieran,
ahate zuri-beltzak jostaketetan
Pa-pa-pa-pa, ja-ja-ja-ja!*

Irudimena eta errealitatea nahasten dituzu
esaten didazu zuk askotan
baina nik badakit bien arteko muga bereizten,
egitan.

Nik ere badakit bien arteko muga bereizten,
benetan.

*Harkaitz zuloko sastar artean
astar-azkar-lartzan-prrast!
gezur lodiak salda berotan
bor-bor, bar-bar, parrrast!*

*Zuen aurrean, gertutikitan,
egia anitz kantaketetan...*

Hitzari
esanahi berria
oinari
pauso desberdina
irriari
asmo ezezaguna
begiari
toki irekia
bilatzea nahi al duzue?

Sssssssssss
haize hotsa leiho ertzean
Sssssssssss
sahats saskarra setatsu ibaian
Sssssssssss
sorgin satsua samin mendian
Sssssssssss
mamu handia dzanga! zuloan

Sssssssssss
argi xaflla su gori-goritan
Sssssssssss
haurra xurgatzen titi goxotan
Sssssssssss
laztan txikia xalo sehaskan
Sssssssssss
sosesu samurrez lo-lo ixilean.

II - BERRAURKITZEAK-

Kaixo!
Ejem...

*Ba al dago inor?
Sartu al daiteke?
Bai...?
Barka, baina...*

Pasa, pasa!

Epa!

Aurrera, aurrera!

Sartu al daiteke?

Bai, bi. Bi gaude!

Bai...?

Sartu, sartu!
Aurrera, aurrera!

Ba al dago inor?

Hiru!
Hiru gaude!

*Epa!
Sartu al naiteke?
Kaixo!*

Aurrera!
Ekarri! Ekarri! Ekarri!

*Epa!
Kaixo!
Ejem...
Sartu al daiteke?
Barka, baina...*

Emango? Emango? Emango?

Zatozte!

...Ejem...

Eta... zer moduz?
Zer egin duzue?
Non egon zarete?

Non zinen?
Non ginen?

Ni?

Gu?

Goazen!

Non?

Zer?

Nola?

Zergatik?

Gora!

...Ejem...

...Ejem...

Zer egin duzu?
Non egon zara?

Eta zu?

Eta zuek?

Goazen!

Non?

Zer?

Nola?

Zergatik?

Gora!

**Bizkor!
Goazen!**

Gauean

Goizean

Eguerdiari

**Bizkor!
Goazen!**

Bostetan

Zazpietan

Lauretan

**Bizkor!
Goazen!**

Hemen

Hor

Han

Ezkerrera

Eskubira

**Bizkor!
Goazen!**

Zer ordu da?

Zazpiak

Non?

Hemen

Noiz?

Bostetan

**Bizkor!
Goazen!**

Badakizue?

Beti amestu izan dudana aukera iritsi zait.
Atal berri batek jo du nire bizitzeko atea.
Kasualitatez, baina hala izan da.
Dei bat, hitz bat eta lanik onena esku artean.

Badakizue?

Bien Sur!
Je le sais, je le sais bien!

Mesdames et messieurs,
zuen aurrean...

CABARET berritua!

Marrubi gorria zure ezpainetan
Caribeko hondartza nire lepoan
oina, belauna eta iztarra...
goraxio...
gorago...
Belengo txabola.

Zatoz, zire ondora,
erdu besoetara
zatoz morrosko, nire morroskoa!
Zatoz nire ondora,
izaren txokora
zatoz morrosko nire ohera!

Eta maitasuna?

Eta maitasuna?

Eta maitasuna?

Non dago maitasuna?

Non?

Non?

Maitasuna bihotzean dago
Maitasuna... Garra...!
Maitasuna... Eguneroko ogia...
Maitasuna... Buru eta bihotzaren arteko gatazka!
Igande bihurtzen dit asteguna
Mugagabetasun... helduezina!
Lapur handia...
Ez dit niri bi hilabete baino irauten
Non dago?

Eta gizonak?

Gizonak alde guztietan daude, emakumeak bezalaxe

A, bai?

Ba hemen, ez-

*Ez al zaizkizue kili-kiliak gustatzen?
Ez al duzue musurik atsegin?*

Niri musuek beldurra ematen didate...

Niri poza

Niri dardara

Musuak...

Ilargia bezalakoak

Txokolatea bezalakoak

Limoi ura azukrearekin bezalakoak

Odol tantak bezalakoak

Musuak...

Irristakorrak

Nazkagarriak

Goxoak

Bustiak

*Gero arte!
Mua!
Gabon!
Gehiagorik ez!
Maitia...!
Emaidazu bat!
Aj!
Hum!*

**Eusko Jaurlaritzak ehun mila miloi euskal aktoreentzako
Barbie, super Star!
Metrailetak txorixo pintxo baten ordez, Txetxeniako kaleetan
Ume ruandarrak Donostian, tren txu-txuan**

**Zazpirehun enpresa berri Gipuzkoan, 2.000. urtean
Txernobilgo erreketan arrainak greban
FOLLA-FAX! Azkar eta seguru!
Inuzente eguna gaur ere? hiritarren ahoetan.**

Maite izateak ama egin nau

A, bai?

*Ama izatea bizitza ematea da
Ama izatea bizitza sortzea da
Ama izatea bizitza luzatzea da*

Maite izateak ama egin nau

Ene!
Horrelakorik!
Ez nuen uste!

Bai ondo!

Ene!
Horrelakorik!
Ez nuen uste!

Oparo!

Ene!
Horrelakorik!
Ez nuen uste!

Bai ondo!

Ene!
Horrelakorik!
Ez nuen uste!
Oparo!

Berriro!
Ez! Horrela ez!
Eskubira!
Ezkerrera!
Ez! Horrela ez!
Poza! Poza!! Poza!!!
Oraintxe!
Ez!
Berriro!
Poza! Poza!! Poza!!!
Oraintxe!
Gehiago! Gehiago!! Gehiago!!!
Faltsua!

Antzerkia...
Zuzendariak...
Bizitza beste zerbait da:

Zatozte, zatozte mundura
zatozte, zatozte nirekin.

Ez!
Ez zen egia ezer
Gezurra
Pantomima
Ez!
Ez dut ezer. Ez dut inor. Ez naiz ezer.
Gezurra!

Errealitatea eta irudimena nahasten dituzu
esaten didazu zuk, askotan
baina nik badakit bien arteko muga bereizten
egitan.

Nik ez dakit bien arteko muga bereizten,
benetan.

Zatoz, zatoz gurekin,
zatoz, mundura...

Ez al duzue, zuek ere, zuen bihotza aldatu nahi?
Eta bihar?
eta etzi?
eta hurrengoan?

Ez al duzue, zuek ere, zuen bihotza aldatu nahi?
Eta bihar?
eta etzi?
eta hurrengoan?

Ez al duzue, zuek ere, zuen bihotza aldatu nahi?
Eta bihar?
eta etzi?
eta hurrengoan?

III- AUSNARKETAK-

**Aldenduz alderatu nahi dut
urrun
zerk lotzen nauen ahazteko**

Loratu
Erotu
Oratu

Izorratu!

Iziotu
Osatu
Esposatu

Nor?

Dantzatu
Jolastu
Esnatu

Izorratu!

Loditu
Orditu
Erditu

Nork?

Gorria, urdina, berdea, beltza...

Arrosaren pasio gardena izan ote zen erruduna?
Ala pasio ezkutuko hura iragarritz
arrosa gorria oparitu zidan gizon traxe-urdin hura?

Demagun izarraren puntak uretan
egindako zuloa bezalakoa eragin zidala bihotzean
fin-fina, sarkorra, zorrotza, gorria, zazt!
gizon traxe-urdin, zapata-berde hark...

Demagun, orduan, malkoak erreka bihurtuta,
itsaso urdinean murgildu nintzela gau beltz erdian

Bai?

Baina ez
Demagun dena dela irudipena
eta erreka ura ez dela urdina
ezta itsasoarena ere

Grisa
Demagun grisa dela
Euria dakarten hodeien kolore berekoa
Zu gabeko nire egunak bezalakoxea

Demagun hori
Nor da, orduan, erruduna?

Tentetu
Tontotu
Atondu

Izorratu!

Sosegatu
Serenatu
Zoratu

Nor?

Koskortu
Kuskurtu
Kikildu

Izorratu!

Sikatu
Itzaldu
Itzeldu

Nor?

Piztu
Poztu
Puztu

Nor?

*Itsasoan murgildu nahi nuke zurekin
gizon-andra, maite-gorrotorik gabe
Uhin handi baten **dzanga!** eta galdu...
sakon, busti, leun eta
libre...*

Goizez gorria
gavez gorria
Begiak zabal
gorputza erne!

Dotorea..., ezitia..., tentadorea...

Titiak tente
irria prest!

Kenduidazu soineko hau, mesedez,
ez naiz zure panpin panpoxa
Kenduidazu maskara hau, mesedez,
ez naiz zure pinpilinpauxa!

Bare dago, beldur noa
oinek hondarra galduko ote duten
Bare dago, beldur noa
arrainak hozka hasiko ote diren
Bare dago, beldur noa
hodei ertzean inor ba ote den
Bare dago, beldur noa
itzultzerik ez ote dagoen

*Lapurrak sartu dira
gurean:
ezin ostu ixiltasuna*

*Ixo0000!
Ixiltasuna da gure lagun bakarra
Kontuz! Ixo!
Ez zaitzatela harrapa!
Ixo0000!
Ixiltasunak irekiko dizkigu ate guztiak
Ixo0000!
Ixiltasuna da gure giltza*

*Nire pentsamenduek ez dute atsedetik
harantz, honatz,
beti ihardunean*

*Baina egia geldi,
ixilik dago
gure barruan*

*Arima ahitua
Pisua...
Nekea...*

*Narraz...
Huts...
Lo...*

Zergatik barre?
 Zergatik garrasi?
 Zergatik plantak egin?
 Zergatik negar?

Zergatik eguzkia itzali
 eta txoriak ihesi?
 Zergatik begiak hilda
 eta haurrak negarrez?

Zergatik ez didazu ur pixkat ematen
 edo ogi zati bat zure etxean?

Zergatik daude zure begiak hutsik
 begirada otso
 eta eskuak hotz eta itxiak

Zergatik begiratzen didazu ezer esan gabe
 Zergatik atzerantz
 eta ez aurrerantz?

Zergatik ari zara gezurretan?

Zergatik ez duzu zeuk amaitzen
 guda zerri hau halako batean?

Zergatik barre?
 Zergatik garrasi?
 Zergatik plantak egin?
 Zergatik negar?

Sola, sola... me siento sola
mi amor está tan lejos...
que me siento sola

*Eta egun berri bat agertuko da, orduan
eta zure ondoan jango dut
eta zure ondoan etzango naiz*

Sola, sola... me siento sola...

¿A qué quieres jugar?
¿Quieres jugar con mis sentimientos?

Me siento sola, sola...

**Maitia nun zira,
Nik ez zütüt ikhusten,
Ez berririk jakiten:
Nurat galdu zira?**

**Korrikalari nekazina
bakardadea:
beti atzetik, gertu-gertu**

Ni señora bat nintzen, gero!
arima lehortu baino lehenago

Orain,
hutsa besterik ez naiz, baina...
Zer arraiio!

Aita
funerariak eraman zidan
ama ez den ama batek
hil zuelako

Anaia
trenak zapaldu zidan
gerra zikin batek
deitu zuelako

Laguna
kabaretera batek ostu zidan
ni komedianta txiki bat baino
ez nintzelako

Etxeak
lurra jo zidan
itsaso grisak gainezka
egin zuelako

Nola ez dut negarrik egingo, bada?

Baina nik
badakit irudimena eta errealitatea ez nahasten,
ama

badakit mar-mar-a eta dir-dir-a bereizten,
ama

badakit bihotza bero eusten,
ama

Eta zuk...?

*Bizitza itsasoa bailitzen
murgildu gara ur txikietan*

-oraindik gazteak baikara-

*bihotza lema
burua bela
oinak untzi
besoak arraun
hartuta*

*bidaia propia egin eta
eskaini guran*



Altxorra

LUIS MARI MUJICA

Joanes Petrirenak egunkari-paperetan bilduriko otartekoa atera zuen. Ogixerra zurian urdai errea, tomate-mutur bi eta negua bezainbateko gosea zeuden pilaturik. Arratsalde hartan, gutienez, Joanesek bazuen zer jatekorik beste anitzetan ez gisa. Patrikatik kanibeta aterata, tomatea zatikatzen hasi zen.

Joanes Petrirenak besagainak, soroko txorimaloak bezala, behe-runtz amilduta zeuzkan; besoak aitzinera ganoragabe erortzen zitzaizkion, bizkarreko konkordura nabarmenagoa eginez. Zango luzetan panazko galtzak zituen baldanki, kaskoan kapelu beltza, eta, noiz-noiz ere, euskaldunen erara txapela galanta.

Kapelua eraztean bere burua bola bat bezain zuri azaltzen zen. "*Limosnatxo bat Jainkoaren izenean*" esan ohi zuen umil eskea egite-rakoan eta, ondoren, *aitagure* bat erreztatzen euskaraz atarietan.

Hirira joatean, ordea, Joanes Petrirena prestuago jartzen zen. Kapelu zuria jazten zuen; ez zuen zakurrik eramaten; ezta *aitagurerik* erreztatzen.

Baserrietan Joanes Petrirenari artakoskolak, ogi-muturrak, tomate eta arbi-buruak ematen zizkioten. Kale-etxetan, aldiz, *txakur handi* eta *txakur txiki* txanponak.

Joanes Petrirenak behar hainbat ez zuela bildu pentsatzen zue-nean iluntzetan artasoro eta ortuetako artakoskolak, tipulak, patatak eta beste ohosten zituen.

Igarolako Tomasak bazekien Joanes Petrirenak, azteazkenetan, bere baratzetik tomateak lapurtuko zizkiola. Andereak, halere, ezjakinarena egiten zuen errukia ziolako. Oraindik orain, astelehenean ogia eskatu zionean, Tomasak opilari urdai-mutur bat erantsi zion. Une

hartan Tomasak bere gurasoei ere baserria erre zitzaienean nolako mixeria suertatu zitzairen pentsatu zuen.

Joanes Petrirena, eskale gehienak bezala, alferra zen. Janari sobera zuenean ez zuen eskean egiten. *Txupi* txakurra alboan zuelarik, zubipean gelditzen zen. Han amuarrainak, zarboak, ezkailuak, karra-marroak eta abar harrapatzen zituen. Alboko ikuilutatik lapurturiko lastoaz lastaira taxutzen zuen lo egiteko. Joanes Petrirenak, dena den, errefrau zaharreko "zakur goseak ezkurak amets" esakunaren arabera, On Matias jauntxoaren jauregiko bitxiak eta ondasunak desira zituen biziki. On Matias Albarorena bere aitaren oinetxe izanikoaren nagusi berria zen.

Joanes Petrirena oroitzen zen Indurain herriskan aita indianoak zenbat ondasun ukan zituen. Oinetxe hartako ogasun guztiak, ordea, berak zorrez xahutu zituen. Aita hiltzean Joanesek oinetxea saldu egin behar izan zion On Matiasi zorrak kitatzeko. Orain amets zituen egun bateko bere etxeko ohe gurie gortinadunak, zaldi-zela urrezkoz hornituriko ikuiluak, gari-ale oparoz beteriko mandio eta bihitegiak. Orobat, desirazko zituen jantokiko ontzien urre eta zilar-diztirak, eskaratzeko kutxa dotoreak eta apaletako konkil, platera eta kikara ederrak (irudi bitxiz margotuak).

Orduan bizia esne-zuritan dastatzen zuen, eta erantzukizunik gabe parrastatzen ondasunak. Orain, berriz, eskale-zorria zen, oinetxe hain aberatsaren oroia baino ez zuena, maleruski.

Jauregiko ganbaran Joanes Petrirenak ezagutu zuen zerraldo baten itxura zuen kutxa. Gurasoek han gordetzen zituzten gortina urrezkoak, perleriaz hornituriko jazkiak, Ameriketatik ekarritako urrin gozoko fraskoak, eta abar. Baita Ama Birjina Irantzukoaren irudi arras baliozkoa, amonak neskata zenean erabilitako kotoiezko gonak, amari heriotze-egunean hil-kutxatik kenduriko harribitxizko eraztuna eta errosarioa, eta, orobat, lore zimelez inguratutako arreba gazte hilaren argazkia. Leinu handikoak izan ziren, bai, Petrirenatarrak.

Orain, aldiz, Joanes ez zen bere bizkar gainean zeraman zakutoaren eta urritzezko esku-makilaren jabe urria baino, *Txupi* txakur leiala ondoan zuela.

Txakurra ez zen doverman bat, ezta alemaniar artzainen kastakoa askoz arrote eta umilagoa baizik; gorputzez txaparroa eta ile bakanekoa, arratoi-itxura deitoragarri.

Bai Joanesek, eta bai txakurrak, erren egiten zuten; izan ere, uda

sorgintsu batean, gurdi baten pean lo zegitenean, gurdi-gurpilak hanka harrapatu zien. Haiek aienak txakurrarenak!

Joanesez animalia, hanka elbarritu zitzaionetik, areago maite zuen. Joanesez *Txupiri* bere ardotik edaten eman ohi, zion. Likidoa esku-ahurretara botatzen zion -edalontzira bailitzan- eta txakurrak, eskerrak eman guraz, zaunkatxoak egiten nagusiaren hanka elbarritua, aldi berean, milikatuz. Eskolako mutilek, aldiz, arratoi-itxura zuelako, *Txupiri* harriak botatzen zizkioten.

Arratsalde batzutan, Joanesez *Txupirekin* errekan arratoiak harra-patzen zituen. Txakurra kaineria ondoetan, katua zelatan bezala, arratoia noiz irtengo zain egon ohi zen; ikusi-hala, atzaparez heltzen zituen, eta Joanesez zubipean sua egiten arratoiari azala, burua, sabela eta beste hondakinak kenduz; beste zatiez jaki gozoa prestatzen zuen. *Txupik*, aldiz, arratoiaren burua eta hezurak gogara jaten zituen. Eskolauek, zubipean sua zegoela antzematean, berehala esaten zuten:

— Gaur ere Joanes eskaleak arratoi-bazkaria dik.

Baziren, ordea, Joanesez bekaitza eta ezinemana ziotenak eta goardia zibilei deitzen zietenak.

— Joanes, gaur zer ohostu duk? -esan zion zakar bekainetan ile sarria zuen goardiak.

— Ohostu nik ? -ihardesten zuen begiak biziki zabalduz.

— Noski, ohostu ! Erenegun tipulak eta tomateak jaten ikusi hinduten, eta baita oilakia.

— Ni oilakia jaten?

— Ez ezak disimula...

Joanesez haragi-xerra mehe eta luzeska batzuk erakutsi zizkion goardiari "*Ikus ezazu!*" erantsiz. Goardia ohartu zen xerra haiek ez zirela ez oilakiz, ez zerrikiz, ez zekorkiz eginak.

— Arratsean harrapatu dituk arratoiak presa ondoko kainerian. Sinets ezazu!

Txupi txakurrak hortz zorrotza sartzen zien hezurtxoei. Hura triskantza animalia hortzena! *Txupi*, halere, izutia zen, eta beldurra zien txarol beltzezko kapeluz jantziriko goardiei, kartutxoak zintzilik baitzituzten gerritik. *Txupik* ikusiak zituen beste txakur-lagunak goardien eskupetez bide ertzetan hilda. Hori dela-eta, txakurra errekatik

bestaldeko zumetan ezkutatu ohi zen goardiak joan arte. *Txupik* begi izuz ikusten zituen azeituna kolorezko gizon haiek.

Dena den, txakurrak sumatu zuen egun hartan goardiak umore onean zeudela, eta bere nagusia, egun batzutan bederen, ez zutela herritik kanpo botako. Tomasak, gainera, tomate gordina eta litroerdi esne ekarriko zizkion gaua igarotzeko. Joanesek *Txupiri* ogi kozkorrak tomatean igurtzirik emanen zizkion gaueko hotzari aurre hobe egitearren.

Azaroa heltzen zeneko, Joanes eta *Txupi* hegoaldera, hots, Erriberako lur epelagoetara, *erdararen* lurretara, jaisten ziren. Han, Erriberan, mutilak harritu egiten ziren *Txupik* gaztelania ulertzen ez zuelako.

— “¡Pero este perro es tonto! Le dices “toma” y no te entiende. Le llamas “chucho, ven acá” y no te hace caso” esaten zuten.

Horrelakoetan Joanesek *euskarara* itzultzen zizkion txakurrari mutilen esanak, hau da, “*Hago hor*”, “*Hator aguro*”, “*Hartu ogia*” eta gisakoak. Caparrosokoek uste zutenez, Joanes Petrirena alemaniarra zen txakurrarekin hizkera arrotz eta gaitzean mintzatzen zelako.

Nafar *koko* haiek ez zuten *euskararik* sekulan entzun.

Martxoko goiz batean, kainaberetan harrapaturiko bi arratoi urretenean jaten ari zirenean, erregadiozko urak askatu zituzten, bapatean. Urak uholdeka eta trumilka etorri ziren eskaleak zuen oro berarekin bultzatu eta eramanez. Joanesek “*Txupi, Txupi!*” oihu egin zuen, baina berandu zen; uraren indarrez animalia beheko kanalean desagertu zen. Joanesek negar egin zuen bere burua bakarrik ikustean. Handik aurrera inork ez zizkion hankak milikatuko, isatsaz lazta-nak belaunetan eginen, ezta erretenetatik arratoiak hortzetan ekarriko.

Joanes kilometrotan hedatzen ziren meloi-soro eta arto-alorretara beha gelditu zen. Aurrerantzean zer eginen zuen adiskide hain leial, umil eta sufriturik gabe? Istantean burutik pasatu zitzaion “*Hobe diat gartzela baten itzalean nire hezurak usteltzea, harat-honat errati eta gosez ibiltzea baino*”, “*Txupi gabe malerusagoa nauk...*”.

Joanesek, alkandora erantzita, besapeko zorriak astiro kendu zituen saihetsean hatzekin azkura eginez. Aitzineko egunean harrapaturiko amuarraina jateak ere ez zion ilusio apartekorik egiten, nahiz eta mokadu gozoa izan. Bizitzak ez zuen, jada, ez bozkariorik, ez-eta xarmarik halako lagun ona galduta gero.

Ondoren, Joanesen buruan beste asmo gaitzago bat erne zen;

bizitzaz etsi-ezinez, bere burua presara botako zuen. Ez zuen beste aukerarik.

Joanes bere galtza handitan mugitu zen. Presaldera soegin zuen. Urtokia biziki handia zen; urak beltzak eta sakonak ziren. Izua sartu zitzaion hezurretaraino... Beste irtenbiderik ez ote zuen? Eguzkia azken aldiz galtsoroetan etzaten zen arratsaren xarma leunaz. Presara burua botatzeak izua sortu zion, prezeski... Ondoren, *“Egokiagoa diat ene hezurrekin gartzelan gelditzea harik eta Txupiren heriotza ahantzi arte”* pentsatu zuen. Ideia hura erosoagoa zitzaion, azkenean.

Patrika haztatu zuen baldarki pospolu-kaxa bilatuz. Joanes galtsoroko lasto-metara hurbildu zen; lasto-balak pilatuta zeuden. Haizea nondik zetorren kontu egin zuen. Poxpolua harri latz baten gainean urratu zuen, eta sugarra lastotara bota. Instantean, galtsoroan suzko mihi eta ke-mordo galanta igo zen. Galtsoroko jabea, berehala, sardea eskutan zuelarik, azaldu zen. Joanes han zegoen, suari so, tomate-xerra otartean jaten. Ondoren, goardiak ailegatu ziren:

— *¡Queda usted detenido! Durante un año quedará preso en la cárcel.*

Joanesen begiak *pozez* biztu ziren hura entzun orduko. Gutierrez, gartzelaren babesean jaki beroa, ohatze leuna eta kideen laguntasuna urte betez ukanen zituen.

Tuterako gartzela-leihotik gauez izar gordinak Ebroren kristaletan pizten ikusiko zituen. Ilusioak ortzeko kazkabarra lurrera gisa erori baziren ere, oroiak eta *Txupiren* maitasuna ez ziren inoiz itzaliko haren bihotzean .



ITZULPENAK

Alguns poetes són

LLUIS RODA

Alguns poetes són
Excessivament pessimistes.
Afirmant que la mètrica
Ja no interessa. Si llegissen.
Comprovarien que els diaris estan plens
D'anuncis per paraules.

Olerkari batzuk
Ezezkorregiak dira.
Metrikak axolarik
Ez duela baieztatzen dute.
Irakurriko balute, ikusiko
Lukete egunkariak hitz neurtuzko
Iragarkiz beterik daudela.

Són de paper, les flors de les aléxies.
 Enartaments amors, de poesia.
 Arruixant llirs, prevists, en la mirada.
 Dards, encalánt, les bragues que Diana ens
 Trau, desitjades, mostrant-les a l'esguard.
 Llaç que anuncia, las llavis, els eisams
 De mel, o el tast, humit de llenceries.
 Pétals, naixents, la vers dels antihelis.
 Lliça de llirs, antesi de sentits.

Paperezkoak dira alexien liliak.
 Maitasun lilura/r/tua da olertia.
 Ihintze liliak begiradan sortuak.
 Dardoak, dianak agerturiko galtzei,
 Begiradara ezkutuka, jarraian.
 Lakirioa, ezpanentzat ezti aberaska,
 Edo lentzeria, hezea, miezka agertzen dituen.
 Lili orriak sortzen antihelien bertsoan.
 Lili-leizea, zentzuen antesia.

Un bon poeta dedica temps a l'oració.
 Pagant religiosament al llibreter els llibres que li Deu.
 El Verb es féu es Carn, i habità entre nosaltres.
 Crec en la resurrecció dels mots, la vida eterna.
 Crec en el setit de les coses literals.
 Que el temps és perfect. Els pronoms,
 Inalterables. I no hi ha deus. Sols frases fetes.

Poeta onak oto/h/itzari astia eskaintzen dio.
 Z/Sor duenari zor dion zerga-txartela txintxo ordainduz.
 Hitza Haragi-iraina egin zen eta gurekin gelditu.
 Sinesten dut hi/l/tzen biztueran, bizitza hil/ez/korrean.
 Sinesten dut zentzu litera/tura/lean.
 Denbora burutuan. Izenorde
 Aldaezinetan. Deus ez da. Esa/n/erak baino ez.

D'amor, orbat, exerg de vós,
 Contra ma voluntat seré,
 Del vostres llavis gerds, record,
 Del mar de vostres ulls, esquers,
 Nauxer sense temenca, vaixell
 Emmaregat sense dretura,
 Que al vostre orgull, al vostre orc
 Esguard de farallons encalla,
 I com varec, de vós, m'aparta
 La parpella, sota la vostra
 Cella, o bé, la mea platja.

Maitez, itsu, zure inpronta,
 Gogoz aurka, izango naiz,
 Zure ezpain xamurretan, oroimen,
 Zure itsas begietan, lakirio,
 Bildurrik gabe timonel, untzi
 Zuzentza gabe itsasoratua,
 Zure harrotasunean, zure harroketako
 Orkoan jo duena
 Eta itsas-belarra legez zugandik urruntzen nau
 Zure betile beheko betazalak,
 Edo bestela, nire hondartzak.

Resta el teu nom
 Només
 A dintre meu
 Com un torn de paraules
 Obert
 Com un apunt
 Pres —el teu nom.

Zure izena dut
 Besterik ez
 Nire barnean,
 Hitz txanda bezala.
 Askatua,
 Irudia bezala
 Hartua —zure izena.

Itzulpena: Dani Salaberri

The oak of Guernica

WILLIAM WORDSWORTH (1770-1850)

OAK of Guernica! tree of holier power
Than that which in Dodona did enshrine
(So faith too fondly deem'd) a voice divine,
Heard from the depths of its aërial bower,
How canst thou flourish at this blighting hour?
What hope, what joy can sunshine bring to thee,
Or the soft breezes from th'Atlantic sea,
The dews of morn, or April's tender shower?
—Stroke merciful and welcome would that be
Which would extend thy branches on the ground,
If never more within their shady round
Those lofty-minded lawgivers shall meet,
Peasant and lord, in their appointed seat,
Guardians of Biscay's ancient liberty.

Gernikako arbola

Gernikako arbola! Jainkoen ahotsa
Bere baitatik zerion Dodonako arbola hura
(sutsuegi sinisten zutenen fedea)
baino indar sakratuagoduna,
adarrarteko sakontasunetik entzuna,
nolatan loratu zaitezke honelako une latzetan?
Zein esperantza, zer nolako poztasuna
ekar zaitzake eguzki dirdirak, Atlantiar itsasoko
haizatxo leunek, egunsentiko
ihintzak, edota apirileko eurijasa xamurrak?
—Fereka bihozbera eta abegikorra izango litzateke
zeure adarrak lurrera zabalduko lituzkena,
lege-emale goren horiek, nekazari eta jauntxo,
bakoitza izendatutako jezarlekuan,
Bizkaiko aintzinako askatasunaren jagole,
haien itzalaren bueltan
inoiz gehiago elkartuko ez balira.

Itzulpena: Migel Anjel Elkoroberezibar

Ars poetica

ARCHIBALD MACLEISH (1892-1982)

A POEM should be palpable and mute
As old medallions to the thumb

Dumb
As old medallions to the thumb

Silent as the sleeve-worm stone
Og casement ledges where the moss has grown—

A poem should be wordless
As the flight of birds

A poem should be motionless in time
As the moon climbs

Leaving, as the moon releases
Twig by twig yhe night-ebtangled trees,

Leaving, as the moon behind the winter leaves,
Memory by memory the mind—

A poem should be motionless in time
As the moon climbs

A poem should be equal to:
Not true

For all the history of grief
An empty doorway and a maple leaf

For love
The leaning grasses and two lights above the sea—

A poem should not mean
But be

POEMA BATEK ukigarria eta mutua behar du izan
Fruitu biribil baten gisan

Mintzogabe

Erpuruaren kontrako medailio zaharren pare

Isila, goroldiozko jantzia leiho inguruan

Harriak duen moduan

Poema batek hutsik behar du hitzez

Txorien hegaldia legez

Geldik behar du poema batek denboran

Ilargia dagoen bezala goran

Ihesi, ilargia neguko hostoen atzean,

Oroimena oroimenaren ondotik buruan

Geldik behar du poema batek denboran

Ilargia dagoen bezala goran

Poema batek beharko luke halakoa:

Egiarik gabekoa

Atsekabearen historia guztiarentzat

Atari hutsa eta astigarraren hostoa


Amodioarentzat

Makurtutako belarrak eta bi argien azpiko itsasoa

Poema batek ez luke behar esanahirik

Izana baizik

Itzulpena: Migel Anjel Elkoroberezibar



ADABAKIAK

Euskal literatur sorkuntza: 1995ean argitaratutako liburuen zerrenda

Oharrak:

1.— Parentesi artean ageri dena *Egunkarian* liburuaren berri eman zen lehen data da, edota, bestela, liburuaren berri erarik zabalenean eman zenekoa.

2.— D.A. agertzen denean, liburua Durangoko Azokan aurkeztu zela esan nahi da, eta *Egunkariak* azokari eskainitako gehigarrian eman zuela haren berri.

3.— (*) euskal idazle batek erdaraz argitaratutako liburua.

4.— (**) idazleak erdaraz idatzia izan arren beste ezein hizkuntzatan baino lehen euskaraz argitaratutako liburua.

1. Eleberria

— Ataño (Zapirain, Salbador): *Lotsaren iges*, Sendoa, Oiarzun, 1995 (95-IV-26).-

— Alberdi, Pedro: *Handitzen naizenean*, Alberdania, Irun, 1995 (95-IV-15).-

— Izagirre, Koldo: *Ez duk erraza, konpai!*, Susa, Zarautz, 1995, (95-VI-16).-

— Atxaga, Bernardo: *Zeru horiek*, Erein, Donostia, 1995 (95-VI-17).

— Mendiguren Elizegi, Xabier: *Bekatuaren itzala*, Euskaltzaindia / BBK, Bilbo, 1995 (95-VI-30) / Ibidem, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.).

—* Linazasoro, Abelin: *Axun*, Susa, Zarautz, 1995, (95-IX-28).

— Gereño, Xabier: *Huyendo del pasado*, Autoprodukzioa, Bilbo, 1995 (95-IX-29) (*).

— Urkizu, Patri: *Zoazte hemendik!*, Susa, Zarautz, 1995 (95-IX-30).

— Gorrindo, Karlos: *Amaren begietan*, Autoprodukzioa, Gernika, 1995 (95-XI-5).

— Alonso, Jon: *Katebegi galdua*, Susa, Zarautz, 1995 (D.A.).

- Arretxe, Jon: *Urrezko triangelua*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.).
- Haranburu-Altuna, Luis: *Auskalo, Luk*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.).
- Saizarbitoria, Ramon: *Hamai-ka pauso*, Erein, Donostia, 1995 (D.A.).
- Garzia, Juan: *Fadoa Coimbran*, Alberdania, Irun, 1995 (D.A.).
- Mujika, Luis Mari: *Udarbe eta Urtuella lekuko*, R & B, Donostia, 1995 (D.A.).
- Irazabalbeitia, Inaki: *Uda guztiak ezituk berdinak, Isi*, R & B, Donostia (D.A.).
- Zabaleta, Patxi: *Badena dena da*, Txalaparta, Tafalla, 1995 (D.A.).
- Iturralde, Joxemari: *Lau zaldun*, Erein —Milabidai saila—, Donostia, 1995 (95-VII-6).
- Xabier Galarreta: *Hamabi ipuin arabiar*, Marjinalia, Astigarraga, 1995 (95-VIII-8).
- Lertxundi, Anjel: *Piztiaren ize-na*, Alberdania, Irun, 1995 (95-XI-10, D.A.).
- Muñoz, Jokin: *Hausturak*, Alberdania, Irun, 1995 (D.A.).
- Arana, Aitor: *Ipuin ilunak*, R & B, Donostia, 1995 (D.A.).
- Del Olmo, Karlos: *Innis fodhla. Amonak kontatutako ipuin irlandarrak*, R & B, Donostia, 1995 (D.A.).
- Zubizarreta, Patxi: *Bihotzerre*, Elkar —Enbido Txikira saila—, Donostia, 1995 (D.A.).
- Jimenez, Edorta: *Hemen datzana da*, Elkar —Enbido Txikira saila—, Donostia, 1995 (D.A.).
- Etxeberria, Hasier: *Alajainetan*, Elkar —Enbido Txikira saila—, Donostia, 1995 (D.A.).
- Sastre, Pablo: *Kontratu*, Elkar —Enbido Txikira saila—, Donostia, 1995 (D.A.).
- Mendiguren Elizegi, Xabier: *Opor ezberdinak*, Elkar —Enbido Txikira saila—, Donostia, 1995 (D.A.).
- Cano, Harkaitz: *Radiobiografiak*, Elkar —Enbido Txikira saila—, Donostia, 1995 (D.A.).

2. Ipuina

- Hernandez Abaitua, Mikel: *Bazko arrautzak*, Elkar, Donostia, 1995 (95-V-9).
- Ameztoi, Koldo: *Apanize*, Oeil Sauvage, Baiona, 1995 (95-V-5).
- Iturbe, Arantxa: *Lehenago zen berandu*, Alberdania, Irun, 1995 (95-VI-15).
- Sarrionandia, Joseba: *Miopeak, bizikletak eta beste langabetu batzuk*, Erein —Milabidai saila—, Donostia, 1995 (95-VII-6).

- Mujika Iraola, Inazio: *Matriuska*, Erein —Milabidai saila—, Donostia, 1995 (D.A.).
- Biguri, Koldo: *Ezpatatz hil*, Erein, —Milabidai saila—, Donostia, 1995 (D.A.).
- Askoren artean (Pako Aristi, Itxaro Borda, Juan Garzia, Joan Mari Irigoien): *9508 Nazrazioak*, Egunkaria, Andoain, 1995 (D.A.).

3. Poesia

- Aurraitz (Aurre-Aprreiz, Balendin): *Egunen bidean*, Karmel, Euskalerriko Karmeldarrak, Markina, 1995 (95-Y-18).
- Garcia de Cortazar, Mirari: *Poesiaren magalean*, Bermingham, Donostia, 1995 (95-II-12).
- Anselmi, Luigi: *Una botella al mar*, Pamiela, Iruñea, 1995 (95-IV-4) (*).
- Zabaleta, Pello: *Bigarren bizia*, EHU, Leioa, 1995 (95-IV-12).
- Otamendi, Jose Luis: *Lur bat zure minari*, Susa, Zarautz, 1995 (95-VI-16).
- Garcia de Cortazar, Mirari: *Itzaleko hitzak*, Euskaltzaindia / BBK, Bilbo, 1995 (95-VI-30).
- Balentzia, Joakin: *Amaigabeko zikloa*, Kutxa, Donostia, 1995.
- Sarrionandia, Joseba: *Hnuy illa nyha majah yahoo*. Poe-

mak, 1985-1995, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.).

- Irigarai, Jose Angel: *Urdinkara*, Pamiela, Iruñea, 1995 (D.A.).
- Linazasoro, Karlos: *Euriaren eskuak*, Alberdania, Irun, 1995 (D.A.).
- Gojeaskoetxea, Unai / Apalategi, Ur: *Erdiguneak*, Maiatz, Baiona, 1995 (D.A.).

4. Saiakera, kazetaritza eta beste

- Otaegi, Lurdes: *Lizardiren poetika*, Erein, Donostia, 1995 (95-Y-26).
- Iñarra, Aitxus: *Hilketa euskal herri-kulturan*, Iralka, Irun, 1995 (95-II-2).
- Arretxe, Jon: *Tubabu*, Elkar, Donostia, 1995 (95-II-11).
- Aranguren, Gaizka: *9 egun Iruñeko kartzelan, intsumitu preso*, Emak Bakia Baita / Pamiela, Iruñea, 1995 (95-II-23, Gizartea sailean).
- Etxarri, Joseba: *Euskaldunen Amerika*, Elkar, Donostia, 1995 (95-III-16).
- Fernandez, Luis: *Tetris*, Elkar, Donostia, 1995 (95-IV-19).
- Haritschelhar, Jean: *Ponttoke-riak*, Elkar, Donostia, 1995 (95-IV-21).
- Etxaburu, Jose Maria: *Ondar-roako kontuak*, Sendoa, Oiartzun, 1995 (95-IV-26).

- Lasarte, Manuel: *Enbor zaarraren ezpala*, Sendoa, Oiarzun, 1995 (95-IV-26).
- Kortazar, Jon: *'Euzkerea' eta 'Yakintza' aldizkarietako olerkigintza*, Labayru / Zornotzako Udala, Bilbo, 1995 (95-V-23).
- Mielgo, Roberto: *Eusebio Erkiagaren gerraosteko elaberrigintza (1958-1964)*, Labayru / Zornotzako Udala, Bilbo 1995 (95-V-23).
- Barandiaran, Bizente: *Lanik gabe ezin bizi*, Sendoa, Oiarzun, 1995 (95-V-25).
- Alonso, Jon: *Idiaren eraman handia*, Euskaltzaindia / BBK, Bilbo, 1995 (95-VI-30).
- Urkizu, Patri: *Exiliatuok ez gara inongoak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1995 (95-VII-2).
- Galarreta, Xabier: *Egunkarietakoak*, Marjinalia, Astigarra, 1995 (95-VIII-8).
- Zulaika, Agustin: *Bizi naiak lege zorrotzak*, Sendoa, Oiarzun, 1995 (95-IX-23).
- Aranburu, Pello Joxe: *Juan Bautista Agirre Eloia, 1742-1823*, Asteasuko Udala, Asteasu, 1995 (95-XI-8).
- Askoren artean (Ludger Mees, Eugenio Riao, Pruden Garzia, Joseba Zulaika, Joxe Azurmendi): *Historia, zientzia ala literatura?*, UEU, Bilbo, 1995, 1995 (95-XI-18).
- Perurena, Patziku: *Zurian ziri-ka*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.).
- Dirassar, Janbattit: *Hegiko bordatik*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.).
- Mendiguren Bereziartu, Xabier: *Euskal itzulpengintzaren historia laburra*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.).
- Ubeda, Garbiñe: *Negu Gorriak. Ideia zabaldu Tour 1995*, Susa, Zarautz, 1995 (D.A.).
- Garate, Gotzon: *Euskal atso-titzak*, Mensajero, Bilbo, 1995 (95-XII-27).

5. Antzerkia

- Mendiguren Elizegi, Xabier: *Hilerritxia*, Euskaltzaindia / BBK, Bilbo, 1995 (95-VI-30).

6. Haur eta gazte literatura

- Zubizarreta, Patxi: *Eztia eta ozpina*, Alberdania, Irun, 1995 (95-II-24). Eleberritxia laburra.
- Arrieta, Yolanda: *Denboraren kanta-kontuak*, SM, Bilbo, 1995 (95-IV-13). Poemak.
- Diaz Esarte, Xabier: *Sei haurkomedia, a zer komerial!*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1995 (95-V-16). Antzerkia.

- Santisteban, Karlos: *Ilargiaren eztula*, Bruo, Bilbo, 1995. Ipuina
- Landa, Mariasun: *Nire eskua zurean*, Erein, Donostia, 1995 (95-V-18). Ipuina.
- Markuleta, Gerardo: *Asier eta egia gurutzatuen liburu*, Erein, Donostia, 1995 (95-V-18). Ipuina.
- Urzante, Xabier: *Adarba-koitzaren oinatza*, Erein, Donostia, 1995 (95-V-25 eta 30). Ipuinak.
- Santxo, Joseba: *Ditxosozko ditxolaria*, Alfaguara-Zubia, Bilbo, Leioa, 1995 (95-X-5). Ipuina.
- Garmendia, Mikel: *Belle, Landetako sirena*, Alfaguara-Zubia, Leioa, 1995 (95-X-5). Ipuina.
- Juaristi, Felipe: *Sagitario*, Descle de Brouwer, Bilbo, 1995 (95-X-19). Ipuinak.
- Cillero, Javi: *Norena da Virginia?*, Descle de Brouwer, Bilbo, 1995 (D.A.). Kronika-eleberria.
- Etxebarria, Juan Manuel: *Bizkaialdeko ipuin-esaundak*, Ibaizabal, Zornotza, 1995 (D.A.). Ipuinak.
- Pujana, Bibie: *Mixina II*, Ibaizabal, Zornotza, 1995 (D.A.). Ipuina.
- Iriondo, Juan Mari: *Sutondoko solasaldiak*, Ibaizabal, Zornotza, 1995 (D.A.). Ipuina.
- Feliu, Alfredo: *Periko Kirikoren bidaia liluragarria*, Ibaizabal, Zornotza, 1995. Ipuina (** Itz.: Jose Antonio Sarasola).
- Santisteban, Karlos: *Kutuna Tuntuna*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.). Ipuina.
- Txiliku (Olaizola, Jesus Mari): *Agure jakagorria*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.). Ipuina.
- Txiliku (Olaizola, Jesus Mari): *Hiru lagun*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.). Ipuina.
- Zubeldia, Iñaki: *Maddiren oporrak*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.). Ipuina.
- Ormazabal, Joxean: *Lazkao Txiki*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.). Ipuina.
- Kazabon, Anton: *Behin baten, baten behin*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.). Hitz joko eta errimak.
- Igerabide, Juan Kruz: *Pikoak*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.). Ipuina.
- Igerabide, Juan Kruz: *Denboraldi bat ospitalean*, Alberdania, Irun, 1995 (D.A.). Ipuina.
- Muguruza, Jabier: *Gabon Guanito*, Erein, Donostia, 1995 (D.A.). Ipuina.
- Balzola, Asun: *Marta, uda haren ostean*, Erein, Donostia, 1995. Ipuina (** Itz.: Gerardo Markuleta).
- Zubizarreta, Patxi: *Biolin bat Maribeltxarentzat*, Edebe-Giltza, Bartzelona (95-XII-23).

7. Aldizkariak

- *Entseiukarrean*, 10. zenbakia, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1995 (95-III-15).
- *Karmel*, 211. zenbakia (zenbaki berezia, Aita Gabriel Jauregi Uribarreni eskainia), Euskalerriko Karmeldarrak, Markina, 1995 (95-IV-1).
- *Maiatz*, 23. zenbakia, Maiatz, Baiona, 1995 (95-V-5).
- *Maiatz*, 24. zenbakia, Maiatz, Baiona, 1995 (95-X-31).
- *Maiatz*, 25. zenbakia, Maiatz, Baiona, 1995 (D.A.).
- *Hegats*, 12. zenbakia, Euskal Idazleen Elkarte, Donostia, 1995 (D.A.).
- *Ostiela!*, lehen zenbakia, Paperzaleak, Ordizia, 1995 (D.A.).
- *Egan*, 1995-1 zenbakia, Euskalerraren Adiskideen Elkarte, Donostia, 1995.
- *Egan*, 1995-2 zenbakia, Euskalerraren Adiskideen Elkarte, Donostia, 1995 (95-XII-29).
- Elissalde, Jean: *LVII.a gerlan*, Alberdania, Irun, 1995 (95-IV-20). Prestatzailea: Patri Urki zu. Kronika.
- Zabaleta, Patxi: *Ukoreka*, Txalaparta, Tafalla, 1995 (95-V-27). Eleberria.
- Zabaleta, Patxi: *Euskomunia ala Zoroastroaren artalde!*, Txalaparta, Tafalla, 1995 (95-V-27).
- Agirre, Txomin: *Kresala* (euskara batuan), Elkar, Donostia, 1995 (95-VI-23). Ego kitzailea: Jon Arretxe. Eleberria.
- Monzon, Telesforo: *Langosta baten inguruan*, Elkar, Donostia, 1995 (95-VII-7). Apailatzailea: Koldo Izagirre. Ipuinak.
- Loramendi (Arana, Juan): *Olerkiak*, Loramendi Kultur Elkarte, Aretxabaleta, 1995 (95-IX-21). Apailatzailea: Loramendi Kultur Elkarte. Poesia.
- Iztueta, Juan Inazio: *Ez direlako aketsak*, Alberdania, Irun, 1995 (95-XI-10). Apailatzailea: Inazio Mujika Iraola. Prosa pasarteak.

8. Testu zahar, berrargitalpen, bilduma eta antologiak

- Etxaniz, Xabier: *Igarkizunak*, Elkar, Donostia, 1995 (95-III-26). Igarkizunak.
- Erdozaintzi-Etxart, Manex: *Hinki-hanka*, Elkar, Donostia, 1995 (95-IV-22). Poesia.
- Landa, Mariasun: *Txan fantasma*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.). Ipuina.
- Landa, Mariasun: *Partxela*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.). Ipuina.

- Arretxe, Jon: *Hakuna Matata*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.). Ipuinak.
- Zubizarreta, Patxi: *Ametsetako mutila*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.). Ipuina.
- Ormazabal, Joxean: *Kittano*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.). Ipuina.
- Larzabal, Piarres: *Idazlanak V. Ipuin eta istorio*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.). Apailatzailea: Piarres Xarritton.
- Larzabal, Piarres: *Idazlanak VI. Etnografia-solas eta hitzaldi*, Elkar, Donostia, 1995 (D.A.). Apailatzailea: Piarres Xarritton.
- Irigoien, Joan Mari: *Poliedroaren hostoak*, Erein, Donostia, 1995 (D.A.). Apailatzailea: Joan Mari Irigoien. Eleberria (berriatza).
- Irastortza, Tere: *Gabeziaren Khantoreak*, Pamiela, Iruñea, 1995 (D.A.). Apailatzailea: Tere Irastortza. Poesia bilduma.
- Sarrionandia, Joseba: *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*, Pamiela, Iruñea, 1995 (D.A.). Poema itzuliak.
- Arratibel, Joxe: *Kontu zaharrrak*, Erein, Donostia, 1995 (D.A.). Apailatzailea: Miel Anjel Elustondo. Ipuin zaharrrak.
- Mirande, Jon: *Gutunak*, Susa, Zarautz, 1995. Apailatzailea: Patri Urkizu (D.A.).
- Mogel, Juan Antonio: *Ipuinak*, Labayru / Eibar eta Markinako Udalak, Bilbo, 1995 (D.A.). Apailatzailea: Xabier Altzibar.
- Etxeita, Jose Manuel: *Jose txo*, Labayru, Bilbo, 1995 (D.A.). Eleberria.
- Lizardi, Xabier: *Euskera aundiki-soñekoz*, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo, 1995. Apailatzailea: Lurdes Otaegi. Kazetari lanak.
- Lardizabal, Francisco Ignacio: *Testamentu Zarreko Kondaira I*, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo, 1995. Apailatzailea: Blanca Urgell.
- Lardizabal, Francisco Ignacio: *Testamentu Zarreko Kondaira II*, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo, 1995. Apailatzailea: Blanca Urgell.
- Joannateguy, Basile / Bengoa, Eusebio: *Txinako berriak*, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo, 1995. Apailatzailea: Arantzazu Elordieta.

9. Komikia

- Armspach, Marko: *Pedro Mari*, IKA, Iruñea, 1995 (95-XI-29).

10. Bestelakoak

- Lubaki Banda: 1996ko Literatur Egutegia, Euskal Idazleen Elkarte, Donostia, 1995 (95-IX-12)

Juan Luis Zabala

Caro Baroja, arrotz?

Zaude lasai, Gurutz Jauregi adiskidea: F. Marañaren *Julio Caro Baroja. El hombre necesario* liburuaren aurkezpenean kezkatu eta minkor agertu zinen eta arrazoirik ez zitzaizun falta. Lasai, zeren oraindik entzun beharko ditugu entzutekorik harregarrienak.

Jakin aldizkariaren 91. zenbakian (azaroa-abendua 1995) Laura Mintegik agertu zuen "Caro Baroja, arrotz" delakoak mindu zaitu. Baina, nor ez euskal kulturaz arduratu garenon artean? Min hori, nere min bera duzu.

Zertara ote dator J.M. Barandiaran eta J. Caro Baroja aurrez jartze hori? Ataungo maisu hura bizi izan balitz, bera zen gu baino gehiago minduko zena, zeren ongi ezagutzen bait nuen don Jose Migel. Gainera, biok nituen adiskide eta maisu. Bata etnografiar eta bestea etnologiar. Biek ziren elkarri asko lagunak eta beste guziori irekiak, noski.

Barandiaranen hiletetan han nintzen, baina Caro Barojarenean ez. Tamalez, abuztuko hi-

lean gertatu zelarik, ezin izan nuen. Urtero bezala, Pirineoetan nintzen, egunetan mendietatik jaitsi gabe. Eta, jaitsi nintzen telefontoz etxera hots egin eta emaztearen ahotsa: "Minduko zaituan berri beltza eman behar dizut, Julio hil da! Ordu honetanxe Beran dira bere hiletak". Beraz, hara hor nere ezin joana. Garaiaगतिक, uste dut, beste askori ere hori gertatuko zitzaie-la. Hala ere, gero jakin nuenez, Jose Mari Satrustegi euskaltzain adiskidea eta beste asko han ziren. Juliok, hiletak Berako herriaren ohiturara egitea eskatu bait zuen hilondokotzat.

Zer ote da herriarekin maite-mindurik egotea? Nor gara gu besteen gogoak epaitzeko? Non eta noiz esan zuen Juliok herri hila ikertzen ari zenik?

Gure herriaren "erreakzioa ere halakoa izan zela"? Zein da hemen gure herria? Norbera bai eta besteok ez? Ni behintzat, artikulu hori idatzi duena mundura etorri baino lehenagotik naiz hemen herriko. Gainera, bere azken borondatea euskaldunon

ohiturazko ehorzketaz betetzeko, Nafarroan, gure herriaren ordezkari, J. M. Satrustegi baino auke-rakoagorik bai ote?

“Gehien, Madrilgo *inteligentsiak* errebindikatu zuela”? Hola balitz, gure inteligentsia edo inteligentziarik ezagatik izango litzateke. Beraz, han ez legoke hutsunerik, gure ahulezian baizik. Baina, ondo dakizu ni ez naizela iritzi hortakoa.

Kontutan har beza nork ez zuen errebindikatu gizon jakitun, langile eta baketsu hura. Adibidez, Donostiako *El Diario Vasco* egunkariak, biharamunez, abuztuaren 19an, zortzi orrialde oso eskaini zizkion. Madrilgo *El País*-ek lau. Geroko egunetan, zein batean zein bestean, gorai-pamanez jarraitu zuten.

Oroi bestalde, bere lematzat “Asmoz eta Jakitez” erabili ohi duen Eusko-Ikaskuntzak 1986. urtean omenez eskaini zizkion bi liburuki mardulez. Hor gelditzen zaizkigu, gure eskerronaren lekuko, 72 egileren iker lanez hornituak. Hori ez zen merezi-mendurik gabea, ez noski. Baina, itsuak ezin ikusi.

Emaizetatik ezagutzen da gizona eta Felix Marañaren liburuari begirada bat aski da gizon jakitunaz gainera gure herria zenbat maite zuen jakiteko.

Une honetan, ezkertzarreko ez naizenezkero, zilegi zait ne-

rekiko orroitzaren adibide soil batzuk gogoratzea, lagun onari eta egiari zor diodan neurrian. Caro Barojak, gaztetxo zelarik eman zituen bere lehen zituak *Anuario de Eusko-Folklore* urtekarian. Haiek izan ziren nerezat bere lehen lan jakingarriak. Haiek piztu zidaten ondotikoen irakurketarako egarria. *Algunos mitos españoles y otros ensayos* (1944) delakotik hasi eta *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina* (1946) deritzanetik zehar jarraituz.

Bera nolakoa zen? Hara zertzelada batzuk: Euskal Herriaren ezagutza herriz eta mendiz egin nuen garaian, egun batean iritsi nintzen Berara ere eta ezin ba egon Itzeara hurbildu gabe. Pio eta Julio nituen nere gogoan, Serafin aitona zenaz ahaztu gabe. Ezin ba hura ikusteko aha-leginik gabe gelditu. Gogoaren bultzadaz heldu nintzen Itzeara ate joka, ireki baino lehen nintzen atari barruan.

Laster azaldu zitzaidan Julio bera, eskailerak beheara, zer nahi nuen galdezka. Agertu nion nere nahia era erakutsi zidan biblioteka, osaba Pio zenaren langela, osaba Rikardo zenaren kobrezko plantxa grabatuak eta horietatik egindako zenbait kalkografia. Aitonaren oroitzapena ere ekarri nion. Elkar ezagutu gabe, hura nuen berakin mintzatzeko lehen

aukera. Elkarrizketan, nere galdeak euskal etnografiaz egin nizekionean ohartu zen, Pio zenaren literatura ez ezik bere zenbait lan ere irakurriak nituela. Neretzat, egun zoriontsua izan zen hura, gogoia lasaitu nuen eta adiskide eta maisu bikain bat lortu. Handik irten baino lehen, ateraberri *Los Vascos* (1949), eskuizkribuzko eskaintzaz eman zidan.

Harrezkero beti izan dugu harremana, eta ez nolana hiko. Askotan joan nintzaion galdezka. Barandiaranengana bezala, eta beti aurkitu nituen, zein bata zein bestea, liburu irekiak bezala, argibideak eskainiz. Zientzia-gizon gehienak bezala, oso umilak ziren eta beren gaian interesatuari beti laguntzeko prest.

1957. urtean, Eibarko Club Deportivoan Artístico-Cultural saila sortu nuen eta beste zenbait ekintzaren artean hitzaldiak antolatu, lehen hizlarien artean genituen J. M. Barandiaran etnografiaz, J. Caro Baroja etnologiaz eta J. Altuna paleontologiaz.

Ordurako, Juliorene ospea hedatua zen, bereziki euskal kulturaz arduraturik genbiltzanon artean. Bazkideak eskatu zidaten hura eramatea eta telefonozko deia aski izan zuen izendatutako egunean Beratik taxiz joateko. Hitzaldi ostean, ezer hartu nahi ez. Txoferrari taxia ordaintzera hurbildu nintzenean, Juliok euskaraz esan zion: "Ez, ez har

mesedez; ohi bezala, kontuak nerekin egingo dituzu". Ihardetsi nion: "Julio, ni beti zurekin zorretan". Iriparre soil bat izan zen haren erantzuna.

Juliok, erdaraz ongi mintzatzen ez ziren herkiekin euskaraz egiten zuen. Bestela galde Bera herrian edo ikerketak egin zituen herri euskaldunetan. Zenbait itzulpen ere hor ditugu lekuko.

Aipatu dudana *Materiales...* haregatik zen Euskaltzaindiko urgazle. Baina gero gerokoak..., eta 1979an izendatu zen oho-rezko. 1980 urteko uztailean Beran batzartu ginenean eraman genion diploma. Neukan adiskidetetasuna bide zelarrik, agertu nion Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekarako bere *Etnografía Histórica de Navarra* (1971) hiru liburu ahituen bila genbiltzala. Han bertan eman zizkigun dohanik, Azkue Bibliotekan pozik ikusiko zituela esanez.

Gauza gehiago kontatu nezazke, baina gizonaren jiteaz adibiderik aski dela iruditzen zait.

Zenbat dira gure kulturaz berak adina lan egin duenik? Historia guzian ere, gure zoritxarrerako, oso guti. Ez dakit eskuko behatzekin kontatzeko adina izango diren. Beraz, guziok inteligenteak bagina ez genioke emango eskertxarririk.

Gaur ordea, jakitun harek

utzi digun hutsunea maila hartan betetzeko gauza den inor ez daukagu. Horregatik zeritzon F. Marañak: "El hombre necesario" (Beharrezko gizona).

Nik ere, Gurutz, zuk bezala

kezkati, nere buruari galde hau egiten diot. Zer da beraz Laura Mintegiren arazoa? Ez jakintasuna ala jakin nahi eza? *Jakin* deritzanak berezi beharko luke, herriaren onerako.

Juan San Martin

Euskararen lehen idatziak

Euskararen lehen idatziak aipatzean, gehienek uste dute San Millan de la Cogolla-koak direla. Hango *Glosas* direlakoetan aurkitzen bai da: "izioqui dugu" (gaur egungo eraz, itxura denez, "izotu dugu" litzakena) eta "guc ajiutu ez dugu" ("guk ez dugu ajiutu" seguruaski). Baina, hori aipatzen den bakoitzean oroi Akitaniako erresuman arkitzen diren harri erromarrez, han latinarekin nahasturik inoiz hitz soilak, pertsona eta jainkoki izenak eta zerbait gehiago agertzen bai da. Gainera, Akitaniatik, era bereko harri irargiak, Aragoi eta Nafarroaraino zabaltzen dira, garai berean eta adibide polita dugu Nafarroako Lergakoa, non ager-

tzen den lehen mendeetan: "Ume sahar" ("ume zahar"), noski.

Antzinako iragarki hoiem berri eman zigun Koldo Mitxelena *Textos arcáicos vascos* (1964) deritzan liburuan, eta VME SAHAR han dator 19. orrialdean.

Gai bera zabalago lantzen du Joakin Gorrotxategik bere *Estudio sobre la cósmica indígena de Aquitania* (1984) liburuan, eta 287-288. orrialdeetan ikus daiteke aipatutako esaldia.

Aditzera eman nahi honek ez du beste betekizunik maiz euskara eta gaztelera biak baitean hasi zirela esaten dutenen argibiderako baizik.

Juan San Martin

Ego ibarrera begira? Oharrez eta umorez

Rafael Agirre Francok *Gupúzcoa 1883-1983 Gipuzkoa* argitara eman zuenetik maiz oroitzen naiz han datorren huts txiki batez eta argitasuna ematez gainera hidronimia adierazi nahi nuke, era berean umorezko gatz piska bat eskainiz.

Historia-Geografiako presaktakuntza hori Foru Aldundiak argitaratu zuen. Album bezala oso ederra da, argazkiz eta marrazkiz ondo hornitua gainera. Baina horiek ez daude beti azpian dararamaten argibidezko irarriekin bat.

Ulertzen dugu horietako asko zer diren edo non diren zehatz jakitea hain gauza erraza ez bada ere, baina ulertezina zer jarri ez dakitenean beren kabuz asmatzea.

Hara, 19. orrialdean dakarrenez, Deban (edo Zumaian?) "Rio Ego" itsasontzia ureratzea, baina gutxik jakingo dute Ego erreka hori non den. Hori jakiteko lagun-garri izango zen liburuan datozen argazki guzien azpiak ondo

idatzirik baleude, zeren 34.ean agertzen dena bai da Ego erreka, ez Urumea aldea, Erreka Eibartik igarotzean Urkuzuko zubiaren aurrean aterea bai zegoen. Eta ez izan horren zailantzarik, 1910. urtean Gregorio Mujikak *Monografía Histórica de la Villa de Eibar* liburuan zekarren argazki bera bai da. Ikus haren 4. orrialdean.

Ego erreka, legez, Ibur erre-garen goikoaldean sortzen da. Han dira Ego-Etxeaga baserria eta Egoarbitza baserri eta mendia ere. Baina, gure zaharrak mende honen hasieran habanera doinuz kantatzen dutenez, Ego errekek bestelako sorrera zuen, hala aipatzen du kanta harek:

Arragueta kalian
merianda aundixa,
bost atsoren artian
sei asunbre ixa;
jarri ziradenian
mozkortuta ixa
alkarri erakusten, maitia,
Tutulu mendixa.

Batak beltza zuela
bestiak txurixa
jarritako tokian
egin zuten pixa.
Anditxik formatu zan
Egoko ibaixa,
atzeruzka jausita, maitia,
itto ziran ixa.

Besterik ere ulertuko du ei-
bartarrak. 114.orrialdean *Raskin*
prentsak Lambretta fabrikan, bai-
na ez makinagintzan, baizik zi-
klomotorren txapak estanpatzen.
Makinagintza bai 132.orrialdeko
azpirengo argazkian, madrina-
dora lanean.

Juan San Martin

Sein antroponimoa

Antroponimoak dira lekuizenean artean aurki ditzazkegun interesgarrienak, formarik zaharrenek direlako eta era berean gure hizkuntzaren antzinako agiri jatorren lekukoak.

“Jaizkibel mendiko izen zahar batzuk” deitu nuen txostena irakurri nuen 1987ko uztailaren 24 an Euskaltzaindiko bileran. Txostenaren azken partean mikroponimiaz azaldu nuen salbuespenean nion: “Mikrotoponimia honetan ezer berezirik aurkitzekotan, begirada baten, *Sein* antroponimoa litzake bitxienetako bat. Gure mende honen hasieretan ba omen zen Martierrekan Sein izeneko errota, jatorriz Oiartzungoa nonbait, han etxe bat denez eta hemen, Hondarribian, XVIII. mendera arte ez zaigu agertzen Sein deitura, eta etxerik ez da izen horrekin.” (ikus Euskera, 1988, XXXIII, 271.or.).

Aurtengo urtearen hasieran ohartu naiz, Higerdik Artzuerrotara doan bidean, oholezko iragarri bat jarri dutela bide hori Martierrakara heltzen den tokian, non ipintzen duen “Errota Sain erreka”. Hau da, Sain, Sein

beharrez. Eta, Martierreka? Martierrekarik ez da aipatzen. Hor bi huts, beraz, onbeharrez kalte.

Horregatik nator gaurko honetan xehetasunezko jarraipenez, adierazpenen bidez argi ulertarazteko asmoz.

Lehenik esan beharra dut tokiaren lekukotasuna nahiko argi eman zigula Florentino Portu zenak *Fuenterrabia: notas históricas y curiosidades* zeritzon liburuan: “Errota Sein y Martierreka, Jauregui, se encuentran seguidos,...” (Lehen argitalpenaren 184.or eta bigarrenaren 260.ean) Hortik uler genezake Jauregi eta Sein errota jabeen deiturak direla. Baina errekarrena, ezagutzen diren mapak lekuko, Martierreka da.

Nahasmendurik gerta ez dakigun, kontutan har, Sein, errota-aren izena zela eta ez errekarrena. Artzu eta Kornutz (egungo ahozkerara Gornus bezala erabiltzen dena) bien artean dagoen erreka bakarra Martierreka dela. Bestalde, baita ere, argi kokatzeko, esan beharra dut, Martizkoerreka ere badela, baina Martitz eta Mu-naudi bitartean dagoena.

Goazen ostera Sein antroponimoaren garrantzia aurkeztera. Oartzunen bertan aldi berriak arte ez dugu aurkitzen Sein-en agiri idatzirik.

Adibidez, Isasti lezoarrak 1625ean idatzi zuen *Compendio Historial* delako haren 93. orrialdean Oartzungo etxeen zerrendan aipatzen du Sein, eta M. Lekuonak *Del Oyarzun antiguo* deritzan monografiaren 308. orrialdean, 1535. urtean hiriko ordenantzak idatzirik jartzeko bildu zirenen artean du Martin de Sein eta etxea ere bai 121. orrialdean. Gipuzkoako Diputazioak 1857ko *Nomenclátor*-ean dionez hiri-kaskotik hurbil, kilometro batera, aurkitzen omen da Sein etxea. Etxe eta deituraz aurkitu ahal izan ditudan agirik zaharrenak horiek dira.

Aitonensemetsa edo hidalgiaren frogantza, itxura denez, aski berandukoa du Sein deiturak. Egia esan, gipuzkoar jatorrizko guziak ziren aitonensemetsa Foruen arabera eta frogantza agiriak herbestera irtetzean ziren baliagarri, baina bakoitzak bere hirian agiririk ez zuen beharrezko. Horrela uler dezakegu hain beranduko frogantza agiria. García Carraffa anaiek *El Solar Vasco-Navarro*-ren VI. liburukian diotenez, Francisco Antonio Sein-ek frogatu omen zuen 1756an Oartzunen aitonensemetsa. Horrek baino lehenxeago ordean Ignacio Sein izen-deiturdunak 1749an Hondarribian ber-

tan. Hau izan daiteke hona etorri zen lehena eta agiri horren premiaz aurkitu zena hiritar eskubideez jabetzeko. Sein deiturako horiek beren harmarrian honako hau dakarte: gaztelua bere atarian haurra agertuz. Heraldika zaleek etimologiaz gehienetan huts handiak egiten dituzte, baina Seintarrak zuzen zebiltzala esango nuke, haurra bera antzinatik *seina* delako.

Deitura horren jatorria erro-mar kulturaren eraginaz Akitania eskualdean egin ziren epigrafitan aurkitzen da, eta era berean hor ditugu euskarazko lehen hitz eta izen soil idatziak, gure hizkuntzalari bikaina genduen Mitxelenak ikertu zituenaren arabera. *Apellidos vascos* (1953) zeritzan liburuan agertu zигun *se(h)i* eta *sei(n)* funtsean seme zirela (ikus liburuaren 15 eta 99. orrialdeetan). Handik hamaika urtera agertu zuen bere tesi nagusia, *Fonética histórica vasca* (1961), non zehazkiago aztertzen dituen epigrafia horietako hitzak, eta hemen arduratzen garenari buruzkoan, liburuaren 49. orrialdean, argibide hau eskaintzen du: *seyña*, "niño" eta *seyñtasuna*, "niñería". Hor bertan, aurreko liburuan bezala, Oartzunen badela Sein izena duen etxe bat oroitarazten zигun. Geroago, etengabeko lanari jarraituz, eman zuen *Textos arcaicos vascos* (1964) eta berriz ere agertzen ditu, baina hemen latinezko epigrafia osoak transkribatuz eta

euskaratikako guzia bereiztuz. Besteak beste, hemen, Sein-i dagokiona soilik aipatuko dugu; 6, 16 eta 17. orrialdeetan datoz *seme*, *sei(ñ)* eta *seni*. Gero, 147.ean, 1536. urtean Marineo Sicullo-k bildutako hitz zerrenda jasotzen digu eta hauen artean *senarra* eta *semea*, aurrean aipaturikoari eransgarri zerizkonak.

Azkue zenaren hiztegia begiratzten laster hatzemango diogu honako hauei: *Sein*, niño, infante; *Seindu*, aniñarse; *Seindun*, embarazada, eta abar, guziak lekukotasunez jarriak, zein herri-tan edo zein idazleek erabilia duen azalduz. *Senide* eta *sena*, zalantzarik gabe, sustrai beretikoak ditugu.

Errefrau eta sententzia liburu-rua luinean agertu zen 1596. urtean itzulpenarekin eta hiru aldiz dator *seia*, hiruretan haur bezala itzuliz (ikus J. Urkixoren adierazpenez Auñamendi editorialak 1964 eta 1967. urteetan argitaratutako bi liburuetan 55, 166 eta 237. errefrauak).

Uriartek joan zen mendea-
ren erdialdera L.L. Bonaparte
printzearen eskariz egin zuen Bi-
blia itzulpenean dator: "Eta sein-
dun egonik, deadar egiten eban
seiña egiten jardunez eta ler egi-
ten eban miñez seiña egiteko".

Guzti hoiegatik eta Euskal Herriaren altxorra hizkuntza baldin bada, merezi du arreta jar-

tzea altxor horren muinetatikoak ditugunez hitz zahar hoi-
ek. Eta, leku-izenetan, antroponimoak dira gure izenik zaharrenak gor-
detzen dituztenak. Ondare beza-
la hain literatura guti jasi dugu-
nezkerok, kontu handiz hartu
beharrezkoak zaizkigu toponi-
moak eta hauen artean bereziki
antroponimoak. Martierreka edo
Sein bezalako antroponimoak
hizkuntzaren antzinako agiri bitxi
horietakoak direnezkerok.

"Errota Sain erreka" jarri
duenak Martierreka ukatu du eta
Sein-en zentzua ere bai. Gaur
oraindik, inguruko zaharrek ba-
dakite han zela Sein-errota.
Biltzaileak ere susmatze sena
behar du galde-erantzunetan
ahozkerari adi egoteko, zeren
badira izen asko jakinaren oker
ahoztatzen dituztenetakoak; ho-
rregatik, ahal delarik, agiri zaha-
rrekin erkatu beharra dago.

Leku-izenen bilketan beste
arazo bat euskararik ez dakitene-
na, zeren horiek adimena en-
tzungor izaten bai dute erdaraz
agertzen ez diren zenbait hoske-
ra ulertzeko. Adibidez, -tz et -tx
berezi ezina zaie, baina hortaz
ez dira ohartzen. Horregatik,
duela bizpahiru urte, Jaizkibelgo
bideetan jarri zituzten iragarrie-
tan Martitx, Gaztarrotx eta horre-
lakoak irakurtzen ziren, Martitz
eta Gaztarrotzen orde. Hor ere,
euskarari, onbeharrez kalte.

Juan San Martin

Euskaldunen alfabetatzeak hasia eta A.E.K. zehar. Sorrera eta lehen ekintzen iturriak

Alfabetatze Euskalduntze Koordinakuntzak, sorrera bertatik izen-deitura jakinak ditu. Baina, hortaz, badirudi batzuk oraindik ez direla ohartu. Horregatik, 1995.eko abenduaren 31ko Egunkaria (11. or.) irakurri zute-nek nahasmendua aurkitu zitekeen "HABE eta AEK-ren arteko akordioa" deritzan artikulua hartan. Batzuk behintzat, aski harrituak gelditu ginen honako hau bertan irakurtzeaz: "AEK, 1969an herri ekimenari esker sortu zene-tik gaur egun arte helduak euskaldundu eta alfabetzeko lan eskerga egin eta gizarte onarpen handia lortu duen herri elkarte-a da".

Eugeniusz Frankowskik argi utzi zigun 1930ean Eusko Ikaskuntzak Bergaran herri arteaz ospatu ziren batzar haietan. Sarrerako hitzaldi jakingarria izan zen poloniarrena, argi adieraziz, herri arte izango ziren ekintzek noizbait egileren bat izan zutela, denborarekin izen-

gabeko bihurtu baziren ere; herriagandik berez ezer sortzen ez denezkero. Ikus V Congreso de Estudios Vascos. *Arte Popular Vasco* (1934) liburukiaren 5. orrialdean.

Baina AEK delakoak badu sorrera zein ekintzaren oroit-idatzizko lekukotasun ezagunik ere. Horregatik ez da sortzaile izengabeko bihurtu den horieta-koa. Gainera, ez du hain antzina-ko historia bizi garenok ez gogo-atzeko.

Sortzaile eta eragileak ez ze-biltzan eskerronaren bila, baina eskertxarrak jasotzeko ere ez.

Bakoitzari berea Jainkoaren legea, esan ohi da euskaldunon artean. Euskaldunen Alfabetatze kanpainak sortze hura, euskaldu-nok eskolarik ezagatik gure hiz-kuntza analfabetoak ginelako, Ri-kardo Arregi zenaren idea izan zen eta Euskaltzaindiak eman zion babesa eta laguntza.

Adibidez, ikus ditzagun

Euskaltzaindiaren batzar agiriak, 1996ko urtarrilaren 28kotik hasita (*Euskera*, XIII, 1968, 313. or), non zekarren honako hau: "San Martin, Arregi eta Lasak firmatuta eskabide bat artu da euskaldunen alfabetizazio kanpaña bat egiteko". Onartu zen eta une berean batzorde bat izendatu Euskaltzaindiaren babespean ekintza hori aurrera eramateko.

Geroztik behin baino gehiagotan eman ziren ekintzen berriak, baina hemen ez dugu guziak aipatzerik, aipagarrienak baizik. Zehaztasun gehiago nahi dituenak jo beza 1996tik aurrera Euskaltzaindiaren Euskera agerkarian argitaraturik azaltzen diren "Batzar agiriak"

Lehenik Euskaldunen Alfabetatze soila zenari Euskalduntzea gehitzetik deitu zen AEK eta ondoko ekintzen kontu emateaz ere anitz idatzia eta argitaratua da. Era orokorrez, ikus *Euskera* XXII; 1977, 913-915. orr.

Geroago Euskaltzaindiko batzordeen bir-antolaketaz ordea, ikus *Euskera*, XXIV, 1979, 79-80. orr., ale berean organigrama osoa erantsiz.

Bestalde, ikus gai hortaz J.M. Satrustegiren xehetasunak: "Euskal Alfabetatze ekintzaren lehen iturriak", (*Euskera*, XXVI, 1981, 159-169. orr.).

Eta, azkenik, 1981ean Jaurilaritzak HABE sortzeaz alfabetatze lanaren babesba bere lepora hartu zuenean Euskaltzaindiak utzi zuen egiteko hori. Ikus *Euskera*, XXVI, 1981, 761. or.

Azkenaldi horretan Jaurilaritzako Kultur Sailarekin hitzarmena betetzeko ahaleginik ere ez zen falta izan. Horren lekuko dira Luis Alberto Aranberri "Amatiño" eta Joan Jose Txabarri jaunak. Orduan zergatik nahi ez zutenaren berri, inork ematekotan, Xabier Aizpurua berak edo eman beharko luke.

Juan San Martin

Aita Xanti Onaindia (1909-1986)

Otsailaren 13an, igandez, hil zen Aita Xanti Onaindia, euskal idazle oparo eta ezaguna.

Aita Xanti Onaindia Amorton jaio zen 1909.go martxoan 24an. Hamabi urte zituela Larreako (Zornotza) komentuan sartu zen karmeldarren ordenan. Han igaro zituen bere bizitzako urte gehienak, salbu eta gudu garaian eta hurrengo urtetan atzera eta aurrera ibiltzea egokitu zitzaizkionak. Gudu garaian "gudari"en kapelau izan zen Elgeta eta Fikako fronteetan. Guda ondoren, zenbait urte gartzeleratuta egon zen fraile kontentuetan: Hoz de Tuero (Santander), Gasteiz eta Logroñon. Gartzela urte hauek aprobetxatu zituen ingelesa, frantsesa eta alemana ikasteko. Hoz de Tuero ko aita nagusi 1948-51 urteetan. Gero ostera, Larrera itzuli zen 1851-54 urteetan bertako Nagusi izan zelarik. 1954-57an Eibarko Nagusi. Ostera Larreako buru izendatu zuten 1957-60 urteetan. Geroztik, bere bizi guztia han igaro du harik eta otsailaren 13an hil zitzaigun arte.

Aita Xanti Onaindiak hainbat Euskararen alde lan egin duen gutxi izan da gure artean. Mota guztietako lanak, gainera. Berak esaten digunez, "gazte hasi zen olerkiak egiten: gerra aurretik hasi nintzen olerkiak egiten eta gerra aurretik ezagutu nituen Aitzol, Orixe, Erkiaga eta beste hainbat olerkari eta euskaltzale. Gerran ere, Elgetako frontean edo Fikan gudarien kapelau bezala nengoenean, hegazkin zarat eta metraila hotsen artean ere idatzi egiten genuen, eta egoera horretan aberria zen kasik gure gai bakarra, nahiz eta denborarekin gai mistikoetara jo dudan", esango digu. Geroztik berak egindako poesiak txit ugariak dira, haietako gehienak berak sortutako *Olerti* aldizkarian argitaratu zirelarik.

Halere olerki arloan azpimarragarria gertatu zen berak 1954. urtean argitara emandako *Mila euskal-olerki eder* liburua, ordura arteko euskal poesien antologia bipila. Hala diotsa Xabier Kintanak liburu honi buruz: *Mila euskal-olerki eder* atera zenean

“erdi bahiturik zegoen eta izugarriko eragozpenak zeuden liburuak lortzeko, baina, ordea, Espainiak mundu zabalean egiten zituen erakusketetan aurkitzerik zenuen, euskaraz liburuak argitaratzeko baimena ematen zutela adierazi nahi baitzuten. Liburu honetaz gain, beste honako hauen poesia eta bertso liburuak bildu eta argitara ere eman zituen: *Olerkiak*, Arrrese Beitiaren poesia guztiak 1956. urtean; *Enbeita oleskaria*, Kepa Enbeita “Urretxindorra”ren bertso nagusien bilduma 1966.ean. Bertsolariak asko zekiela argi eta garbi adierazita utzi zuen 1964. urtean *Gure bertsolariak* liburuak argitaratu zuenean.

Itzultzaile eta ekintzaile nekaezina. Kontaezinak dira bere itzulpen liburuak: 1955. urtean *Horati'ren odak* eta *Berjiliren Idazlanak osorik: Enearena*, 1966.ean, besteak beste.

Zenbait aldizkariren sortzaile ere izan zen: 1956. urtean *Karmel* izenekoa, oraindik ere jarraitzen duena, bestalde. Eta *Olerti* 1959. urtean. Bide guztiz

erabilia izan zuten garaiko gazteek aldizkari hau beren poesiak argitara emateko. Hirurogeigarren hamarkadako idazle askok aitortzen diote A. X. Onaindiari bere aitagoitasuna. Garaiko euskal mugimenduan zerikusi zuzena eta bizia izan zuen Pablo Iztuetak aitortzen digunez. *Eusko Jaurlaritzak*, 1990. urtean bere euskararen aldeko lan guztiari aitortza ona eginaz, “euskal letren saria” eman zion.

Azken urteotan, maiz ikusi izan dugu bere izena han eta hemen, hala nola duela urte batzuk Aitzoli egin zitzaion omenaldian edota Orixeri 1988. urtean egin zitzaionean emandako hitzaldi eta azalpenetan.

Langile erraldoia, euskaldun petoa, idazle ugaria, bere bizi guztia euskararen ardatz inguruan eman duen langile honek merezi du gure omenaldi berezia.

G. Etxeberria.



KRITIKAK ETA
ERRESEINAK

Kritikak eta erreseinak

MAÑAS José Angel, *Historias del Kronen*, Edic. Destino, 237 or.

Historias del Kronen eleberria, 1994 urteko Nadal saria, sorpresaz beteriko nobela dugu, estilo osoro zuzenean idatzia. Esan genezake uda bateko kronika dela, edaritegiz-edaritegi eginiko aldarte eta zertzeleda-andanez eraikia, gunehorietatik kanpo ere, noski, garadurarik baduela. Eleberriaren mundu nabarrean egungo gazte-talde baten ingurune konplexu, nabar, marjinala islatuta, sexua, droga, familiaren arteko erlazio kontraesankorrak, adiskideen giroa edaritegi batek besterako bide amaigabeaz azalduz. Carlos protagonistak bizitzatik eskrupuluak eliminatzen ditu, sentimendu xumeak sahiesaten, egungo idolo batzuekiko mena azaltzen, droga eta sexua-aren presentzia alboratu gabe... Bizitzaren alde hedonista toperaino bilatzen da, aurre-etika —edo eta jarrera baloratibo ontologistak— arbuaiatuz. Eleberriak, nolabait, egungo gazteria desidealizatu —eta desideologizatu— baten kronika garratza damaigu, gizon larriagoek mesfidantzaz

behatuko luketeen biziera etena ispilotuz. Gazte horien eszenategi eta giroak makrokontzertu, musika bortitz gunetan, hiriarteko tribu berrien rolloetan finkatzen dira, gehienbat. Eleberriak mugimendu anitz planoak asko aldatzen, eta bata bestearekiko loturak, maiz, zakar eta zalu eteten direlako.

Eleberriaren filosofian inmediateismo petoa nabarmen; ezerk ez du finkamenezko plataformarik lortzen hurbil-hurbileko hedonismoa izaki helburu, hots, bizia toperaino dastatzea. Nobelaren ikuspegi baloratiboan sexua, droga, dirua erruz erabiltzea, kontsumismoan murgiltzea, balalao bidetako filosofia azaltzen da.

Mintzaera aldetik gazteriarren egungo argot bereziaren isladapena, eta mintzaera oso gordin baten lanketa ("Cuidado, que el Roberto se pone filósofo y entonces la hemos cagado, tronco", "Estoy hasta el culo de todo...", "Pienso en que no tengo

nada que hacer durante todo el día. Sólo comer, dormir y cagar: está claro que el lujo es el retorno al estado animal”, “Tranquilo, Robertón. Tú ponte a currar como yo, sácate tus talegos y no te preocupes de más”.

Idazkeraren eta hizkeraren arloan aipagarri arau ortografi-koei eta kaleko mintzoari egiten zaien mesprezu, maiz, tokizene-tan eta anglizismoetan fonetika ahoskatuaren legera makurtzen baita idatzia. Honela, filme batzuen izenberuak ematera-koan hitzak apropos pilaturik agertzen dira: “En Martín de los Heros hay varios multicines. En los Renuar (*Renoir*, noski), Rifraf, Elsilenciodeloscorderos, Lasospecha, Elnidodeadán y Ladoble-vidadeverónica. En los Alfabil echan Naitonerz, Delicatesen, Hastaelfindelmundo y una película de Romer”. Izenburu pilatu horien azpian, jarrera bohemio ezezik, aurre-arau eta idealik gabeko pozisio pasota eta marjinalistak... Zenbait xehetasun datual ematerakoen ere, axolakaberia bera; autoreari, berdin zaio, adibidez, klerigo zehatz bat artxapezikua edo artxiprestea dela esatea. Ganoragabe —eta autorearentzat ezaxolazkoa babil-tzan— gauzak bata bestearen orde-z jaldi daitezke. Hurrengoan nabaria da nahasketa Irungo artxipresteaz honela mintzo delarik: “Un cura vasco, el arzobispo de Irún o algo así, está siendo juzgado por socorrer etarras y el

fiscal pide al menos seis años de prisión...”. “O algo así” delakoa-ren adierazpena sintomatikoa da...

Bide baldres bera amodioaz ihardutean, besterik gabe, neskeei egoitziriko epitetoa “cerda” denean. Epiteto hori karakterizazio berezian biltzen da: “Las cerdas que dice Manolo son dos pseudo-jipis con pisamierdas, chalequito y pelo largo con flequillo”. Karakterizazio anitz eleberriaren orrietan ironi-puntu etengabeaz —aipaturiko pasotismo desideologizantearen ildotik—. “El rollo sesentaiochista pseudoprogre de siempre. Son los viejos los que tienen todo: la guita y el poder. Ni siquiera nos han dado la rebeldía: ya lo agotaron todo los putos marxistas y los putos jipis de la época...” Perpausa honen azpi-filosofia aski gardena da... Giza balio etiko eta sozialei eginiko finta horretan desmitifikazioak minzo bortitzena. Gizonak gizartean egin dezakeen bakarra egoeraz profitatze eta ongi pasatzea da... Ez dago beste idealik.

Eleberriaren estiloa oso zalu eta direktoa da, metafora eta gisako baliapide literarioei leku urri utziz. Dialogoetan ez dira ia inoiz tartegune deskriptiboak sartzen, biluts ematen baino, adieraziriko mezuak interpretazio okerrik ukan ez dezan. Edozein mementotan plano dibergenteak, eten-dura bortitzak gaiari eta formarik buruz, txuliatze bitxiak azaltzen

dira, idazkeraren elementaltasuna jarraituz.

Kuriosoa egiten da eleberrian telefono-deiei loturiko elkarrizketek duten garadura, dialogoak —maiz— mintzatuaren zertzelada sugerituak baino ez direla, deitzaile eta hartzailearen rola biziki nahastuz. Zaila gertatzen da, bada, bien arteko mugak non dauden esatea. Inprobisazioaren hariak ezartzen du dialogaren erritmo bizia, eta edozein unetan etena ere justifikatua dagoela dirudi. Alde horretatik, bada, elkarrizketetan filmeetako zalutasuna ageri da, eta tematikaren aldetik instrantsentzia absolutuaren menderakizuna.

Ontologia edo funstasun oro gaitzesten da eta datualtasun petoak agintzen du *Historias del Kronen* eleberrian. Gauzak ez dira prestatu behar, datozen bezala eman baino, baloreen lanketa den oro arbuaiatuz.

Esan daiteke eleberri hau egungo gazteriarengan ematen den balio-hustutze eta noraeza ideologikoaren diagrama zakar eta bilutsa dela. Edozein aurrebalio etiko, metafisiko, zibiko —erlijioso ere nahi baduzu— arbuaitzen da, mespretxatzen da. Aldian aldikoa bizi behar da, omen, hedonismoa toperaino dastatuz, aurremoldaturiko oro saihestuz... Absurdoan murgiltzea zilegi da. Jarrera horietan deserroturikoak

du lehentasuna, antimetafisika etikoa proposatu behar da praxia eroan... Eleberriak ez du, bada, beste zeharkako mezurik. Antisentzialismoa da nagusi, eta gizartean ongi ikusiriko plataforma zenbait —zaharrekiko begirunea, adibidez— protagonistak suntsitu egiten du jarrera ironikoetan bilduz.

Idazkearen aldetik, esan dugunez, perfekzionismoaren orde, klitxteen eta arau onartuen topikotasuna erraz hausten da, eta beraien txantxa ere sarritan —nahiz zeharbidez— egiten da. Literatura hau guztiz akrata, antibirtuosista, bat-batekoa da, gauza ondo egin eta astiro egitaratuen kontrakoa, zinez.

Idaen porrota islatzen da eleberrian, porrota horien praxia ere errebindikatuz formalitate estrukturalak —eta are gehiago gizabidezko balioak— oro apurtu eta trufa eginez. Nolabait, egungo balio-ezaren detritusa eskaintzen zaigu nobelan; ezkoherentzia, etika-eza, desmetafisika elkartzean liburuak ez du egunean egunekoa toperaino —eta era berekoi hedonistaz— bizitzea baino erakusten. Eleberriaren mezua, bada, deserrotze baloratiboa, gazte-talde batzuen egungo antimetafisika etikoa (sexua, droga, kontsumismo petoa...) bere hartan konfesatzea da.

Luis Mari Mujika

HARANBURU-ALTUNA Luis, *Auskalo, Luk*, Elkar Argit., 154 or.

Luis Haranburu-Altuna idazle ezagunaren *Auskalo, Luk* eleberriak egungo gizarte nabar eta gatazkatsuan eman daitekeen familia atipiko baten aldarreak eskaintzen dizkigu hizkera fresko, malgu eta natural batean. Luk protagonistaren makurrera eta plazer eskisitoenen diagrama damaigu, mahaiko atseginetan sibarita —eta Ana amorantearen harremanetan oparoa— azaltzen zaigula. Kontrapuntua Xuk semea dugu bizi-andana apalagoan, aitaren gibeletik beti, eta beste maila batean euskal gizartearen gorabeheretan murgildua. Funtsean, Xuk gizajo bat da, aitaren biktima.

Luk konstrutore aberatsak —dirua nasaiki maneatzen duenak— alboan pertsonaia single eta sugerenteak biltzen ditu, nobelari malgutasun datuala eta bizitasun emozionala erantsiko diotenak.

Luis Haranburu-Altuna idazlea ezaguna dugu, lehendik, euskal letretan, bereziki hainbeste edizio ukan dituen *Itsasoak ez du esperantzarik* (1972) nobela xume eta goiztiarragatik, eta, baita ere *Caritate* (1978) eleberri freskoagatik. Lehen eleberriak amodioaren trataerari emaniko sotiltasunak atentzioa eman zion, eta bigarrenak, trama askoz sentsualagoaren ildotik, freskota-

sun aparta, bereziki, metafora begetalekin hainbeste joku lerdan eginez. Oraingo honetan eleberriak bi plataformen eremua damaigu, bata Luk protagonista-rena, eta bestea Xuk semearena, azken hau maila apalagoan, nahiz eleberriaren bigarren ardatza izan. *Auskalo, Luk* liburuak egungo familia baten baitan sartzen gaitu, protagonista —gurasoa izaki— emaztegandik banaduta dagoela, eta horren kariaz ahaide-loturak sendian problematikoagoak egiten direla, adibidez, alaba Fanirenak aitarekiko. Tartean gunee berezia Ana deituriko Luken amoranteak, bere exigentzia, gurari intranszendente, kutixi eta beste apeta askoekin... Alaba familiatik aski urrundua azaltzen den bitartean, Xuk harreman estuak mantentzen ditu eleberriaren plataforman presentzia anitza duelarik. Luk preso dago semearen eta, batez ere, Anaren kapritxoepen. Bost urte emaztegandik bananduta gero, Ana —amorante gazte-txoak— protagonista bere apeten katibu bihurtzen du. Biek sentsualitatea bortizki dastatuko dute, eleberriko koadro, behar bada, lortuenak sexuaren joku oparoan eskainiz, mintzaera biziki fresko batean. Familiaren aldartetan drogak ere badu presentzia protagonistaren, eta, batez ere, alabaren kasuan. Elebe-

ria ez da konplexua, baina bai aztia familia nabar baten diagrama ematen, zeinean porrota ekonomikoa, funtzionarien ustelkeria, etsipen existentziala, amorantearen kapritxoak eta emazte bakanduaren disimuluzko jarrerak nabarmen direla.

Haranburu-Altunaren estiloa zuzena eta naturala da eleberrian (garbizaletasun lexikalari, adibidez, ez dio kontzesiorik egiten, egungo idazle batzuek orriak lokalismo ulertezin eta fantasmagorikoz betetzen dituzten uean...). Gorago esan dugunez, alde sentsualen trataerak freskotasuna dario... Deskribapen sentsual horietan metaforizazio eta konparaziozko prozesua nabaria da. "Anaren izter leun eta gihartsuak samurki igotzen dira kopa borobil eta kristala bezain gardenak osatzeko... Bere sabelean irekitzen den sakanean lore bakar bat loratzen da: Anaren zilbor hunkigarria...". Hemen *lore* eta *kopa* formulek —hizkera formal baten mesedetan— konparazio eta metafora sugerentea osatzen dute. *Caritate* eleberrian autoreak hain gustokoa zuen ildo begetala present dago bularrak aipatzerakoan: "Ez ditu udararen formakoak, sagarrarena baino, eta beren puntak ubel kolorekoak ditu, eta oso hertsia da puntaren inguruko zirkulua". Baita hurrengo ere: "Eta menbrilo fruitu helduen hedadura eta

gihartasuna bere titi harroetan begiztatzera ausartzen ez nintze-la igarri zuen Anak, nire begietan itsasirik zuen begirada eztiatz". Perpaua luzeen erritmoan ere —epiteto anitz kateatuz— deskribapen somatiko lortuak goiko aire baldan sentsualaren mintzo astitsutik: "Eskuarekin ile adatsa jaso zuen bere buruaren gainera eta geldiro utzi zuen erortzen aurpegia estali arteraino. Handik begiraten zidaten bere begi marroi ezti kolorekoek, zeinak, miopiaren kausaz, berez ziren baino are mantso eta handiagoak agertzen zizkidan...". Anaren lepoaren azalpena, adibidez, trazo xumeetan eskainia... Eta oraindik: "... Ile ezin xumeagoz beztitua. Eta berriro nire ajoarrieroa sutan zegoela jakinik ere ezin nituen nire begiak apartatu, ispiuari esker ipurgainean ikus nitzakeen bi zulotxo hain xarmant eta hain borobil, justu han, kokzitsaren alde banatan...". Fani alaba deskribatzerakoan ere trazo soil eta solte berak: "Neska kokkor, beltzaran eta algaratsuarengana joan da... Fani zeharo frajila da. Xumea. Beti hotzak dabil eta jertse handiegietan biltzen du bere soina, jantzi zabalegiak aukeratzen ditu beti...". Autorea maiz eremu begetalera joaten bada errekurtsio formalak bilatze-ra, animalien eremutik ere jasotzen ditu beste aproposak. Esate baterako, Ana amorantea moxalaren irudipean eskaintzean

("Aitak etxera ekarri duen moxal prezios honena baizik, eta maite dut bere izterra eta gainontzekoa...").

Gorago *ajoarrieroaren* aipua azaldu zaigu. Eleberrian, du-darik gabe, nabarmen sukaldere-errezetak, sukaldaritza —gai sentsualekin batera— liburuko elementu formal errekurrentenetakoa izaki. Idazlearen makurrera kulinarioak ezagututa, konprenitzekoa da autoreak gurean literarioki hainbeste landua izan ez den arlo hau era hain gozo eta jorian ukitzea. Pasarteak ugariak dira. Hona batzuk: "Eta tipula gorritz koloreztatzen hasi denean poteko tomate egina jaurtiki diot, bueltak eta jirak egurrezko koilarekin emanaz. Orain bi frentetan ari nintzen borrokan eta lanean, bata lurrezko kazuelan eta bestea tipula eta tomatea zeuden zartaginean. Hura zen mugimendu azkar eta irmoa, beharrezko ukituak eta mugituak emateko...". Hemengo pasartea ia beste orri erdian luzatzen zaigu mintzo oso gardenez... Edariak aipatzean hona horra beste koadro soil bat: "Foie apur batekin hasi gara, beti ere Jurançon ardoaz lagundurik. Ardoaren gozoak ongi kontrastatzen zuen ahatearen gibelaren garraztasunarekin; tertziopelozko oihalean behatza iragaitea bezalako efektua zuen...". Eskertzekoa, bada, eleberriaren trataera kuli-

nario bitxi eta errepikakor hau, gure hizkuntzari arlo hori era malgu eta espontaneoz erabiltzeko abagunea emanez.

Formaren aldetik, oraindik aipagarri nobelako dialogoan naturaltasuna. Haranburuk ez du jotzen inoiz barrokismora —ezta ere birtuosismo formal gehiegikora—, bere zehaztapenak soilak eta direktoak izaki. Hori dela eta, elkarrizketa laburrak, linealak —etendura urrikoak— dira, modu soltean idatziak. Estiloaren aldetik nabarmen, orobat, egunean hain ezarria —eta gimnasio eta saunari atxikia— dugun kultura somatikoa, idazlea, janarietan sibarita gisa, dutxa eta bainu-gelako estanpak eskaintzen oso emana aurkitzen dugula. Sauna, bada, maiz azaltzen da: "Saunan sartu naiz, lehen dutxa bat hartu ondoren, eta burua zuri jarririk luze etzan naiz saunako goiko aulkian. Bakarrik nengoen. Hasieran atsegin handiz sumatu dut nola zerion izerdia gorputzari baina hamarren bat minutu ondoren itotzear jarri naiz beroarekin eta arnaskada bakoitzean biriketaraino sartzen zitzaidan bero ezkoa...". Beste alde formal anitz aipa daiteke oraindik.

Muinari dagokionez, nabarmen autoreak eleberri honetan —oso maiz— alde intranszendenteak jorratzen dituela, ispilutu nahi izan duen familia gatazkatsu, problematikoan antiheroi

moderno a umiltasunez kokatuz. Luken familiak sendi tradizionalean aurkitzen ez den desoreka, sorpresa, irtenbide marginalak, urruntze eta hurbiltze emozionalak, eta baita euskal gizartean espero zitezkeen andana politiko apurrak ere (Xu semearen kasuan, adibidez, Xebe adiskidea-rekiko); eta gero diru-bide ero-soak ustelkeria administratiboaren bitartez, drogaren presentzia eta sexuaren dastamen oparoa... Beraz, molde orekatsua islatuko lukeen familia tradizionalaren ardatzetatik beste ertzean gabiltza. Ana amorantearen presentziak protagonistaren makurrera eta jarrera serbila agerian jartzen du; Luk, azken finean, amorantaren kapritxoaren mende bizi da, eta jarrera horrek erremate penagarri-
ra eramaten du gizagaisoa... Egungo gizarte deserrotu, ez-ontologista, balio etikorik gabea da Luk protagonistaren familian islatua. Dena kolokan dago, eta Luken usteak ere bai; sorpresa da azpiko hari nagusia —in-

transzendentzia maiz landuz—, eta egungo desfinkotasun sozia-
la ispilutzeko nobela baten plata-
forma profitatzea du autoreak.

Eleberriaren errematea, bai Fani alabaren kasuan —drogaren mende larriki eroria—, eta bai Anarenean (amoranteak Luki telefonoz ohaidea alboan duela deitzen diola) aski garratza da, protagonistaren amodioa amorantearekin porrot hutsa izan dela, beti neskaren kapritxoaren morroi... Amaiera intranszendente eta gazi horrek —nolabait, espero zitekeena— liburu osoa sentimendu kontradiktorio eta ezusteko aldar-
teen mirail bezala eskaini digu, autorearen asmoa, antza, horixe izan delarik idazterakoan.

Auskalo, Luk eleberriak idazkera lau eta fresko batez egungo familia baten arazoetara hurbildu gaitu, eta autorea arazo intranszendentek dibujatzean ere maisu azaldu zaigu, antiheroi moderno baten zertzelada xumeetan irakurlea sartuz.

Luis Mari Mujika

LANDA Mariasun. *Nire eskua zurean*. Auskalo, Erein, 56 orr.

Mariasun Landaren azken liburua, fina eta sentimenduz ukitu haundikoa iruditu zait. Hamar hamabi urteko haur baten barne-biziaren berri ongi baino ongiago

aditzera ematen da bertako orrietan. Haurraren ezagutza eta bere mintzo moldeak ere bai. Haur baten barne gatazka batek dituen logika, ilogika, sentikizizun

eta bizikizun guztiak ondoen azaltzeko, barne bakarriketa da gehien landu duen baliabide literarioa.

Guzti horrek, eta kontaktuzuna harilkatzen eta desarrolatzen doan heinean, ez du inoiz hasera beretik duen interesa galtzen, eta idazleak, kontakizunaren argumentua batetik, barne bakarriketa bestetik, denboraren atzera aurrera egiten duen etengabeko jokuak, bitxia eta guztiz atsegina egiten duten irakurketa.

Mutil bat da protagonista, "Xabi", hain zuzen, ez Xabier. Mutil hori eta bere amaren artean sartu den tipo intruso bat dela eta gertatzen den gatazka ikaragarriaren berri ematen du kontakizunak. "Nolaz maitemindu daiteke anteojodun nazkagarri horrekin" dio bere buruarekiko: "Txao esaten duen bakoitzean ostiko bat emango nioke barrabilletan". *Bostak* dira gutxi gorabehera. Xabik, ezin zuen gehiago egoera hur agoantatu eta etxetik ihes egitea erabaki du, aspalditik Anton lagunarekin antolatuta zuen gordelekura, txabolara. Iadanik, han dago, amarekiko sentitzen dituen alde eta kontrako sentikizunak azalduaz eta "anteojodun", "Karlos edo Txarli" kuartojos gorrotatuaz. Berak ezagutu ez duen eta istripuan hil zen bere aitari postua kendu nahi izatea da hori. Eta,

berak, nahiz aita ez duen ezagutu, ez dago prest amaren kontakizunaren bidez eta argazkien bidez irudikatzen duen hura saltzeko eta ahazteko. Zoritxarrez, "Antton", txabolaren antolatzailea kanpoan da eta ezin dio bere erabaki "sendoa"ren berri adierazi. Baina, halere, erabakia sendoa da.

Zazpiak eta laurden dira; "Xabi"k seguru sentitu nahi du bere gordeleku berrian. Amaren beharrik ez duela demostratu nahi dio bere buruari. Ondoren, bere pentsamenduen ildoan, barne denbora ez kronologikoan, errepasso bizia eta egiantzekoa egiten dio ordura arteko bere bizimoduari. Antton adiskide mendizaleak, txabolaren ametsa azaldu zionetik hau atontzen ari izandako zertzelada guztiak, hari buruzko ametsak eta adinari dagozkion maitemintzea Idoiarekin. Xabik Idoia bere neska ekarri nahi luke txabolara, baina Anttonek ahuleziaz jotzen du hara inolako neskarik ekartzea, eta, gainera, txabolarena, sekretua da: biek bakarrik dakiten sekretua. Txabolaren inguruan, superbientziaren auzia dago, ahal den gauza gutxienekin eta mendian topa daitezkeen elikadurarekin mantendu behar da. Bi adiskideen arteko desberdintasun nabarmena, baina, eraberean, elkar osagarriak diren Anton eta Xabiren arteko izakera. Xabi, eskolan hobea eta Antton mendi bitizarako tipo aparta. Baita ere,

deskribapen politik, amoltsuak, nola ezagutu zuten elkar Xabi eta Idoiak, lagunuen adar jotzeak. Gerora begira berak eta lagunek dituzten ziurtasun eta ziurtasun ezak.

Xabik, ostera, bere gogorakizunen haria amari eta bere "nobio"arengana zuzentzen du. Ama eta bere lagunmin den "Irene"ren adiskidantza eta bien arteko amets eta ekintzak. Haseran Xabik "Karlos" delakoa Ireneren nobioa zela uste bazuen ere, gerora argi eta garbi garbi ikusi bere ama duela andregai berria. A zer desilusia.

Baina bere ideiak alde batera utzi eta ordua da txabola barneko bizitza atontzeko. Gaua da eta gaueko "kilker eta zomorro guztiak hasi dira builaka". Gaurekin batera, hasten dira Xabiren aztoramenak: "Hotzikaraz nago, normala da lehen gauean beldur piska bat izatea..."

Hamaikak laurden gutxitan, Xabi zakuan sartu da lo egin asmoz. Bere barne pentsamenduak etxean murgiltzen dira ostera, batik bat bere aitagan. Ezagutu ez baina etxeko argazki haundi baten bitartez komunikatzen zen aita idealizatu baten. Ai hura gurekin balego: ez nuen etxetik ihes egingo. Horrek are eta larriagoa egiten du amaren nobioaren aurkako jarra: Maitermindu egin dela! Txarli

sasikume horrekin bizi nahi duela... ja! Eta ni? Ni horrekin bizi? Ezta pentsatu ere.

Pentsamendu hauek buruan, ezin du loak hartu. Etxeko gogorakizun hunkigarri guzti hauek buruan, hotzak akabatzen dago.

Azken kapitulua, "goizaldean, ez dakit zer ordutan". Kapitulu hau, laburra da, agian laburregia azaldu nahi duen Xabiren malenkonia eta etxeko amaren samurtasuna bere osotasunean agertzeko. Baina, halere hunkigarria eta polita. Xabiren ihes gogo guztiak porrot egiten hasten dira. Lo egiteari ez baina idazteari ekiten dio. Hotza sentitzen du, hotz ikaragarria, esne beroa hartuko luke, amaren samurtasun guztiak ditu buruan. Zein pozik hartuko lukeen lo amaren "biotzeko taupadak" entzunez, "nire eskuan zurean" jarrita. Amarekiko menpekotasun ikaragarria argi eta garbi adierazten da.

Arnasaldi batean irakurtzeko liburu txiki polit eta samurra Mariasun Landak idatzi duena. Sentiberatasun haundikoa eta haurren ezagutza eta inork askotan garrantziarik eman ez baina haurren bizitzan zerikusi bortitza duten deskribapen, amodio, samurtasun, duda eta abar, gure ustetan oso ongi adierazten duen liburua.

Gillermo Etxeberria

ATXAGA, Bernardo: *Zeru horiek*. Erein, Donostia, 1995. 141 or.

Bizitza kolorez gainezka dago eta bizitasuna nabarmen-tzen da kolore gehienetan: maitasuna arrosez edo gorriz (intensitatearen arabera) margotzen dute batzuek; itxaropena berde jaio zen; purutasuna eta garbitasuna txuriz adierazten dira; lasaitasuna itsasgaina bezain urdina irudika dezakegu... eta tristura?, eta poza? Zein kolore egoki dakieke barne sentimendu anitz koloregabei?

Bizitzaz eta koloreez-biek daukaten elkarrosagarritasunez ihardun du Bernardo Atxagak, galdera horiei ihardetsi nahian, argitara ateratako *Zeru horiek* nobela berezian. *Gizona bere bakardadean* literatur-lanak dastarazi zion arrakasta errepikatzen hasi den honetan (dagoeneko erdarara itzulita baitago), arlo guztietan maisu den idazleak sentimenduak, koloreak, irudimena, poesia eta originaltasuna konbinatu ditu, eta lortu duen amaitza erraza bezain sakona izan da.

Zergatik "Zeru horiek"? Zerua izan ote daiteke norberaren sentimenduen islada? Bai. Zerua koloretsu bezain koloregabea baita, bizitza koloretsu bezain koloregabea den bezala; zerua argi bezain iluna baita, bizitza argi bezain iluna den bezala... Eta itsasoa zeruaren islada den neurri berean, zerua ere arimaren islada izan daiteke. Horrela, arima tristeari zeru grisa dagokio;

arima alaiari zeru urdin argia; eta arima nahastuari, zeru ilun nahastua...

Honakoa Atxagaren azken lana bada ere-oraingoz, azkenekoa balitz, askoren arimak gau itxiaren zeru-kolorea hartuko baitzuen, zilegi da pentsatzea (eta hau lan handi bat komentatzen ari denaren uste "txikia" da) zeruaren kolore-aniztasuna eta arimaren egoera uztartzeko ideia bazebilkiola buruan asteasuarrari *Obabakoak* (Erein, Donostia, 1988) idatzi zuenean. Izan ere, liburu hartako istoriotako batean ("Hamaika hitz Villamedianako herriaren ohoretan eta bat gehiago" ipuinean, hain zuzen ere) agian gerorako pista izan zena erne zen: "Hainbat jende harrotu egiten da esanez bere aldarteak es duela egunaren itxurarekin loturarik; berak badituela, azalez barrura, bere laino eta urdinak, baduela bere eguraldi propiala, eta ez diola axola, honegaik, goizean jeiki eta leihotik begiratzean ikus dezakeenak. *Nire poza, dio jende horrek, ez dago zeru kolore baten mende, eta berdin gertatzen zait goibeltasunarekin ere.*

Zoritxarrez, harrotasun hori ez dago nire esku (...). Nire izpiritua, funtsean, berdina da landareak dutenarekin, eta, horiek bezala, *"bizitu egiten naiz eguraldi argiarekin, eta moteldu ilunarekin"*. (130-31 or.).

Aieru bat, besterik ez. Idazlearen arimak zeru grisaren tan-kerak bereganatu zuen batean Bartzelonatik Bilborako bidaiak egiten ari den emakumearen istorio grisa begitandu zitzaioela us-tea aieru bat den legez.

Gizona bere bakardadean eta *Zeru horiek* elaberrietan antzekotasun adina desberdintasun aurki daitezke: bietan agertzen da Bartzelona (Atxagak ondo ezagutzen duen hiri bat) eta bietan aurkezten zaigu ETA-kide izandako pertsona baten barne-gatazka. Batean gizonezkoa izan bazen pertsonaia nagusia, beste honetan emakumezkoa dugu protagonista. Lehendabizikoan kontzientziaren mailukadan ahotsa besterik ez bazen entzuten, bigarren goan etsipenaren isiltasuna nabaritutako da. Aurrekoak bukaera ezkorra izan bazuen, oraingoak amaiera irekia edukiko du...

Balitzko erraztasunaren azpian ezkutaturako estilo sakonari poetikotasun puntu bat erantsi nahi izan dio Atxagak literatur-lan honi, eta zeruaren koloreez gain hainbat poetaren —euskaldunen zein atzerritarren— bertsoez baliatu da emakume protagonistaren barnea —askatasunerako bidaiaren askatuko dena— geureganatzen saiatzeko garaian. Sarriandiarren “Preso egon denaren gogoak” istorioan zehar zen-

baitetan errepikatuz, esaterako, azalpenik behar ez duen efektua lortzen du:

“Preso egon denaren gogoak
Gartzelara itzultzen da beti.
Kalean juje, fiskal eta
Abokatuekin gurutzatzen da,
Eta poliziek, identifikatu ez arren,
Beste inori baino gehiago
Begiratzen diote, bere pausua
Sosegatua ez delako
Edo sosegatuegia delako.
Bere bihotz barruan
Betirako kondenatu bat dago”.

Poemaren hitzei darian errezelua —protagonistaren irudimenean agitzen den zerbait baino ez dirudiena— baieztatu egingo da (hona hemen idazle asteasuarraren bukaezinezko originaltasuna) barne-mundua- ren aldean intriga bukaeraino mantentzen duen “abentura”- rekin (pertsonaia “arraro” batzuek jarraitzen omen baitute emakumea...).

Ukaezina da, aipatu beharrekoak aipatuta, *Zeru horiek* liburu berezia dela: orrialde gutxitan (gaindituta dago *Gizona bere bakardadean* liburuaren gehiegizko luzapenaren akatsa) sentimenduen mundu lilragarrian murgilarazten zaigu; orrialde gutxitan, autoreak irakurlearen bihotzeraino iristea lortzen du. Zenbat aberastu gaitzkeen “zeru horiekin” bat eginez...

Leticia Grandes Mateos

MUJIKA, Luis Mari: *Udarbe eta Urtuella lekuko*. Kriselu (R&B), Donostia, 1995. 309 or.

Loitzu herrian uda-partean aurreko —eta aurreneko— nobelak irakurleen aldetik izan duen harrerak eraginda edo, narratibara itzuli da Luis Mari Mujika idazlea komentagai dugun *Udarbe eta Urtuella lekuko* lanarekin.

Aurrekoaren ildotik, ekintza Euskal Herrian garatu du auto-reak; oraingo honetan, ostera, denboran atzera egin eta XIX. medearen bukaerara eraman ditu hirurehun orrialde baino gehiagoko bizitza izango duten pertsonaiak.

Zeren lekuko izango dira Udarbe eta Urtuella? Zer da Bizkaiko bi herrietako bizilagunek ikusi beharko dutena? Ona izan daiteke "lekukotasun"aren atzean ezkututzen den zerbait?.

Liburua eskuetan hartu eta bere horrialdeetan galdu baino lehenagoko galderak dira hauek. Baina herritarrek herria osatzen duten aldetik herriek ere bizirik badutela aintzakotzat hartu behar da liburu honetan jazoko denaz behar bezala jabetzeko.

Errealismo handiz narratuta baitaude XIX. mendearen bukaera eta XX. mendearen hasiera bitartean Euskal Herriak jasan zituen arazo nagusiak: Nazionalismoaren sorrera, sozialismoaren indarra, tradizioarekiko haustea, jauntxokeria... baina, batez ere,

erdal eta euskal kulturen arteko estraineko enkontru garrantzitsua, industrializazioak eraginda neurri handi batean.

Bi kultura eta ideologia anitzek topo egitean pizten diren arazoak eta jasaten diren aldaketak onuragarriak bezain kaltegarriak izan daitezke. Eta horixe da, hain zuzen ere, Udarbe eta Urtuellako lekukotasunak frogatu nahi duena. Udarbe eta Urtuella hurbil bezain urrun daude: hurbil, Bizkaian daudelako biak; urrun, etengabeko aldakuntzek bien arteko zubi iragangaitza eraikiz joango delako.

Udarbe dugu tradizioa eta euskaltasuna adierazten dituen nekazal herria. Urtuellaren ardatza, berriz, meatzean dago, industrializazioan eta baita ideia berrietan ere. Euskal Herriko herri honetan, euskaltasun izpirik ez...

Elaberriaren egiturak Joan Mari Irigoienek *Babilonia* eta *Consummatum* est nobela zogarriekin gogorarazten du, honakoan ere kronologikoki lotutako bi istorio (garai berean agitzen baitira) izango baititu abiapuntu liburuak: batetik, Udarben hasten dena (Jaxinto gazteak On Ernestoren jauntxokeriari aurre egitea erabakitzen duenean), eta, bestetik, Urtuellan hasiera ematen

zaiona (Jaxinto, Juxto anaiaren eraginagatik eta On Ernestoren-gandik ihes egitearren Urtuellara lan bila joaten denean). Jaxinto eta Juxto anaia udarbetarrak izango dira irakurleari bi herrien elkar topatzea ahalbideratuko diotenak: Jaxinto Urtuellara ailegatzen den momentutik, herri bateko eta besteko pertsonaiak, ideologiak eta arazoak korapilatzen hasiko dira, eta ezari-ezarian, ia ohartzeko, azpi-istorio guztiak bukaerako bateratasunera iritsiko dira.

Hastapenetik amaierarako bidaia luze honetan, pertsonaiek dute pisu gehiena: haiek baitira gertakizunak eragiten dituztenak eta haien ahotik jasotzen baitugu arestian aitaturako inguruko errealitate hori. Maitasunezko bi istorio paraleloak (Udarbeko Axun eta jaxintoren artekoa eta Urtuellako Maria Dolores eta Alberto erdaldunaren artekoa) lurralde bateko —Euskal Herriko— balizko gizarte pareko eta homogeneo batean puri-purian dagoen problematika azaltzeko aitzakia besterik ez dira.

Puntu honetara helduta, me-rezi du pertsonaia batzuen aipamena egitea:

Jaxinto, esaterako, handik eta hemendik dabil; batetik eta bestetik “edaten” du, baina ez dauka ideia politiko zehatzik. Argi duen bakarra —eta ez da

gutxi, gero— euskalduna dela da.

Juxto (Jaxinto anaia), aldiz, abertzaletasunaren gainetik dagoen euskalduna da. Gazte eskolatua, sozialista amorratutza dauka bere burua. Pertsonaia orekatua dirudi Juxtok... Dena den, hain garbi ditu bere ideiak?

Porfiriok (Maria Dolores urtuellarraren aita) aranistaren, abertzalearen rola betetzen du. Ez du euskalduna ez dena onartzen; beraz, ez du “maketo”rik onartzen. Baina bizitza paradoxa bat da eta bere alaba Alberto erdaldunarekin maiteminduko da...

Alberto, bada, erdaldunaren estereotipoa dugu. Sozialista da eta euskaldunekiko “gorrotoa” sentitu baino, gehiago zalantza da bere burua definitzea oztopatzen diona: Nola uztartu sozialismoa eta euskalduntasuna? Euskaldun izatea abertzale izatea ote da?

On Ernesto, azkenik, garai bateko jauntxokeriaren adibide garbia da. Ez dauka beste legerik berak ezartzen duena boteretsuenak inposatzen duena baino.

Inolako zalantza izpirik gabe, pertsonaiak ederki perfilatua daude: fisikoki —ugariak baitira haietaz eskaintzen diren detaile eta xehetasunak— zein ideologikoki, argi eta garbi nabaritzen baita hauetako bakoitzak ideologia desberdin bat isla-

datzen duela. Eta, azken finean, azkeneko hauxe da irakurlearen gan pertsonaia bat edo beste-enganako identifikazioa sortzen duena, nobelan azpimarratzen den hainbat “arazo” ez baita indargetu denboraren iraganaz...

Nahikoa dugu orain arte komentatutakoarekin eta handik eta hemendik emandako zertzeladekin elaberrian jazotzen diren arazo edota gertakizunen egiaztagarritasuna frogatzeko. Kontuz, ordea. Honakoa ez baita nobela historiko bat, kontzeptuaren zentzu hertsian. Garai zehatz baten islada eskaini arren, garai historiko horretan girotutako fikzioa besterik ez da *Udarbe eta Urtuella lekuko* nobela. Idazleak sortutako fikziozko pertsonaiak, Euskal Herriko errealtatean bizi izan zen —bizi ohi den— zenbait auzi planteatzen baditute ere, fikzioa baino ez dira, fikzioari baino ez dagozkio.

Ohi duenez, egilea hizkuntza aberats batez baliatu da *Udarbe eta Urtuella lekuko* idaztean. Sinonimia eta, batik bat, nekazal munduari atxekitako hainbat terminoren erabilpena eragozgarri gerta dakioke irakurleari hasieran, baina luzaroan gainditutako zailtasunaren irakasgarritasuna besterik ez du kontutan hartuko.

Hizkuntzari dagokionean aurreko elaberriarekin alboratuta al daketa nabarmenik —aldaketarik— somatzen ez delako baieztapena guztiz aplikagarria da estiloari: jadanik azalduko egitura “moderno”, linealtasunik eza eta denboraren zeharkako jauzi nabarmenak bigarren plano batean geratu dira deskribapen ugari eta hornitu, antzeko pertsonaiaren estereotipo eta detaile eta xehetasun ñimiñoen aldean. Funtsean, beraz, berdintsua izaten jarraitzen du estiloak. Azpimarratu beharra dago zenbait pasarteren errealismo eta bortiztasuna (Maria Anjeles eta Axunen bortxaketak, “borroka dialektikoak”). Baita hausnarketa-eragile diren pertsonaien baka-rrizketak ere.

Esanak esan, *Urdabe eta Urtuella lekuko* elaberriak interesgarritasun maila altua dauka, errealtate historikotik erauzitako gai batek sortu dezakeen astuntasuna orekatzeko trama nobelesko erakargarria sortu baitu idazleak, alderdi batean ez bada bestean interesa bukaeraraino mantentzen delarik. Gainera, gaurkotasun osoa duen auzi bati buruzko hausnarketa egitea ahalbideratzen du. Diotenez, bi kultur desberdin arteko enkontrua onuragarria bezain kaltegarria izan daiteke. Norberak atera ditzala kontuak.

Leticia Grandes Mateos

ALZOLA GEREDIAGA, Nikolas. *Euskaraz, Irunen barrena*. Luma Liburuak.
2. Irun. 1994

Irungo "Luma Liburuak" deitzenaren 2. zenbakiak izenburuztat *Euskaraz, Irunen barrena* daraman liburua argitaratu du, baina Irun ezezik Bidasoan zehar egiten den euskara mintzatua biltzen du anekdotaz, bertsoz, kondairaz eta abar, Nikolas Alzola Gerediaga zenak herriagandik ahoz jasoak eta lehena-go, 1959-1961 urteetan *El Bidasoa* aldizkarian "Literatura oral euskérica de la comarca bidasotarra" sailean emandakoetatik hautatuak, eta anitz bada Hondarribian bildutakotik.

Liburu entretenigarria benetan. Hondarribiarren kontakizunik ez da falta, bertan herria mintzo den bezala eta, esan beharrik ez da, euskaraz eskolan irakurtzen ikasteko aukerarik izan ez zuten hondarribiar euskaldun jatorrerirakurketan trebatzeko aukera ona eskaintzen diola, era berean bertako herri literatura ezagutuz.

Zenbakiturik datoz eta hara hemen 107.a (70. orrialdean), Jabier Intxausti Aizpiolea portugarrak 1959.ean kontatua, hitzez hitz:

"Pernandok esan zion lagun bateri:

— Eztakizula ze egiten duen lenda-biziko bei batek eguzkiya aateetzen denian?

Eta bestiak esantzuen:

— Eztakit zer egiten dun.

— Itzala"

Kontalari ber-berak, 123.ean (76. or.) beste honako hau dakar:

"Esantzion lagun batek bestiari:

— Nora faki zara?

— Illia moztera.

Eta Bestiak esantzion:

— Eztutu ta illerik. Nola illia moztu b'ar duzu?

Eta bestiak esantzion:

— Baña ez tut pagatu b'ar".

Kontalari trebea Jabier, 127. ateraldiak erakusten digunez:

"Arratse batian esantzion atta batek bere semeari:

— Zer da urrutiyago? Erroma ala illaragia?

Eta semeak esantzun:

— Erroma

Baño zertikan?

Eta esantzion semiak?

— Zertikan illargiya ikusten dut Erroma ez".

Liburuaren barrena Hondarribian bildutako bertsoak ere aurkituko ditugu. Adibidez, Klaudio Otaegi Irunen bizi zen hondarribiarri jasoa. Baina, 247.a (140. or.) datorren bertsoa, J.J. Marfull Arretxeri jasoa, zortziko txikian, nere ustez lehen puntuan inprimategiko hutsen bat duela

esango nuke, zeren *-tatu* hori ezinezko da *-tuta* puntuarekin errimatzea potirik gabe bertsoa osatzeko; hargatik uste dut: *ostuta / moztuta* behar duela izan puntu jatortzat. Beraz, hara hor nere ustezko era egokian:

Amonak ekarri du
txerriya ostuta
zintzillikan jarri du
isatsa moztuta

Baina polita da beste honako kontakizun hau ere, 1960. urtean C.S.O.k kontatua (arestian aipatua den Karmen Sagartzazu Otaegi, noski). 260. zenbakia dararama 145. orrialdean:

“Oartzungo andre bat ikazkillia etortzentzen Ondarribira mando aundi batekiñ.

Eta pasatzentzen kale Nagu-sittik aurrera plazarañon. Plaza ixkiñian sartzen zen Anbroxioren kafian. Eta galdetzentzuen baso aundi bat ardo eta ogi koxkor bat.

Sartutzentzuen ogiya orduan barrenian eta jatentzuen ardo ttantturik gabe geldittu arte.

Orduan salero aundiyaikiñ esatentzion Anbroxion morroyari:

— Ekatzu, gaxo, beste baso bat ardo, zertik ogiyak dena eran nau.”

Izan ere, biltzaile paregabea zen Nikolas Altzola, pazientziaz betea. Euskaraz naiz gazteleraz, euskal gaiei buruz lan asko egin zuen gizona Nikolas inguru ho-

netako askorantzat Anai Balentin Berriotxo zena. Adiskide mina nuen eta elkarren artean harreman estuak izan genituen. Irundik Durangora edo Bilbora trenez joaten zenean, maizenik, Eibarren gelditzen zen, gure etxean atsedendidi eta hitzaspertu bat egiteko. Bere lehendabiziko *Atalak* (1967) ipuin liburuaren hitzaurre hirukoitzean partaide nintzen E. Erkiaga eta L. Akesolorekin batean.

Euskaraz, Irunen barrena delako liburu honen solapetan Nikolas Altzola egilearen lanen berriak irakurtzean nornahi ohar-tuko da garai zail haietan zenbat lan egin zuen gizon harek. Ez ditut aipatuko bere lanak argitara eman zituzten aldizkari guziak ez eta ere erabili zituen izenordeak, asko baitira. Baina solapa hortan bere liburuak aipatzean ikusten dut bi falta direla. Eta horien berri eman beharrean aurkitzen naiz lagun onaren oroitzapenez; ipui liburuetan ohi zuen bezala Bitaño izenpean Gero argitaletxearen Kimu sailean eman bai zituen *Ipuiak* (1978) eta *Ipuiak-II* (1980). Gainera, ikus hilondokotzat idatzi nuen artikulua *Egan-en* (1-6. zenb., 1982, 5-12. orrialdeetan): “Nikolas Altzola Gerediaga zena-ren oroitzapenez”.

Bere etengabeko lanetan, Nikolasek, sorterrri zuen Izurtza eta Durangaldeaz gainera, Irunen Lasallear egonaldia probe-txugarri izan zitzaion Bidasoa

ibar inguruko folklore eta gizonen berri asko bildu eta idazteko. Horren lekuko bat besterik ez da *Cien autores vascos* (1966), non elkartu zituen nortasun handiko gizonen artean apalenak eta guti ezagunak. Adibidetzat jarri neza-ke, bere lan horri esker, "Sartarka"ren anaia Dionisio Sagar-tzazu (1898-1958), badakigu Fraisoro Eskolan ikasketak egina zela eta Diputazioaren beka In-glaterrako Gernesey-n ere ikas-keretan egona zela. Lehen aldiko Zeruko Argia-n "Nekazaritza Gaiak" idazten zuela euskaraz.

Baina, liburu haren 136. orrial-dean ematen zituen berrien ar-tean irakur daiteke ohar laburre-tan Kayo Lasa hondarribiarren aipamena, nork *herri-kontuak* agertzen zituen *Euskal-Esnalea* aldizkarian. Inor arduratzen ote da horien lanak biltzen?

Beste gai bat litzake bida-soa ibarrean astisteri buruz euskal aldizkarietan Nikolasek idatziak, edo L.L. Bonaparte printzea eta haren lankideez *El Bidasoa* aldizkari berean idatzi zituenak.


Juan San Martin

Elhuyar

ZIENTZIA ETA TEKNIKA




natura



teknologia

Zientzia eta teknologiaz
informazio zuzen, zehatz eta
txukuna, edonork ulertzeko
moduan gure
kolaboratzaileen eta
erredaktoreen eskutik.



zientzia

Elhuyar. Zientzia eta Teknika aldizkaria jaso nahi dut. Urtean honen hamaika ale jasoko ditut eta gainera doan **Elhuyar** aldizkariaren bi ale.

Izen-deiturak _____

Helbidea _____ Tel. _____

Hiria _____ P.K. _____

Ordainketa:

Kontu korrontearen zenbakia: _____


Bankua: _____

Sukurtsala: _____


- 5.750 pta. Euskal Herria eta Espainia.
 Bi urterako 10.500 pta.
 Hiru urterako 16.000 pta.
 8.500 pta. beste herrietan.

hilero zure eskutan

EUSKALDUNON
Egunkaria



EGUNEROKO
AUKERA





Argitarapen honen
edizioako laguntzaile

En la edición de esta
publicación colabora:



fundazioa
fundación





EGAN

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko **BO-LETIN**-aren euskarazko gehigarria



EDUKIAK

- 1.- Azterketa literarioak
- 2.- Sorkuntza: poesia, antzerkia, kontakizunak
- 3.- Ahozko tradizioa
- 4.- Itzulpenak. autore unibertsalen itzulpenak
- 5.- Adabakiak: Euskara eta literatur inguruko berrien komentarioak.
- 6.- Kritikak eta erreseinak: euskal eta erdal liburuak

Harpidetu zaitez:	Urteko harpidetza:	2.000 pezta.
	Atzerrian:.....	2.500 pezta.
	Dendan ale bakoitza:	1.800 pezta.
	Ale atzeratuak:	2.500 pezta.

Informazio gehiago nahi baduzu, eskatu konpromisorik gabe.

Gure helbidea: **EGAN**

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea

Peña y Goñi, 5-2º izda.

Postakutxatilla 992 – 20080 - DONOSTIA



HARPIDETZAREN TXARTELA

Izen deiturak _____

Helbidea _____

Herria _____ Posta-kodea _____ tel. _____

Banku edo Kutxa _____

Kontu zkia.: _____

Sein antroponimoa.....	168
Euskaldunen alfabetatzetik hasia eta A.E.K. zehar. sorrera eta lehen ekintzen iturriak	171
Aita Xanti Onaindia (1909-1986)	173

KRITIKAK ETA ERRESEINAK

MAÑAS José Angel, <i>Historias del Kronen</i> . (L.M. Mujika)	177
HARANBURU-ALTUNA Luis, <i>Auskalo, Luk</i> . (L.M. Mujika).....	180
LANDA Mariasun. <i>Nire eskua zurean</i> . (G. Etxeberria).....	183
ATXAGA, Bernardo: <i>Zeru horiek</i> . (Leticia Grandes).....	186
MUJICA, Luis Mari: <i>Udarbe eta Urtuella lekuko</i> . (Leticia Grandes).....	188
ALZOLA GEREDIAGA, Nikolas. <i>Euskaraz, Iru- nen barrena</i> .(J. San Martin)	191

EGAN

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea
BOLETIN-aren euskarazko gehigarria

Urteko harpidetza	2.000 pta.
Atzerrian	2.500 pta.
Dendan ale bakoitza.....	1.800 pta.
Ale atzeratuak	2.500 pta.

BOLETIN

De la Real Sociedad Bascongada
de los Amigos del País

Suscripción anual	3.000 ptas.
Número suelto.....	2.000 ptas.
Número atrasado	2.200 ptas.



**EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO
"BOLETIN"-AREN EUSKARAZKO GEHIGARRIA**

Idazkaritza: Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea. Gipuzkoako Saila
992 Postakutxatila — DONOSTIA